HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIA **10. ZENBAKIA.** 5 €

Hazi Hezi

GAIA:

Demokrazia etxetik hasten da

ELKARRIZKETA: XABIER TAPIA

"Harremana da haurraren garapenerako ardatz nagusia"

EZTABAIDAGAI

Kontziliazioa

Reggio Emilia

jardunaldiak

Italiako REGGIO EMILIA. 0-3 haur-eskolen pedagogiaren azalpena eta praktika

Mundu zabalean oso ezagunak dira Reggio Emiliako haur eskolak. Alde batetik, parte-hartzaile eta gertuko gestioa duten Udal Haur Eskolak direlako; eta bestetik, oinarritu diren Malaguzziren pedagogiak haur bakoitzaren garapen osoa duelako xede. Mende erdia baino gehiago 0-6 urte bitarteko haurrekin aritu badira ere, azken 5 urtetan, eta, ildo pedagogiko bera erabiliz, 6-11 (Lehen Hezkuntza) jarri dute praktikan.

Hizlariak:
-MADDALENA TEDESCHI pedagogoa. Reggio Emiliako pedagogia arduraduna
-CHIARA SPAGGIARI hezitzailea. Reggio Emiliako Gianni Rodari 0-3 haur eskolako hezitzailea
-ALFREDO HOYUELOS europar doktorea. Tailerista eta UPNAko irakaslea

Azaroaren 14an BILBOn eta 15ean DONOSTIAn

informazio osoa eta izena emateko aukera:
www.hikhasi.com **Tel.: 943 371 408**

EDITORIALA

Haurtzaroan inbertitu behar da

Kontraesana mahai gainean dago. Nola babestu 0-3 etapa baliabiderik ez baduzu?

Hazi Hezi aldizkariaren 10 zenbakietan idatzi izan dugu lehen haurtzaroak hauRren garapenean eta helduekin eraikitzen dituzten harremanetan duen garrantziari buruz, eta oraingo honetan, zehazki eta sakonki garrantzi hori nolakoa den galdetu diogu **Xabier Tapia** ibilbide luzeko psikologoari: "Ikuspegi biologikotik gizakiaren kumea hutsala da beste animalia-kumeekin alderatuta eta ez da gauza bere gisa bizirauteko. Horrek, bere garuna heldugabea dela eta giza kumea bere kabuz aurrera egiteko gauza ez dela adierazteaz gainera, beste gizaki batzuen guztiz menpe dagoela erakusten digu. Baina paradoxa zein da? hasieran hain hutsala izanik, gero, giza harremanari esker ziurrenik, beste kumeen aldean, askoz gehiago garatzen dela, psikikoki batez ere". Gai nagusian ere, familia barruko harremanei buruzko orrialdeetan **Nerea Mendizabal psikopedagogoak** eta **Miren Camison irakasle eta filosofoak** etapa hori babestearen funtsezkotasuna nabarmendu dute. Camisonen aburuz, 0-3 etapa haurraren eta gurasoaren arteko "lotura osasuntsu bat egiteko etapa da"; hala erantsi dio Mendizabalek: "Haurraren beharrak asetzea eta lotura osasuntsu bat garatzea bere antolatzaileak osatzeko oso garrantzitsua izango da, gainontzeko alor guztietan segurtasunez eta konfiantzaz beterik agertzeko oinarria emango baitio, bai bere ikasketa eta garapenean, eta baita oraingo eta etorkizuneko harremanetan eragin zuzena izango duena ere".

Eta nola babesten da hain garrantzitsua den etapa hori? Tapiaren erantzuna argia da: "Lehenengo eta behin baldintza materialak eta giza baldintzak behar dira. Teoria guztiak, azkenean, sosetan haragitzen dira eta inbertitu beharra dago, bai formazioan, bai giza baldintzetan eta baita materialetan ere".

Alta, gai nagusian eta elkarrizketan, zeharka eta zuzenki lehen haurtzaroa babestearen garrantziaz ari ginelarik, iritsi zen albistea: "Bukatu egin da lana eta familia-bizitza uztartzeko Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen funtsa". Eta ia eskuartean duzun aldizkari hau inprentara joan bezperetan, bestea: "Gizarte Segurantzako defizitari aurre egiteko neurri gisara, seme-alabengatik ematen diren laguntzak gutxituko ditu Frantziako Gobernuak". 0-3 etapa babestea sistemaren ardura ez eta gurasoen egiteko balitz bezala jokatzen dute administrazioak. Nola babestu 0-3 etapa baliabiderik ez baduzu? Nola errespetatu lehen haurtzaroko beharrak gizarte-sistemaren lehentasunek laguntzen ez badizute?

SiiSeko zuzendari **Joseba Zalakain soziologoa** elkarrizketatu dugu Eztabaidagaian kontziliazio- eta familia-laguntzak aztertzeko. Norabidez aldatu behar dugula dio, iparraldera begiratu behar dugula; gizarte-babes-sistema alderantzikatzea proposatzen du: "Europako politika sozialak haurtzarora begira jarri dira. Hor dago gure gabezia, gure sistemak beste orientazio bat dauka. Hori aldatu eta haurtzarora bideraturiko inbertsioa izan behar da gizarte inbertsioa".

Kontraesana mahai gainean dago. Ereduak ere argiak dira.

hik hasi egitasmoaren aldizkaria **www.hikhasi.com** 943 371 408 **hazihezi@hikhasi.com**
XANGORINek 2014KO urrian argitaratua. Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. ISSN: 2254-2027 Lege gordailua: SS-0466/12.
Hazi Heziko informazioa zabaldu eta partekatu dezakezu. Erredakzioak ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratutako iritziak.

Koordinatzaileak
Joxe Mari AUZMENDI
Ainara GOROSTITZU
Arantzazu MUÑOA
Idazkaritza
Uxue UGARTEMENDIA
Erredakzio-taldea
Nerea AGIRRE
Kontxi AIZARNA
Mila APEZETXEA
Ainhoa AZPIROZ
Izarne GARMENDIA
Iñigo LARRAÑAGA
Aritz LARRETA
Josi OIARBIDE
Josu TXAPARTEGI
Arantxa URBE
Ankelo USOBIAGA
Kolaboratzaileak
Ixabel ALEMAN
Alex BARANDIARAN
Miren CAMISON
Iñaki EIZMENDI
Nerea MENDIZABAL
Juanjo QUINTELA
Argazkiak
Hazi Hezi
Kontxi AIZARNA
Xumar ALTZUGARAI
Ainhoa AZPIROZ
Ainize MADARIAGA
Eskerrak
Ainhoa Alonso, Unai Ugartemendia, Haizea eta Alaia. Eider Goikoetxea eta Aner.
Diseinua
Graf!k
Inprenta
Antza
Elkarlanean

URKIBIDEA

EDITORIALA
Haurtzaroan inbertitu behar da
3

LABUR-LABUR
6

KONTSULTAK
8, 18, 36, 44

GAI NAGUSIA
Errespetuzko harremanak familian
10

ELKARRIZKETA
Xabier Tapia
20

ASTEZ ASTE,
URTEZ URTE
27

Gurasoak mintzo
38

Hezitzaileak mintzo
40

EZTABAIDAGAI
Kontziliazioa: gaur egungo laguntza-sistemak asetzen al ditu familien premiak?
46

JOLASAK
52

SORMENA
Manu Muniategiandikoetxea artistari elkarrizketa
54

IRITZIA
Estitxu Fernandez
58

KASKAROTENEA ETA TXALIPURDI SARITU DITUZTE BIZIPOZA JAIAN

Ehunka haur eta gazte eta beste horrenbeste heldu batu ziren irailaren 21ean Arrasaten (Gipuzkoa), Bizipoza jaialdian. Irrien Lagunek, udalak eta hainbat eragilek elkarlanean antolatu zuten, beharrizan bereziak dituzten umeei eta haien familiei laguntzeko helburuz. Ziburuko Kaskarotenea ikastolari (Lapurdi) eta Arrasateko Txatxilipurdi elkarteari eman dizkiete aurtengo sariak, auzolan sare euskalduna osatzeagatik. Horrez gain, egun osoan zehar elkartearen barruan dauden taldeen lana gizarteratzeko hainbat tailer, ikuskizun, jolas, etab. egin ziren. 5.000 lagunetik gora bilduta, balorazio oso ona egin dute antolatzaileek.

AMAREN EMAZTEAK HAURRA ADOPTA DEZAKE

Euren bikotekideak ernalkuntza lagunduarekin atzerrian izandako haurrak adoptatu ahalko dituzte andre lesbianek hemendik aurrera Ipar Euskal Herrian. Gaur egun bikote lesbianek ezin dute medikuntza bidez haurrik sortu, aukera baimendua bada ere, legeak zehazten du haurrak edukitzeko arazoak dituzten bikote heterosexualentzat bakarrik dela irekia. Horrela, Ipar Euskal Herriko emakume lesbiana anitz Hego Euskal Herrira joan ohi dira. Kasu horietan haurraren amaren emazteak haurra adoptatzen ahalko duela erran du Kasazio Auzitegiak: "Atzerrian medikuntza bidez lagundua den haur sortzeak ez du adopzioa oztopatzen, haurraren interesekin bat egiten badu eta adopzioaren legezko baldintzak elkartuak badira".

LABUR LABUR

2013KO HAUR ETA GAZTE LITERATURA GIDA SAREAN DA

60tik gora titulu biltzen dituen gida kaleratu du Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Haur Liburu Mintegiak. Haur eta gazte literaturaren inguruko 13 lagunek osatu dute aukeraketa egin duen taldea. Besteak beste, hizkuntzaren erabilpena, kalitate literarioa, eta gaiari eman zaion tratamendua hartu dituzte kontuan gida zerrendatzeko. Bi modutan sailkatu dituzte 60 liburuok: "gomendagarriak" eta "oso gomendagarriak". Gida *www.mondragon.edu* webgunean dago eskuragarri.

ABORTU LEGE BERRIA EGITEKO ASMOA BERTAN BEHERA GERATU DA

Espainiako Gobernuak bertan behera utzi du Abortuaren Legearen erreforma, abortuak egiteko eskubidea ia guztiz ukatu nahi zuena. Hala, Alberto Ruiz Gallardon Justizia ministroaren plana ezerezean utzi du Mariano Rajoy presidenteak, eta kargua utzi du ministroak. Zenbat eta aldaketa handiagoak iragarri —1985eko legea baino atzerago doa malformazioen arloan, esaterako—, orduan eta babes txikiagoa izan du Gallardonen proposamenak. PPren barruan haustura eragin du, baina kaleko presioa ere aintzat hartzekoa da. Protesta handiak antolatu dituzte erreformaren aurka; hiru urteko bidea izan arren, gainera, lortu dute indarrari eustea. Hala ere, oraingo legean aldaketa bat egingo du Espainiako Gobernuak: 16-17 urteko neskek gurasoen baimena beharko dute abortatzeko.

BEHARREAN DIREN FAMILIENTZAT ERRENTA BAT ESKATU DUTE ARARTEKOEK

Familia asko beharrean direla eta erakunde publikoek ematen dizkieten laguntzak ez direla aski uste dute Hego Euskal Herriko ararteko-ek. Horregatik administrazio publikoei eskatu diete errenta edo diru-laguntza batzuk jartzeko premia duten familientzat. Javier Eneriz Nafarroako arartekoak zehaztu du bazterketa egoeran edo arriskuan diren familientzat izan beharko lukeela errenta horrek, eta gizartean zein lanean txertatzeko helburuei lotuta eman beharko litzatekeela. Ez litzateke errenta unibertsal bat izango, baizik eta egoera larrian diren familiei laguntzekoa.

Arartekoen esanetan, gizarteratzearen eragile nagusi dira familiak eta erabateko eragina dute norbanakoen garapenean eta komunitatearen eraikuntzan. Horrexegatik, funtzio horiek mantentzeko "babes sozial, ekonomiko eta juridikoa" ematea funtsezkoa dela diote.

'BULLYING'-AGATIK 50 SALAKETA BILDU DITUZTE URTEBETEAN

Jazarpenak etenik ez duela erakutsi dute Hego Euskal Herriko Fiskaltzak kaleratutako datuek. *Bullying*-agatik 50 salaketa jarri zituzten iaz Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Fiskalek "larritzat" jotako kasuak ere badaude tartean; suizidio ahaleginak eta erietxeratu behar izan dituzten gaztetxoak, adibidez. Oso gazteen artean gertatzen dira erasoak, datuen arabera. Salaketen erdietan, auzitegiek ezin izan zuten esku hartu, ustezko erasotzaileek 14 urte baino gutxiago zituztelako. Halakoetan, gurasoei eta eskolei eskatzen diete neurriak hartzeko. Salaketarik gehienak epaiketarik gabe bideratu ahal izan dituzte.

PSIKOPEDAGOGIA

Alex BARANDIARAN
MUko HUHEZIko irakaslea, Hazitegiko koordinatzailea

NOLAKO SEME, HALAKO GURASO

Neuk oso heziketa gogorra jaso nuen txikitan, hotza eta maitasun handiegirik gabekoa ere esango nuke. Txikitako bizipen horiek gure nortasunean daukaten eragina kontuan izanik, beldur naiz nire gurasoen antzeko guraso izango ote naizen. Nola ekidin dezaket errepikapen hori?

USTE DUT LAN PERTSONALA eskatzen duela, kontzientzia hartu zertan eragiten dizun, ez soilik guraso moduan, pertsona moduan baita ere. Lan pertsonal hori zure kabuz edota laguntzarekin egin dezakezu. Umetan "jasaten" dugunaren eragina gure inkontzientera doa eta gaur egungo hainbat testuingurutan aktibatzen da. Bestalde, guraso garenean, nahiz eta ume-aro txarrik ez bizi, gure guraso-eredu inplizituak erabiltzen ditugu eta bakoitzak izan duen eredu garrantzitsuena —beraiek ere hala direlako— gure gurasoena da. Hala, gure gurasoek gurekin egin zuten modura guk gure seme-alabekin egitea da ohikoena. Garapen pertsonala da errepikapenak ekiditeko bidea.

SARIAK

Etxerako lanak eginez gero, gela jasoz gero... gauzak "ondo" eginez gero haurra "saritzeko" ohitura izan dugu, zalantza handiekin, baina oso eraginkorra dela ikusi dugu. Orain ez dakigu nola lortu gauza horiek saririk gabe egiten ikas dezan...

ZAILA DA HAIN OROKORRA den egoera horri erantzutea baina gauza pare bat esango nituzke. Agian gauza horiek ez dira umearen interesekoak eta orduan zaila ikusten dut. Saiatu egiten gara txikitatik "jasotzen" ikas dezaten eta barnera dezaten. Umeak ez du nahi izaten ez duelako gustuko eta ez diolako ia ezer aportatzen. Ulertzen du helduontzako oso garrantzitsua dela eta beraien gauza dela, ez ordea berea, ez du berea egiten. Askotan gertatzen da janariarekin, ematen du jatea helduarentzako dela garrantzitsua, ez badu egiten heldua larritu egiten da eta jatea "betebehar" bihurtzen da, ez plazera. Haurtzaroan, betebeharrak ez dira barneratzen, ez da garaia. Egingo du agian heldua dagoen bitartean baina ez gaudenean ez du egingo. Jasotzearen esperientzia plazerezkoa bada beraiekin egiten dugulako —hor dagoena plazerezko harremana eta jolasa da— hori sari bihurtzen da. Beraz, berezitu dezakegu barne sari eta kanpo sarien artean. Barne sariak, alderdi neurologikoarekin dute zerikusia eta esperientzia pozgarria, dibertigarria, goxoa, plazenteroa izan beharko litzateke. Kanpo sariek, beste batek ekintza egin ostean ematen digunarekin lotuta egoten da. Gure ustetan saririk indartsuena plazera da, eta plazera dator elkarrekin ondo pasatze horretatik.

IPURDIKOAK

Badakit, oso garbi jakin ere, ez nituzkeela haurrak jo behar, baina zerbait larria egiten dutenean (beste haur batzuei jo, gauzak puskatu...) nire onetik irten eta ipurdikoren bat eman izan diet seme-alabei (ez min egiteko modukorik). Kontziente naiz, baina oso zaila egiten zait ipurdiko horiek ez ematea... zer egin nezake? Nire jokaera oso kaltegarria da seme-alabentzat?

JOTZEAK EZ DU EZERTARAKO BALIO, umeak erakusten duen jokabidea automatikoa delako eta ekidin ezina baldin eta bere egoera aldatzen ez bada. Kontuan izan behar dugu umeek ez dituztela helduok dauzkagun mekanismoak autoerregulatzeko. Beraz, ezin diegu eskatu bete ezin dezaketen zerbait. Uste dut adierazi behar zaiola gure iritzia, pertsona orori adierazi beharko geniokeen moduan, baina nahiz eta ipurdikoa emateko gogoa izan —beste "nagusi" batzuei eman nahiko geniekeen moduan—, jotzeak ez dio ekarpen positiborik ekarriko. Askotan umeek guk nahi duguna egitea nahi dugu, beste pertsonekin ere berdina gertatzen zaigu, eta lortzen ez dugunean frustratu egiten gara eta gure frustrazioa beraien gainera botatzen dugu. Besteek gure esana betetzea dugu gustuko eta betetzen ez dutenean haserretu egiten gara. Horrez gain, jokabide horiekin paradoxa batetan sartzen ditugu. Erakutsi nahi diegu besteari min egitea txarto dagoela berari min emanez.

PSIKOPEDAGOGIA

PERMISIBITATEA

Haurraren beharrak asetzeko nahian, hark nahi duen guztia egiten bukatzen dut, hau ekarri, hura jaso... ez dakit nola jarri muga bere beharrak eta nahiak errespetatu bai, baina gehiegizko babes edo permisibitatean erori gabe.

MUGEN GAIA umeen hezkuntzarekin lotzen da beti, baina ez dago horrekin lotuta bakarrik. Mugen gaia gehiegi mugatzeko ohitura dago. Mugak harremanen eraikuntzan daude. Pertsona bakoitzak nahiko inkontzienteki gainontzeko pertsonekin harremanak mugatzen ditugu edo mugatu beharko genituzke. Hori kontzientziara eramatea ezinbestekoa litzateke: zer da nik baimentzen dudana harremanetan? zer da ez dudana baimentzen? Hori argi badaukagu, umeari harremantzeko marko egonkor eta argi bat eskaintzen diogu. Horregatik dira garrantzitsuak, baina ez hainbeste umeari begira, baizik eta heldu moduan umearekin modu osasuntsu baten harremandu ahal izateko. Hori dela-eta, limiteen gaia gure arazoa da baina umeari egozten diogu egiten dugunaren inguruko erantzukizuna. Beharrak gauza bat dira eta gehiegizko babesa eta permisibitatea beste bat, ezin ditugu nahastu. Umeak benetan beharrak aseta dituenean ez gaitu hainbeste behar, ez dituenean ordea bere benetako nahiak adierazteko beste bide batzuk aukeratzen ditu, ez baitiogu egoki erantzun. Demanda kamuflatuta dago baina zaila egiten zaigu antzematea. Esan genezake modu ez-zuzenean egiten duela —askotan helduok egiten dugun legez— eta guk interpretatzen jakin behar dugu. Zer adierazten du umeak bere jokabidearekin? zer esaten ari da inkontzienteki? berarekin denbora gehiagoz egoteko? kasu egiteko? ulertzeko? onartzeko? aintzat hartzeko? maitasuna adierazteko? espazioa uzteko? segurtasuna emateko? lasaitzeko?...

GEHIEGIZKO ARRETA

Gure haurra oraingoz ume bakarra da familian. Hari begira gaude bikotea eta biok, hari begira alde bietako aitona-amonak... 2 urte bete berri ditu eta beldur naiz ez ote garen ari gehiegizko arreta eskaintzen, hori kaltegarria litzateke?

NOLAKO HARREMANAK dira osasuntsuak zuretzako? zerk egiten dizu mesede zuri pertsonekiko harremanean? zer baimentzen duzu on egiten dizulako eta zer ez txar egiten dizulako? Hori argi duzunean zeure seme-alabei berarekin duzun harremanaren bidez erakutsiko diozu zer den on egiten dizun harreman bat eta zer zuretzat ona ez dena, ez zuretzat ez berarentzat. Hau da jakiteko umeei ematen dizkiegun erantzunak egokiak diren edo ez, umeari begira egon beharko ginateke, ezberdinduz zeintzuk diren gure beharrak eta zeintzuk diren bereak, eta aztertuz ea ematen diogun erantzuna gure beharren araberakoa izan den, edo bere beharren araberakoa. Azkenik, azpimarratzea gustatuko litzaiguke ez dela gehiegizko arretarik ez gehiegizko maitasunik existitzen.

demokrazia etxean hasten da

Garrasia, ipurdikoa, juizioa... gainezka egiten dute sarri gurasoek, nahi ez luketen eran jokatuz haurrekin. Familiako harremanak begirunezkoak izan daitezen bi oinarri dituzte: norbere burua errespetatzea eta haurren garapen-premiak asetzea.

Errespetuzkoak al dira familiako harremanak? Adeitsuak, begirunezkoak, demokratikoak, parekideak al dira gurasoen eta seme-alaben arteko erlazioak? Goizean goiz etxe ugaritan ikus daitekeen erretratu bati begiratuko diogu: "Egon geldi!", "ez jo anaiari (geuk ipurdikoa ematen diogun bitartean)", "ez jantzi jertse hori galtza horiekin, jantzi hau!", "mugi azkar! Beti azkena izaten zara!", "ez baduzu gosaria bukatzen eguerdian telebista gabe gelditzuko zara!". Zenbat agindu, exijentzia eta zenbat juizio etiketa, konparaketa, xantaia entzuten ditu haur batek bere gurasoen ahotik ateratzen, ia oharkabean, goiz batean, egun batean, haurtzaro osoan zehar?

Nola bilakatu maitasunezko sentimenduak jarrera eta harreman txeratsu? Seme-alabekiko harremanak (ikasleekiko hartu-emanak nahiz bilobekikoak) errespetuzkoak izan daitezen nahi badugu, ez da aski desio izatea, ariketa kontziente bat egin behar da, **Miren Camison filosofo eta irakasle** eta **Nerea Mendizabal psikopedagogoa**ren arabera, kulturalki eta sozialki jaso dugun eredua ez baita adeitsua izan: "Garrasia, zigorra, zaplaztekoa... ateratzen zaizkigu nahiz eta ez dugun inolaz

ere horrela jokatu nahi; haurrak ginenean guk geuk ez genuelako beste jokaera bat bizi izan. Gure gizartean ez dagoenez errespetuzko kultura bat, elkarrizketaren kultura hori ez daukagunez, ziurrenik haur ginenean ez genuen errespetua osoki bizi izan, eta hori daukagu barrenean". Mendizabalen arabera ere, testuinguru benetan demokratikoa bizi ez izana dago deitoratzen dugun baina ateratzen zaigun jarrera horren muinean: "Belaunaldiz belaunaldi jaso dugu egoera gatazkatsuak juiziotik, eginbeharretik, erruduntasunetik eta zigorretik kudeatzeko automatismoa. Ez dugu jakin izan beste era batera egiten, eta gaur egun, hau da gure garunean oso ondo programatua daukagun jokaera".

"Ez da jostailua kendu behar (eskuetatik kentzen diogun bitartean)", "ez egin garrasi! (builaka gurasoa)"... Desioa eta jokaera ez datoz, bada, bat usu. "Etorkizunari begira, nolako seme-alabak nahi ditugun galdetzen dudanean, zoriontsuak, askeak, jatorrak, errespetuzkoak, baliabideak dituztenak, autonomoak, arduratsuak, kooperatiboak, enpatikoak, lagunkoiak, kriterio propioa dutenak... nahi ditugula entzuten dut. Baina, une batean, haurrak nahi duena eta guk nahi duguna bat ez datozenean eta berearekin 'temoso' jartzen denean, 'inkonformista, kapritxoso eta egoista' bilakatzen da gure begien aurrean eta bene-benetan, gure barrenean nahiago genuke 'menpekoa, konformista eta obedientea' izatea, gure egunerokoa ikaragarri erraztuko ligukeela amesten baitugu". Beraz, lehenik eta behin, benetan haurrak euren garapen, gaitasun, gabezia guztiekin errespetatuko dituen harreman-eredu bat nahi duen ala ez galdetu beharko lioke gurasoak bere buruari, eta hala bada, lehen esanda bezala, desioa bideratzeko ariketa kontziente bat egin. "Gelditu, hausnartu eta kontzienteki jokaera aldatzen ez badugu, boterea erabiliz harribitxi eder bat lortuko dugula pentsatzea alferrikakoa da: kooperazioa, elkar errespetatzea, apoioa, erraztasuna, armonia... bilatzen ditugu harremanetan, baina sarritan, haurrak ikasten duena ez da izaten guk nahi genuen harribitxi hori, baizik indar gehien duena —boterea duena— berearekin irteten dela".

Errespetuzko harremanak definitu aurretik, errespetua bera zer den definitu behar da, Mendizabalan hitzetan: "Errespetua ez da ondo tratatzea soilik, jo gabe, irainik gabe... *Errespetu* hitzaren benetako esanahia begiratzea, pertsona hori bizitzen ari dena begiratzea da, kontuan izatea, aintzat hartzea eta unean unean haur bakan horrek eman dezakeen adina eskatzea, ez gehiago eta ez gutxiago".

Camisonek eta Mendizabalek bi gako ezartzen dituzte errespetuzko harremanen oinarrian: batetik, norbere buruarekiko begirunezko harremana, eta, bestetik, haurraren garapen-faseak errespetatzea.

"Errespetuzko harremanen oinarria norbere buruarekiko harremanetik abiatzen da", Camisonen hitzetan. "Norbere burua nola dagoen gakoa da ondokoekin ondo edo okerrago egoteko", Mendizabalen aburuz: "Batzuetan egunaren, nekearen arabera hobeto edo okerrago ase dezakegu haurraren behar berdina". Horregatik, psikopedagogoaren hitzetan, beharrezkoa da norberaren beharrei ere begiratzea: "Oinarrizkoa da guraso edo hezitzaileen beharrei ere garrantzia ematea, norbere burua zaintzea eta beharrak errespetatzea". Izan ere Mendizabalen irudiko ahantzi egiten gara sarri geure burua zaintzeaz: "Eta hau, hegaldietan garbi erakusten digute, lehendabizi nork jarri behar du oxigeno maskara? Gure premiak zaindu gabe, beharbada aurrera egin dezakegu baina ez gara egongo behar adina indar, presentzi eta bizitasunekin. Eta horrek gure automatismoa, nahi ez dugun baina oso barneratua dugun jarrera ateratzeko baldintzak ezartzen ditu".

Camisonek ere argi du bakoitza nola dagoen begiratzea beharrezkoa dela ondokoari begiratu aurretik. "Beti besteei gauzak eskatzeko ohitura daukagu,

"Belaunaldiz belaunaldi gatazkak juiziotik eta zigorretik kudeatzeko automatismoa jaso dugu eta, gaur egun, hori da programatua daukagun jokaera"

Nerea Mendizabal
Psikopedagogoa

haurrei, nerabeei... Ez diogu gure bizi-esperientziari, gure nortasunari begiratzen. Nondik gatoz? Zein izan da ama edo aita bakoitzaren historia guraso izatera iristen garenean? Heldu horiek haurrak zirenean errespetatuak izan al ziren? Errespetuzko harremanak bizi izan zituzten? Gure gizartean ez dagoenez errespetuzko kultura bat, elkarrizketaren kultura hori ez daukagunez, ziurrenik haurra ginenean ez dugu errespetua osoki bizi izan". Camisonen aburuz, guraso izatean, ispilu bat dugu: "Seme-alabek, ama edo aitari gure izatearen isla bueltatzen digute, gure argi-ilunak ikusteko prest baldin bagaude behintzat".

Krisi momentuetan, gainezka

Garrasia, zigorra, zaplaztekoa... nahi ez duten jarrera hori, normalki, krisi momentuetan ateratzen zaie gurasoei: "Ariketa kontziente bat egiten ez badugu, gehienoi automatismoa ateratzen zaigu. Gurasook krisi momentuan gaudenean gainezka egiten dugu, ez baitaukagu tresnarik beste modu batera egiteko gauzak. Nahi duzu beste modu batera egin, baina nahi ez duzun modu horretan ateratzen zaizu (seme-alabei ipurdiko bat ematea, edo oihu egitea, zigortzea)". Camisonen aburuz gustuko ez den jarrera horretaz kontzientzia hartzea aldatzen hasteko abiapuntua da: **"Automatismoa, beraz, jarrera inkontzientea da eta haziera kontzientearen bideari ekin nahi badiogu gure erantzukizun mota hauetaz jabetzea eta kontzientziara ekartzea izango da biderik interesgarriena,** errespetuzko harremanetan pausoak emateko egunero. 'Nola sortu da hau nire barruan?', 'Zerk ekarri nau nire seme-alabekin puntu honetaraino lehertzera?', 'Eta egoera hau errepikatzen denean *enganxatzen* naiz behin eta berriro... Zein da nire historia?'". Horren guztiaren muinean helduaren gabezia emozional bat dago, adituen iritziz: "Aita edo ama hori ez dago emozionalki disponible. Denok, intentsitate handiagoz edo txikiagoz, guztiok ditugu gabezia emozionalak".

Automatismoa, mehatxua, zigorra, oihua, konparazioa, juzkua gailendu ez dadin, helduak, hasteko, bere barnera jo behar du, Camisonen hitzetan. "Ez dugu horrela jokatu nahi, baina desio hori kognitiboa da, arrazionalki ez dugu errespetua galdu nahi, baina emozionalki ez badugu landu, jokaera automatiko hori ateratzen zaigu". Haustura bat dago pentsatzen dugunaren eta bizi izan dugunaren artean, irakaslearen iritziz: "Ez gaude integratuak osotasun batean, eta lanketa pertsonal bat egin behar da emozioak eta diskurtsoa lotzeko. Kognitiboki gertatzea nahi dugun hori gertatzeko mundu emozional bat landu behar dugu. Guk beste modu bat jaso ez dugunez, tresnarik ez daukagunez, biluzik gaude, gabezia emozional horiek ditugulako. Lehenengo gure esentziarekin konektatu behar dugu ondoren haurraren esentziarekin konektatu ahal izateko". Camisonen arabera, haurrekin adeitsu izateko lehen urratsa "norbere burua ezagutzen, ulertzen eta ahalik eta koherenteen jokatzen saiatzea da, esaten ditugun gauza horiek guk betetzea haurrei eskatu baino lehen; eta apalak izatea, den-denok baikaude haziera eta hezkuntza prozesu batean".

Geure burua errespetatzetik hasten da, bada errespetuzko harremana. Horretarako, Camisonek eta Mendizabalek garrantzia ematen diote gurasoak ere heldu bezala, familia-sisteman errespetatuak izateari, norbere beharrak —"benetako beharrak", zehazten du Camisonek— aintzat hartzeari, bakoitzak hitza eta espazioa ematea bere premiei eta ondokoenari, bai bikote barruan bikotekidea izanez gero, eta baita familia-sistema osoan ere. "Lehen ariketa norbere burua errespetatzea da, ulertzea, ez epaitzea ez kulpabilizatzea da, eta onartzea nondik gatozen, eta gure argi-ilunak lantzea". Camisonek dioen ariketa hau, era berean, seme-alabekiko harremanetan "pozoi bat" den sentimendu bat (kulparen sentimendua) saihesteko bide osasungarri bat da. **"Batez ere emakumeok kulpabilitate handia sentitzen dugu gure amatasuneko hainbat momentutan, eta hori desktruktiboa da geure buruarekiko eta harremanetarako; hori erauztea abiapuntu osasuntsu bat izango da guztiontzat"**.

0-3 errespetatzea, oinarri sendoak ezartzea

Norbere buruarekiko errespetuaz eta zaintzaz gain, haurrekiko begirunezko harreman baten beste oinarria haur bakoitzaren beharrak kontuan izatea da. Seme-alaba bakoitzaren nortasuna eta bakantasuna errespetatzetik hasirik, unean unean, bizi duen garapen-fase bakoitzeko beharrak asetzea eta dagozkion ardurak eskatzea.

Istilu, zigor, ipurdiko, konparaketa

eta mehatxuetatik harago, haur bakoitzaren garapen-faseak ez kontuan izatea haurrarekiko begirune gabeko harremanaren erakusle da bi adituentzat. Haurraren beharrak garapen-fase bakoitzean zein diren jakin eta ulertzeak asko lagunduko digu errespetuzko harreman bat garatzen. "**Prozesuak aurreratzea ez da garapena errespetatzea —dio Mendizabalek—. Txikiak direnean, lehenbailehen haurrak 'autonomia' konkista dezan nahi dugu, eta horretara bultzatzen dugu, gero eta lehenago jaten hastera, bere kabuz lo egitera, oinez ibiltzera, pardela kentzera...** eta gero eta azkarrago 'lortu' orduan eta harroago sentitzen gara guraso bezala". Haatik, prozesuak aurreratzeak berak dakartza arazoak Camisonen ikuspegitik: "Batzuetan prozesuak aurreratu nahi izaten ditugu haurra fisiologiko eta biologikoko prest ez dagoenean, eta arazotan sartzen gara; adibidez, urtebete edo bi urteko haur batek arauak ulertzea eta errespetatzea nahi badugu, gauza zaila eskatuko diogu, nahiz eta muga bera behin eta berriz errepikatu, ezin baititu arau gutxi batzuk bertzerik erretenitu, ulertu, barneratu eta onartu hiru bat urte bete arte". Haurrak berak azalduko digu zer behar duen, entzuteko prest baldin bagaude, Mendizabalen hitzetan: "Haurrak, jaiotzen denetik, bera entzuteko eta bere erabakietan protagonista izateko aukera asko jartzen dizkigu".

Seme-alaben eta gurasoen arteko harremanak begirunezkoak izatea ala ez, ez da soilik berba kontua. Hitzez beste transmititzen dira ulermena, goxotasuna, maitasuna, onespena, aintzat hartzea, mugak, beldurrak, konplexuak, etiketak, hegoak moztea... bizitzako lehen zazpi urteetan eta bereziki lehen 3 urteetan. Emozioen garai petoa da 0-3 etapa, eta esan liteke haur jaio berriek usaindu bezala egiten dituztela emozioak, geruza horretan bizi baitira, 3 urtetik aurrera iritsiko duten neocortexaren garaira igaro aurretik. Neurozientziak erakutsi duen eran, burmuin linbikoa du haur jaioberriak, eta garai honetan esaten zaiona baino gehiago hitzik gabe transmititzen zaiona jasotzen du, emozioen bitartez.

errespetua umetokitik hasten da

Camisonen aburuz haurrarekiko errespetuzko harremana hura jaio aurretik sortzen da: "Errespetuzko harremanak umetokitik hasten dira; haurdunaldia errespetatzetik". Ama lasai eta ongi egoteak laguntzen dio umeari, estres hormonak plazentara eta zuzenean umekiarengana baitoaz, hazkuntzan eraginez". Alta bada, ama "ongi eta lasai" egoteko ardura ez du emakumearen esku soilik uzten Camisonek. "Bikotekidea dagoen kasuan bikotearena, baldintzena... sistemarena da. Baina nola ikusten ditu gizarteak haurraren eta haurdunaren beharrak? Horiek gehiago zainduko balira, abiapuntu errespetutsuagoa izango genuke".

Camisonen eta Mendizabalen iritzian funtsezkoa da 0-3 etaparen garrantziaz jabetzea, bai haurraren bizitzan duen pisuagatik, baina baita helduekiko eraikitzen ari den harremanagatik ere. Camisonen hitzetan, etapa hau haurraren eta helduaren arteko "lotura osasuntsu" bat egiteko etapa da: "Ikerketa neurozientifikoek erakusten dute haurrek, jaiotzen direnetik 3 urtera arte, lotura osasuntsu bat garatzen badute euren gurasoekin (beti ere argi edukiz perfekziorik eta harreman idealik ez dagoela), haurra plazerez eta ongizate batean bizi baldin bada gurasoekiko harremanean, burmuineko zelulen artean egiten diren sinapsiak (zelulen artean informazioa zabaltzeko errepideak) bere bizitza osoan iritsiko duten maila gorena iritsiko dutela, eta sinapsi aniztasun horrek, bere bizitzako adimen kognitibo zein emozionalaren oinarriak ezartzen ditu, osasuntsu hazteko aukera baliagarriak direnak."

Etapak duen garrantziagatik Mendizabalek haur txiki horien beharrak asetzeko premia ezinbestekoa nabarmentzen du, bai loari, elikatzeari, higieneari loturiko beharrak, baina baita ulermen, errekonozimendu, maitasun, onarpen beharrak eta psikomotrizitateari loturikoak ere. "Haurraren beharrak asetzea eta lotura osasuntsu bat garatzea bere antolatzaileak osatzeko oso garrantzitsua izango da, gainontzeko alor guztietan segurtasunez eta konfiantzaz beterik agertzeko oinarria emango baitio, bere ikasketa eta garapenean, eta baita oraingo eta etorkizuneko harremanetan eragin zuzena izango duena ere".

Adinean aurrera, gizartean sartuago

Baina haur txikia, apurka-apurka, ingurukoen erritmoak, ordutegiak, ohiturak bereganatzen ari da hazten doan neurrian eta baita, gero eta gehiago, gizartearen balioak (elkartasuna, kooperazioa), baina baita arauak eta eskariak ere (janzkerak, ohiturak, normak, mugak, presioak...): 2 urterekin eskolan hasi, pardela kendu, mutilak baloiarekin jolastu, neskak arrosaz jantzi, 5-6 urterekin idazten eta irakurtzen ikasi (baldintzarik gabe, haur guztiek), bi egunez behin dutxatu, jatorduetan ez abestu, abestu behar denean denek abestu, orain denak patiora, orain inork ezin du atera... Haurrek egunean zehar,

"Arau sozial batzuk elkarbizitzarako beharrezkoak dira; baina beste muga batzuk errepresiboak dira eta ez daukate zerikusirik haurraren beharrekin"

Miren Camison
Filosofo eta irakaslea

haurtzaro osoan eta nerabezaroan, arau, norma eta muga ugari jasotzen dituzte, eta horietako askok eta askok beren beharrekin, garapenarekin eta osasunarekin ez dute batere zerikusirik. "Haurra errespetatu nahi badugu, eta barrenetik dakarren hori guztia eman dezan nahi badugu, autoerregulazioa izan behar dugu erdigunean", dio Camisonek. Autoerregulazioa kontzeptu biologiko bat da; bizirik dagoen organismo batek bere kabuz erregulatu dezake bere burua, baldintza egokiak eskaintzen bazaizkio. "Haurra ere, baldintza egokiak ematen bazaizkio autoerregulatzeko gai da, loratzeko gai da; ez zaio zuzendu eta irakatsi behar, baizik eta giro egokia izan behar du horretarako, eta berari utzi barrutik antolatzen berak bere garapenerako behar duena".

Arau batzuk bada, Camisonen arabera, ez dira autoerregulazioari begira ezarritakoak, haurraren garapena mugatzen dutenak baizik. "Muga batzuk zentzudunak dira haurraren beharrei eta autoerregulazioari begira, adibidez arrisku bat dagoenean muga bat jarriko dugu". Beste batzuk muga sozialak dira, eta hauen artean bereizketa egiten dute bai Camisonek eta bai Mendizabalek. "Muga sozial batzuk elkarbizitzarako beharrezkoak dira; baina beste muga batzuk errepresiboak dira, eta horiek ez daukate zerikusirik haurraren beharrekin", azaldu du Camisonek. "Noiz dira arau sozialak eta noiz dira errepresio sozialak? Arau sozial bat izan daiteke ez dugula elkar jotzen. Baina sei urteko mutiko batek zer arropa jantzi behar duen oso erabaki pertsonala da. Garapen fasearen arabera, haurrek eta nerabeek beraien erabakiak hartzea eta ardurak beren gain hartzea ezinbestekoa da, autonomian aurrera egiteko. Barrutik kanporako indarra baimenduz beti. Kanpoko exigentziak edo harreman errepresiboak gailentzen badira, nola izan daitezke gero arduratsuak, ziurrak edo adeitsuak?". Irakasleak onartzen du guztion ongizaterako muga sozial batzuk jarri behar direla, baina, haren iritziz, beste gauza bat da haurrak "normalizatzeko" edo normaren barruan sartzeko gizarteak ezarri nahi dituen arauak. "Niretzat hor errepresio puntu bat dago, haurraren edo nerabearen beharrak ez dituena kontuan hartzen". Helduak muga bat jarri nahi duenean bere buruari honako hau galdetzeak lagunduko lioke, Camisonen aburuz: "Muga hori haurraren beharrekin doa ala ez doa?".

Elikadura, loa, higienea aipatu ditugu lehen, baina haurraren ideiak, interesak eta ekimena errespetatzea ere, haurrak eurak errespetatzea da, kontuan izatea eta aintzat hartzea da. "Sarritan ez gara ohartzen zenbat aldiz ukatzen ditugun haurraren sentimendu eta beharrak. Haurrak hotzik ez duela esan dezake baina guk: 'nola ez daukazula hotzik? Hotza egiten du eta jantzi egin behar duzu'; goserik ez badu 'ezin du izan, goizetik ezer jan gabe zaude', haurrak ez du oheratu nahi 'lo egiteko ordua da eta egin lo oraintxe bertan' (hain erraza izango balitz bezala...). Nire iritziak eta ekimena kontuan hartzen direnean, ikusia naiz, eta balorazio eta konfiantza betekada hartzen ditut", dio Mendizabalek. **"Ez da aski hitzen bidez balorazioa eta konfiantza azaltzea, haurrak bizitzen duena ikasten du: kontuan izana bada, ondokoak kontuan izan ditzan lagunduko diogu; errespetuz hartua bada, besteekin errespetuz jokatzen ikasiko du"**.

Eta ez soilik 0-3 etapan. Haurraren nortasunaren zutabeak eta ingurukoekiko dituen harremanen oinarriak ezartzeko garai funtsezkoa bada ere lehen hiru urteko epea, hortik nerabezaro aurrera arteko garapen-prozesua ere gerora bizitza osoan izango duena baino handiagoa da. Evania Reichertek *Infancia, la edad sagrada* liburuan jasotzen dituen ikerketa neurozientifikoetan

oinarriturik, Camisonek dio 3-10 urte bitartean burmuineko zelulen arteko sinapsien orekatzea gertatzen dela. "Jaiotzen garenetik 3 urtera arte maila gorena hartzen dute sinapsiek. Bikoizten dira 3 urterekin. Gero, ekoiztea eta ezabatzea orekatzen da". Horretarako baldintza egokiak behar ditu haurrak, eta horregatik, haurtzaro osoan zehar ikertzea eta esperimentatzea funtsezkoak dira Camisonen hitzetan, haurrak bere potentzialtasun osoa gara dezan, "esperientzia gero eta ugariagoek, harreman eta giro aberatsek, sentsorialtasun guztiak garatzeko askatasunak gero eta konexio neuronal gehiago egiteko aukerak emango dizkio haurrari eta, era berean, bizitzan aitzinera egiteko oinarri sendoagoa izango du".

Gurasoaren beharrak, helduaren mugak

Sarritan, alabaina, haurraren beharrekin, garapenarekin eta autoerregulazioarekin loturik ez eta berau mugatzera datorren araua ezartzea helduaren behar bat da. Muga horiek sarri, helduaren beldur eta beharretatik datoz, bi adituen arabera, eta seme-alabengan proiektatzen dira. "Batzuetan gure nortasunagatik jartzen ditugu muga batzuk. Batetik, helduok jaso ditugun zamak ditugu; eta bestetik, guk ere gizartearen presio eta errepresioak bizi ditugulako, ez baikara askotan uste bezain autonomo eta askeak, eta gabezia emozionalak baititugu, hainbat alorretan ez gara ziurrak; eta horrek gure haurrari esperimentazioa baimentzea eta autonomia konkista dezan galarazten diogu". Mendizabalek garrantzia ematen dio helduak muga hori norberarena dela jakiteari, "norbere nortasunarekin edo gabezia emozionalekin doan muga ezartzen diedanean seme-alabei ni lasai egoteko egiten diedan eskari bat da, badakit ez dela haurraren beharra. 'Badakit ez duzula dutxatzeko gogorik, baina nik ezin dut eraman bost egunez dutxatu gabe joatea eskolara'". Camisonek garrantzia ematen dio norbere muga horiek ezagutzeari, baina oreka beharrezko ikusten du: "Gurasook ardura izan behar dugu, kontziente izan behar dugu hau ez dela on egiten dion muga bat eta agian errebelatu egingo da arau horren aurrean, eta guk baimenduko dugu espresio hori, garrasi egitea, haserretzea... baina nik muga hau jarri behar dut nire beharrengatik".

Oreka beharrezko ikusten du Mendizabalek ere, gurasoaren ezintasunek haurrari muga desegokiak jartzeaz gainera eta hegalak mozteaz gainera, ardurak hartzea galaraz baitiezaiekete. Gurasoek haurrek har ditzaketen erabakiak hartzen dituztenean gaitasunak kimatzen dizkiete, psikopedagogoaren hitzetan: "Erabakitzeko aukerarik gabe, zaila zaie euren gaitasunak deskubritzea eta mundu honetarako eta euren bizitzarako 'konpetente' sentitzea. Posible dugu haur bakoitzaren bizi proiektu horretan ikasten eta eboluzionatzen joango den alor horietarako prest dagoela adierazten joango den seinaleak jasotzen joatea, beti ere hanka sartzeko eta gauzak ondo ez egiteko aukera duela sinetsaraziz".

Heldua, bidelagun

Helduek, beraz, seme-alaben ongizatea bermatzeko ardura dute, baina haurren iritzia eta ekimena kontuan izanik, eta akatsak egiteko aukerak emanik. "Ez gara aurrean jarri behar prozesua zuzenduz, irakatsiz edo euren ordez erabakiak hartuz, baizik eta utzi behar diogu haurrari bere ardurak hartzen, esperimentatzen, konexioak egiten, bere akatsetatik ikas dezan", azaldu du Mendizabalek. Helduak garapen-bidea erakutsiko diona ez eta bidelaguna izan behar duela diote bi adituek. "Ama, aita, irakaslea, edo haur edo nerabe horren inguruan dabiltzan helduak bidelagunak izan behar dira, haurraren prozesua akonpainatzen dutenak".

Haur bakoitzaren garapen-fase bakoitzeko beharrak asetzearekin lotura handia du garaian garaiari dagozkion ardurak hartzeak. Batzuetan seme-alabek hartu ditzaketen ardura eta erabakiak gurasoek hartzen dituztela ikusten baititue bi adituek: "Gauzak guk nahi ditugun bezala eta guk nahi ditugun bezain ondo eta azkar nahi ditugulako, batetik —azaldu du Mendizabalek—; eta, bestetik, ez dugulako beraien erabakien 'akatsen' arriskuetara exponitu nahi; eta, hirugarrenik, denbora eta pazientzia eskatzen duelako beraien kabuz egiten eta erabakitzen uzteak".

Autoritatea eta autoritarismoa

Bidelagunak izateak ez du esan nahi gurasoak adiskide bihurtzen direnik, Mendizabalen eta Camisonen hitzetan gurasoak seme-alaben erreferente baitira. Biek ala biek guztiz errefusatzen dute guraso autoritarioen rola, eta erreferentzia edo autoritate naturala hobesten dute. "Autoritarismoa eta permisibitatea bazterturik, haurraren eta helduaren beharrak zaintzen ditu autoritateak, bere begietara haurrak eta helduak biek existitzen baitute —azaldu du psikopedagogoak—. Nik heldu bezala autoritate izatea irabazten dut haurrari konfiantza, ulermena eta kontuan hartzeko bizipenetatik. Guraso edo hezitzaile naizen heinean nire rola daukat, eta hortik erlazionatuko naiz, baina haurra, pertsona bezala, berdintasunetik tratatuko dut". Camisonen hitzetan, autoritate naturala, "koherentzia erreferentzia bat da: esaten duzun hori egiten duzu. Gu haurren erreferenteak gara; non gauden jakin behar dugu, guri dagokiguna zer den eta haurrari dagokiona zer den bereiztu behar dugu".

Baina autoritarismotik gatoz. Belaunaldiz belaunaldi, elizako, gizarteko, lantokietako, eskoletako hierarkiaren parekoa zegoen familia-egituretan; eta ez zen zalantzan jartzen. Zalantzan jartzen ez zen bezala gurasoek (bereziki aitek) indarkeria erabil zezaketela autoritate hori ezartzeko euren seme-alabengan. Hortik gatoz. "Konparazioa eta konpetibitatea sustatzen duen gizarte batetik gatoz —Camisonen iritziz—. Sistema kapitalistak eta eskolak barne, haurrak konparatu, notak ipini, etiketatu eta konpetibitate horretarako prestatzen ditu; hori onartzen dugu normala balitz bezala. Konparazioa eta lehiakortasuna, ordea, ez doaz bat haurren beharrekin".

Eta mende luzeak dituen autoritarismoak gabezia pertsonal eta sozial eta kulturalak dakartza. "Indarkeria oinarrian duen gizarte batek

bestelako tresnarik gabe uzten ditu pertsonak, eta geure gabezia horiek zigorren, mehatxuen, sarien, epaiketen, etiketen, konparazioen eta metodologia konduktisten bidez estaltzen ditugu". Gaur egun, ordea, hitzez bederen baztertua dago autoritarismoa pedagogia manualetatik eta obedientzia ez da hezkuntzaren helburua. Hitzez bederen, obedientziagatik ez eta arduragatik nahi dute gurasoek euren seme-alabek jokaera batzuk hobestea eta beste batzuk gaitzestea. Gaur egun ez gurasoei ez irakasleei ez zaie haurren gaineiko botere oso eta totalitariorik onartzen. Baina horrek, autoritarismoaren bidea baztertzeak, bestelako bide batzuk bilatzea eta jorratzea esan nahi du.

Libertinajea edo erabateko permisibitatea dago autoritarismoaren beste muturrean, Mendizabalen eta Camisonen aburuz bide zaharra bezain kaltegarria dena. "Gurasoek euren ardurak ez hartzeak familia osoari egiten dio kalte". Askatasuna erdian dago, eta askatasunak lotura zuzena dauka ardurarekin, Camisonen hitzetan: "Zu aske izateko zure ekintzen eta erabakien arduradun izan behar zara (horretarako gai zaren neurrian), eta horrek emango dizu autonomia, eta era berean autoestimua eta zeure nia defendatzeko segurtasuna. Baina haurra edo nerabea zaren neurrian, errespetuz akonpainatuko zaituen heldua behar duzu, hau da autoritate natural bat". Autoritate naturalak erreferentzia ematen die gurasoei, baina ez haiek baino gehiago izatearen ustea, "heldutasunak bizi esperientzia bat eman dit, ardura bat errespetuzko marko hori ezartzeko, eta neure burua eta besteak —bikotekidea eta seme-alabak familia nuklearraren kasuan— kontuan izateko, aintzat hartzeko eta haien ongizatea begiratzeko ardura bat".

Ez dira, alta bada, idealizazioetan erortzen Camison eta Mendizabal, helduen muga eta beldurrekin eta gizartearen arau eta exigentziekin, lan, ordutegi, baldintzekin, familia nuklearraren bakardadearekin, babes faltarekin eta bereziki emakumeengan ezartzen diren espektatibekin ez da erraza haurraren beharrak osoki asebetetzea. "Kontziente izate hutsa, aldatzeko abiapuntu da", Camisonen hitzetan. "Hutsuneak non ditugun ikustea beharrezkoa da, baina baita geure buruarekin konpasiboak izatea eta ez kulpabilizatzea ere, unean unean ase ez dugunak ondorioak izango dituela kontziente izatea garrantzitsua da eta ondoren hutsune hori konpentsatzea, ulermen handiagoz". Mendizabal: "Guztiok dugu entzunak eta ikusiak izateko premia. Hori aitortzea abiapuntu bat da".

Hamaika bide, norbera helburu

Norbere burua aditzeko, ez dago zertan psikoterapuetarengana joan beharrik, edo bai. Baina hamaika modu daude gure jarreretan, familian, bikotean, lagun artean, ikasleen aurrean... ikusten ditugun kontraesanak lantzeko. Nerea Mendizabalek Marshall Rosenbergek abiaturiko Komunikazio Ez Bortitzaren bidea jorratzen du, eta Miren Camisonek komunikazio enpatikoarena:

Nerea Mendizabal:
"**Komunikazio Ez Bortitzak** erakutsi dit jokaera, jarrera edo estrategia bakoitzaren atzean (bai gogor, onartezin edo tragikoenen atzean ere) behar bat asetzearen saiakera dagoela. Batzuetan batere eraginkorra ez den jarrera da, ez baitigu behar hori asetzeko aukera ematen. Komunikazio Ez Bortitzaren bideak nire arreta ekintza konkretuaren atzean dagoen gizakia deskubritu nahi izatera narama, 'gaiztoak eta txintxoak', 'arrazoi duena eta ez duena', 'zuzen edo oker dagoena', 'errudunak' aurkitu ordez. Guztion gizatasunarekin bat egiten dugunean, onartezina den hori egitera eramaten gaituen bulkada ezagutzera edo behar horretan denok berdinak garela jabetzen gara. Ez du axola zein 'burugabea edo tragikoa' den egin duena/dudana. Marshallek dioen bezala, gizakiok ez dugu beharrak asetzera eramaten gaituzten jokaerak besterik egiten; batzuk gustukoak eta besteak oso kaltegarriak, beharbada.
Denok dugu segurtasun eta balorazio beharra. Beharbada ez zaigu gustatuko bere beharra asetzeko hartu duen modua (norbaiti joz, lapurtuz, gauzak ahaztuz...) baina aukera paregabea izan daiteke berarekin sintonizatzeko —eta modu hobe bat aurkitzen laguntzeko— momentu horretan bete nahian dabilen behar horri erreparatuz".

Miren Camison:
"**Elkarrizketa eta komunikazio enpatikoa**, errespetuzko harremana eraikitzeko bide bat da: giza komunikazio edota inkomunikazio egoerak modu holistikoan ikertzeko aukera ematen duelako, talde elkarrizketa eta praktikaren bidez. Besteekin hitz egiten dugunean, komunikazioan inplikatuak dauden elementu anitzei arreta jartzen diegu: nola entzuten dugun, desadostasunen aurrean zer gertatzen zaigun, bakoitzaren iritziek, aurreiritziek, usteek, beharrek eta sinismenek komunikazioan duten eragina, adierazten dugunaren alderdi esplizitua (kontzientea) eta inplizituaren (inkontzientearen) arteko erlazioa ikertu eta esperimentatu, emozioen eta gorputzaren garrantzia komunikatzen eta harremantzen garenean, errespetuzko elkarrizketa eta harremanean beharrezkoak diren baldintza etikoak esperimentatu eta, pentsamendu edo ekintza autonomoaren, sortzailearen eta arduratsuaren zailtasun graduez eta honen beharraz gogoeta egitea, besteak beste.
Matthew Lipman, Paulo Freire, Jiddu Krishnamurti eta David Bohm-en, ekarpenak ezinbestekoak izan zaizkit elkarrizketaren izaera holistikoa ulertu ahal izateko. Krisnamurtik zioen ere: 'gizaki bakoitza mundua da', hortaz, aldaketa ez zaigu kanpotik etorriko, baizik eta gutako bakoitza gure bizitzan aldaketa sozialaren arduradunak garela eta egunerokotasunean nahi dugun aldaketa sortzen saiatu behar garela".

kolorekolore.com

Erabilera baldintzak onartuta

zera esan nahi dizut...

Fitxa ikusteko leku batean jarri. Gurasoei edo seme-alabei esan nahi diezuna idatzi edo marrraztu ezazu eta bestearen erantzuna itxaron. Joko polita da, lagungarria haserre gaudenean eta berezia eta pizgarria beste hainbat kasutan. Zer esan nahi duzu zuk? (marrazkitxoez ere apaindu dezakezu)



Juanjo QUINTELA
Psikologoa

MOTRIZITATEA

Gure haurrak ia urtebete du. Bere kabuz mugitzen da lurrean arrastaka, baina ez da lau-hankatan ibiltzen eta zalantza dut inoiz hasiko den ere. Askotan entzun dut katuka egiteak sekulako garrantzia duela garapenean. Hortaz, jakin nahi nuke ea arrastaka ibiltzea eta katuka egitea pareko diren, eta ez badira, ea nola lagun ote diezaiokegun haurrari katuka egiten?

MOTRIZITATEARI DAGOKIONEZ, haurraren lehen bi urteak mugimendu handiko urteak izan ohi dira: buruz behera edo gora irauli, herrestatu, lau hankatan jarri, katuka egin, sostenguarekin zutik jarri, sostenguen laguntzaz batetik bestera mugitu, ezeri heldu gabe zutik jarri eta lehen urratsak egin, ondoren trebetasunez ibiltzen hasteko.

Emmi Pikler doktoreak, haurren traumatologian eta ortopedian espezializatutako hungariar pediatrak, erakutsi zuen euren iniziatibaz mugitzeko aske diren haurrek euren kabuz ikasten dituztela mugimendu horiek guztiak, helduak ezer erakutsi beharrik gabe. 2.000 haur baino gehiago zorroztasunez behatu ondoren iritsi zen zalantzan jarri ezin den aurkikuntza hori egitera: haur guztiek programa genetiko bat dute euren motrizitatea modu autonomoan garatzeko. Kasu guztietan etengabeko progresioa ikusten da eta haur guztiak etapa-segida beretik pasatzen dira.

Era berean, Emmi Pikler doktoreak haur batzuen eta besteen arteko diferentzia indibidualak oso handiak izan daitezkeela frogatu zuen: haur bat 7 hilabeterekin arrastaka ibiltzen has daiteke eta beste bat berriz, 13 hilabeterekin; edo haur bat 8 hilabeterekin has daiteke katamarka eta beste bat 16rekin; edo haur bat 12 hilabeterekin has daiteke ezeri heldu gabe oinez, eta beste bat 21 hilabeterekin... eta horietan guztietan motrizitate globalaren garapena erabat normala da.

Harrigarriki, nahiz eta aitzakiarik gabeko aurkikuntza zientifikoa izan, helduak mugimendu horiek guztiak haurrari "irakatsi" behar dizkiolako ustea oso zabalduta dago, nola gurasoen artean hala profesionalenean. Baina gertatzen dena ondokoa da: erabateko mugimendu askatasuna duten haurrek gaitasun motorrak eskuratzeko erritmoa "helduek estimulatutako" haurren erritmoaren berbera da; eta oro har, gaitasun motor horien kalitatea nabarmenki hobea da libreki mugitzen diren haurren kasuan.

Beraz, zer egin?

Ahal denik eta gutxien.

Esna eta deskantsatuta dagoenean, ahalik eta denbora gehien eduki haurra lurrean, mugimendua eragotziko ez dion arropa erosoa jantzita. Kendu bere irismenetik arriskutsua izan daitekeen guztia eta eskura jarri objektu eta jostailu sinpleak... eta haurrari ahalbidetu eguneroko bizitzan aurkitzen dituen arazo motorrei bere baliabideen eta soluzioen bidez aurre egiten. Izan konfiantza beregan, bere gaitasunetan eta disfrutatu bera mugitzen ikusiz, horretarako darabiltzan estrategia motorrak direnak direlarik ere.

Ez dezagun inoiz ahantz, motrizitateari dagokionez, haurrak bide hori euren kabuz eta iniziatibaz egiteko beharrezko baliabideekin datozela mundu honetara, barneko indarraren bultzadarekin, kalitate oneko mugimendu orekatuekin, ongizatearekin, determinazioarekin, interesarekin, plazerarekin eta bere gorputza eta inguruan dituen objektuak esperimentatzeko desioarekin, lehiakortasun sentimenduarekin eta zuhurtziarekin.

Pertsonalki ez dut umerik ezagutzen era askean mugitzen utzita, katuka egin ez duenik, edota eserikako posizioa zein zutikakoa bere kasa aurkitu ez dituenik. Aitzitik, ezagutzen ditut estimulatu diren haurrak, eta esertzen edota ibiltzen garaizegi erakutsi nahi izan zaienak berezko prozesua "aurreratuz" eta katuka egiteko aroa eragotziz.

Zein dira gure etsairik nagusienak? Konparazioak, presak, gure beldurrak eta ziurtasun gabeziak...

Kontsulta PSIKOLOGIA

EGOKITZAPENA

Gure bi umeak haur-eskolara joatean dira, eta irailean egokitzapen-aldia egitea tokatzen zaigu. Bikoteak edo nik aldi horretan oporrak hartu behar izaten ditugu, eta askotan buru-hauste ugari sortzen dizkigu. Benetan hain beharrezkoa da egokitzapen-aldi hori? Nolako garrantzia du haurrentzat?

HAUR TXIKIAREN BIZITZA emozionalak lotura afektibo berezi bat du ezaugarri, haurrak pertsona multzo txiki batekin —bereziki amarekin eta aitarekin— egiten duen lotura bizi bat. Lotura afektibo horren xedea gertutasuna eta kontaktua bilatzea eta mantentzea da. Lotura berezi horri atxikimendua deitzen zaio eta haurra uztartzen den pertsona horiei atxikimendu figurak.

Atxikimenduzko lotura poliki-poliki ehunduz doa haurraren bizitzako lehen hilabeteetan hasita, eta bereziki indartsua da 7-8 hilabeteetatik aurrera eta gailurrera haurrak bi urte inguru dituenean iristen da. Aldi horretan haurra oso selektiboa da harremanekin, atxikimendu figura horiek bilatzen ditu eta ezinegona sentitzen du horietatik bereizten denean edota pertsona ezezagunen aurrean. Honek, batzuetan, zailtasunak sortu ohi dizkizue gurasooi; baina, benetan, atxikimendu adierazpen mota horiek osasunaren zantzu dira.

Haurraren atxikimenduzko jokabideak (kontaktu eta gertutasuna bilatzeko jokabideak eta erreguzko jarrerak) gehitu egiten dira —eta hori gurasook ondo ezagutzen duzuen zerbait da— haurra abailduta edo mehatxupean sentitzen bada:

- gaixotasunak
- banaketa motzak
- toki ezezagunak
- ezezagunen presentzia
- erorketak
- ospitaleratzeak
- lotara joateko unea
- nekea

Umearentzat, mundua ezagutzeko bere zereginean, "eragiketetarako oinarri psikologikoa" dira atxikimenduzko figurak. Hain zuzen ere, atxikimenduzko figurek ematen dioten segurtasuna da haurra mundura irekitzen duena. Banatze-prozesua deitzen zaio horri.

Banatze-prozesuari dagokionez, oinarrizko bi ideia:

- Orain arte ezagutzen ditugun datuek erakusten dute haurra dela banatzerakoan iniziatiba hartzen duena, eta
- Banatze naturalak, —atxikimenduzko figura presente egonik, inolako larritasunik gabe, haurrak ingurune ezezagun bat libreki esploratzeko gai izatea—, ez dauka zerikusirik ingurune hori esploratzen bakarrik—atxikimenduzko figura non duten ez dakitela— uzten direnean haurrek sentitzen duten paralizazio eta ezinegonarekin.

Zer gertatzen da lehen eskolaratzean?

Haur-eskolan sartzearekin, proban jartzen da, sekulako intentsitatearekin gainera, segurtasun iturrien galeraren aurrean haur horrek duen tolerantzia gaitasuna. Gertakizun horren ezaugarrien ondorioz —aldi berean gertatzen direnak—, esperientzia hori oso gordina izan ohi da haurrarentzat:

- Ez da umearen iniziatibaz gertatzen. Haurra haur-eskolara joango da bere gurasoek hala erabaki dutelako, edota beste erremediorik ez dutelako izan.
- "Amarekin –edota atxikimenduzko beste figura batekin— egotea" eta "haur-eskolan egotea", definizioz, bi aukera baztertzaile dira, hau da, bata erabakitzen bada, bestea ezin da egin.
- Hezitzailea heldu ezezaguna da haurrarentzat, mehatxatzailea edo erasotzailea, amaren, aitaren, amonaren, aitonaren galeraren kulpaduna edo konplizea.
- Harrerako espazioa eremu itxia da, eta baldintza hain gogorretan onartzeko zaila.
- Baldintza horietan beste haur batzuekin elkartzea (banatzeak ahalbidetzen dituen berdinen arteko harremanak erakargarri diren arren), gatazka penagarrien iturri izan liteke. Hainbat hezitzaileren eta haurren harreman txar batean "elkarbizitza" luzatzera behartzeak begi-bistako zailtasunak ekar ditzake.
- Banatze-aldiak iraupen luzea izango du eta aurreko banatzeetan aurrekaririk ez duen jarraikortasuna. Baldintza horietan, iraileko eta urriko hilabeteetan zehar egoera samingarria izan ohi zen. Denbora bat pasa ondoren, urak bere bidera etorri ohi ziren; baina "normalizazio" hori ezinean eta etsipenean oinarritu ohi zen, eta ez benetako egokitzapen eraikitzaile batean.

Gauzak horrela egiten jarraituz gero, ez luke zentzurik heziketa-balioez hitz egiteak, eta aldi berean, antsietatea sustatzeak estandarizatutako banatze zakar bat derrigortuz, haurraren eta bere atxikimenduzko figuraren artean emateko prestatu gabe dagoena.

Gauzak enfokatzeko modu horrek haurrari galarazi egiten dio banatze-prozesuetan iniziatiba hartzea eta esploraziorako edozein jarrera galarazten du. Bereziki sozializazio-prozesua eta ingurunera irekitzea eta hazkuntzako prozesu orokorra blokeatzen ditu.

Harrera- eta egokitzapen-aldia duintasunik, errespeturik, samurtasunik eta konfiantzarik gabeko eskolaratzeari aurre egiteko jarri zen martxan. Honako helburuekin:

1. Eskolaratzea, behartutako eta derrigortutako zerbait izan beharrean, haurrak edo haurren taldeak egindako erdiespena izatea.
2. Haurrek eskolarekin zuten lehen esperientzia desio-sortzaile izan zedila desatsegina izan beharrean. Hala, larritasuna saihesteko eta konfiantza eta segurtasun giroa eskaintzeko.
3. Sarrerako prozesua lasaia, erlaxatua, mailakatua eta progresiboa izatea, ustekabekoa, zakarra eta presazkoa beharrean. Haur bakoitzaren espezifikotasunak errespetatuko dituen norbanakoaren eta taldearen prozesu gisa ulertzea, prozesuaren planteamendu taldekoi eta masifikatu oro saihestuz.
4. Ahal den neurrian, etxeko giroaren eta eskolakoaren arteko haustura saihestea eta bien artean jarraikortasun motaren bat eraikitzea, prozesu horretan gurasoen parte-hartze aktiboa bultzatuz.

Hortaz, beharrezkoa al da egokitzapen-aldia?

“Umea ume izateko eskubidea aldarrikatu behar dugu”

XABIER TAPIA

0-3 URTE ARTEAN, UMEARI BERE BIDEA EGITEN UTZI BEHAR ZAIOLA DIO PSIKOLOGOAK: MUGIMENDU AUTONOMOA SUSTATU, GRINAK BIDERATZEN LAGUNDU, ESPAZIOAK PROPOSATU, OBJEKTUAK ESKAINI... HALA SENDOTUKO BAITU NORTASUNA ETA BERE BURUAREKIKO KONFIANTZA IRABAZI.

> “Eskolako nahiz familiako inguruneak zeresan ikaragarria dauka umearen garapenean”

Bizitza karta-jokoa dela uste du Xabier Tapiak, umeak karta batzuk ekartzen dituela eta inguruneak beste batzuk eskaintzen dizkiola. “Jokoak zer emago duen? Zertxobait aurreikus daiteke, baina ezin da jakin. Hori da garapena eta hori da bizitza”. 0 eta 18 urte arteko haurrak artatzen izan duen esperientziatik mintzo da Tapia. Parisen egin zituen Psikologiako ikasketak eta psikomotrizitatearen arlora bideratu zuen bere jardun profesionala. 80ko hamarraldian Debagoienan sortu zen talde psikopedagogikoan parte hartu zuen —Antzuolako eskola-proiektuan egikaritu zena—, eta handik urte batzuetara psikologia klinikoaren arloan hasi zen lanean Bilbon, Haurrentzat Elkartean (Osakidetzarekin kontzertatutako zentroa da), eta hor jarraitzen du, 0tik hasi eta 18 urtera arteko haur eta gazteekin lanean. Altxa Haur eta Nerabeen Osasunaren Sustapenerako Elkartean ere badihardu, talde baten koordinatzaile gisa. Pertsonaren garapenerako eta ongizaterako haurtzaroak duen garrantziaz galdetu diogu eta argi hitz egin du, mihian herdoilik gabe eta azalpenak zabal emanaz.

Zergatik da 0-6 etapa hain garrantzitsua?

Nik 0-3 eta 3-6 adin tarteak bereizi egingo nituzke. Orain gutxi arte 0-3ko tarteari esaten zitzaion “arreta goiztiarraren aroa”, baina gerora, 6 urte arte luzatu da. Dena den, umearen garapenaren ikuspegitik, oso ezberdinak dira bi aro horiek.

0-3koari dagokionez, bi arrazoi nagusi aipatuko ditut adin tarte horren garrantzia azaltzeko: bata biologikoa eta bestea psikologikoa. Ikuspegi biologikotik gizakiaren kumea hutsala da beste animalia-kumeekin alderatuta eta ez da gauza bere gisa bizirauteko. Horrek, bere garuna heldugabea dela eta giza kumea bere kabuz aurrera egiteko gauza ez dela adierazteaz gainera,

Xabier Tapia psikologo klinikoa, ALTXA Haur eta Nerabeen Osasunaren Sustapenerako Elkarteko bulegoan.

beste gizaki batzuen guztiz menpe dagoela erakusten digu. Baina paradoxa zein da? Hasieran hain hutsala izanik, gero, giza harremanari esker ziurrenik, beste kumeen aldean, askoz gehiago garatzen dela, psikikoki batez ere. Lege biologikoek beraz, beraren eta beste gizaki baten arteko harremanera behartzen dute ezinbestean giza kumea; heldugabetasun eta menpekotasun erradikal horien ondorioa harremana da. Hortaz, harremana bihurtzen da haurraren garapenaren ardatz nagusi.

3 urtetik aurrera, nortasunari dagokionez, ume sendoagoa daukagu. Mugimendu aldetik ere aurreratuagoa da, Ni-a nahikoa tinkotuta du, hizkuntza ere garatu samarra, etab. Adin tarte horretan bestelako harremanetarako grina pizten zaio haurrari, giza pasioak puri-purian ditu: maitasuna, gorrotoa, amorrua, zeloak, sexua, gorputza, agresibitatea, bazterketa sentimenduak... Pasioz beteriko urteak dira. Beraz, sozializazioa, eta batez ere jakinmina lirateke 3-6 adin tarteko gako nagusiak. Autonomia ere ia-ia berezko joera du haurrak aldi horretan.

Harremanean dago hortaz haurraren garapenerako gakoa.

Jaiotzen den unetik, naturak gizaki kumea harremanak izatera derrigortzen du. Garapen psikologikorako ezinbesteko baldintza izateaz gainera, orain badakigu, garuna aberasteko modurik eraginkorrena dela giza harremana. Gaur egun, horretan sakontzen ari dira ikerlariak eta horren atzean jokoan zein mekanismo dauden aztertzen. Hortaz, harreman hori nolakoa izan behar den aztertu beharra daukagu, ahalik eta aberatsena eta eraginkorrena izan dadin eta horretan ari gara.

Nola erantzun geniezaieke, benetan, haurrek adin tarte horretan dituzten beharrei?

Lehenengo eta behin baldintza materialak eta giza baldintzak behar dira. Teoria guztiak, azkenean, sosetan haragitzen dira eta inbertitu beharra dago, bai formazioan, bai giza baldintzetan eta baita materialetan ere. Hori esanik, oso kontuan izan behar dugu haurra gure barne muinetako zirrara emozionalen piztaile bikaina dela. Haur baten negarrak badakigu noraino hunki gaitzakeen eta horri ezin diogu muzin egin: haurrek guregan ikaragarrizko eragin emozionala daukate. Harreman hori gainera, gorputzezkoa da, haragizkoa, eta horrek gurasoengan zein profesionalengan ondorioak ditu. Alde batetik, umearen beharrak asetzerakoan errealitateak berak behartzen gaitu oso gertuko harremana izatera: gorputzezkoa, haragizkoa, usainezkoa, ukimenezkoa... baina bestetik, helduon helburua ez da besoetan edo gure magalean bizitza osoan lotuta edukitzea. Gure helburua autonomia da, distantzia jartzea. Beraz, bi mugimendu horiek —hurbiltasuna

> "Haurraren-tzat irabaziko duena galtzen duena baino interesgarria-goa izatea da banatzea egoki burutzeko sekretua"

> "Besteek nigan jartzen duten konfiantza hura da gero nik nire buruarengan izango dudana"

> "Badago halako kronograma zehatz bete behar bat. Umeak, ordea, bere erritmoak ditu"

batetik eta distantzia bestetik— garrantzia handia dute, baina ez dira oso errazak kudeatzen, profesionalen baitan bereziki. Horrexegatik hurbiltasun emozional horrekin jokatzen jakin behar dute, era berean, beren barnean halako distantzia psikiko bat mantenduz. Horrek ia-ia formazio pertsonala eskatzen du, norberaren emozioez jabetzen ikasteko.

Emozioen kontzientziaren adibiderik jar dezakezu?

Bi emozio nagusi aipatuko ditut helduon baitan: batetik, maitasuna. Haur txikiak, askotan, musukatu, besarkatu egiten dira, hozkatxoak eman, usaindu, estutu... Baina bestetik, bada sentimentu guztiz kontrajarri bat ere; amorru biziaz ari naiz. Sentipen biolentoak ere izaten dira: umeen lo arazoengatik gau osoan esna egon ondoren lanera joan behar denean, eta gau bat eta beste bat eta beste bat... Horrelako eta antzeko uneetan sortzen diren sentipen bortitzak ere kontuan hartu eta humanizatu egin behar dira. Sentimendu horien guztien gaineko kontzientzia hartu behar dugu, gainontzean norberaren bulkada emozionalen arabera jokatzeko arriskua dugu eta ez umearen beharrak kontuan hartuta. Beraz, adin tarte horretako beharrei erantzungo bazaie umearekiko distantziaren kudeaketa eta sentimendu kontrajarrien kudeaketa ezinbesteko baldintza direla uste dut.

Haurrek berezko gaitasunak dituztela esan ohi da, baina gaitasun horiek gara ditzakete edo ez. Nolako testuingurua behar da gaitasun horiek garatzeko?

Testuingurua kontuan izatea garrantzitsua da. Izan ere, orain bogan dago joera genetikoa, badirudi dena genetikoa dela. Baina zeozer genetikoa izatekotan, zera da: gizakia genetika hori aldatzeko programatua dagoela genetikoki, hau da, gizakia birprogramatzeko dagoela programatua, eta birprogramatzearen beste aldea zein da? Haurrak genetikoki dituen gaitasunak gauzatzeko ingurunea behar duela, eta zenbait kasutan, umea berez akaso gai izan litekeen arren, duen ingurunean arabera, zenbait gaitasun ez ditu gauzatuko.

Eskolatik ere gero eta gehiagotan entzuten ditut diagnostiko neurologikoak. Arreta urritasuna edota hiperaktibitatea modako kontzeptu bilakatu dira. Badago halako premia bat "hau berezkoa du", "hau genetikoa da" esateko. Umeek arazoak "berez" edukiko balituzte bezala. Ez dezagun ahaztu, eskola ingurunearen lanaren instituzionalizazio behartua dela, eta milioiak inbertitzen ditugula gizakiarengan inguruneak duen eraginean sinetsita.

Jatorri genetikoetan sinesteak lasaitasuna eman diezaguke, ordea.

Lasaitasun pertsonala ulergarria da, baina lasaitasun ideologikoa oso arriskutsua izan daiteke. [Ronald] Reaganen garaian argi geratu zen arrisku hori. Baliabide sozialak ikaragarri murriztu zituen eta orduan birsortu ziren halako teoria genetista-arrazistak. "Beltzak berez dira motz samarrak, astakiloak, agresiboak". Horren ondorio politikoa zein izan zen? "Ez dezagun inbertitu alferrikakoa den ezertan. Berez dira horrelakoak eta ez ditugu aldatuko".

Beste zenbait arlotan ere antzeko joerak antzeman daitezke: "ume hau berez da hiperaktiboa, agresiboa, dislexikoa...". Beraz, "lasaitasun" ideologiko horrek gurasoengan eta eskolarengan ere eragina izan dezake.

Nik zalantzan jartzen ditut gaur egun egiten diren hainbat diagnostiko. Har dezagun hiperaktibitatea adibidez: genetikoa dela esaten da, berezkoa edo konstituzionala, baina ez daukagu markatzaile biologikorik. Down sindromearen kasuan esaterako, ez dago zalantzarik, ez dugu esaten "Down piska bat da", da ala ez da, baina hiperaktibitatearekin ez da hori gertatzen. Gauzak ez dira hain sinpleak: diagnostikoirizpideak ezberdinak izaten dira, eta subjektibotasunak itzal handia izaten du. Gero eta guraso gehiago etortzen zaizkit esanaz "begira, irakasleak ume piloa dauka, gureak aztoratu egiten du eta botika eman nahi lioke". Gero galdekizuna betearazten diete irakasleari eta gurasoei eta hainbat galderaren aurrean baliteke irakasleak muturreko erantzunak ematea. Adibidez, "Asko mugitzen da?", "Bai, 5 (0-5 arteko eskalan)", "Ez da gelditzen?", "Ez, 5", "Adi egoten da?", "Ez, 0"... Horren aurrean zer egiten dute guraso batzuek? Beste muturrera pasa haurrari botikarik

eman ez diezaioten. Non da objektibotasuna kasu hauetan? Esan gabe doa sarritan erantzun hauen arabera erabakitzen dela botika agindu ala ez.

Genetikaren alorrean aurkikuntza harrigarriak ari gara ikusten, baina ez dezagun hori balio absolututzat jo. Txoriek habia egiteko sena programatuta dutela esaten da eta badakitela pauso bakoitza bata bestearen atzetik egiten, baina nahikoa da hezetasuna handixeagoa edo txikixeagoa izatea, hori guztia blokeatzeko. Inguruneko baldintzak behar dituzte. Programatutako guztia hankaz gora jar daiteke inguruneko baldintzarik gabe. Horixe bera gertatzen da gizakion kasuan ere. Eskolako nahiz familiako inguruneak zeresan ikaragarria dauka umearengan. Batzuetan badirudi dena genetika dela, beste batzuetan berriz ingurunea, baina horrelako eztabaidak antzuak iruditzen zaizkit niri. Bada bi ikuspegiak uztartzen dituen kontzeptu bat, epigenesia, eta ni horren aldekoa naiz, bizitza karta-jokoa baita: umeak karta batzuk ekartzen ditu eta inguruneak beste batzuk eskaintzen dizkio. Jokoak zer emango duen? Zertxobait aurreikus dezakegu, baina ezin da jakin, zorionez, jokoak zer emango duen. Hori da garapena eta hori da bizitza. Badago dena lehenbailehen eta ahalik eta zehatzen programatzeko obsesioa. Sentitzen dut, baina leihoak ireki egin behar zaizkio bizitzari eta ez hainbeste itxi.

Erreferentziazko pertsonak (ama, aita, hezitzailea...) nolako garrantzia du haurrarentzat?

Harremanak garrantzia baldin badu, erreferentziazko helduak nola ez du bada izango. Teorizazio bideak badira. Horietako bat, asko aipatzen dena, atxikimenduaren teoria da. Bowlbyk, teoriaren aitak, gizakiak norbaiti atxikitzeko beharra berezkoa duela dio. Piagetek, berriz, ikuspegi kognitibotik abiatuta, inbariante kognitiboen kontzeptua darabil. Berak dio ingurunea beti dela aldakorra, baina haurrak hortik inbarianteak abstraitzen dituela, eta ondorioz, mundua organizatzen duela. Adibidez, aulki bakoitza ezberdina izan daiteke, baina haurrak aulkia aulki egiten duten ezaugarriak abstraitu egingo ditu eta aulkia identifikatzeko gai izango da. Afektibitateari dagokionez nahiz kognizioari dagokionez, inbariante horiek zenbat eta berdinagoak eta jarraituagoak izan, erraztu egiten da bai atxikimendua eta baita abstrakzio lan hori ere.

Elemetuak berdinak eta jarraituak izateak atxikimendua errazten du, beraz.

Bai. Pertsona berak baldin badira bere ingurunean dabiltzanak atxikimendua errazagoa izango da eta elkar ezagutza hobetu egingo da. Momenturen batean haurrak ia-ia aurreikusi ahalko dituenez bestearen jokabideak, harremana errazagoa izango da eta horrek helduaren gogoa areagotu egingo du; beste era batera esanda, lotura eta atxikimendua estuagoak izango dira. Alderdi kognitiboari dagokionez ere berdin gertatzen da. Usain berberak badira, ahotsak, soinuak... umea seguruago sentituko da, berarentzat zantzu ezagun bihurtuko direlako.

Beraz, erreferentziazko ezaugarri horiek ahalik eta intentsuenak, ahalik eta jarraikortasun handienekoak eta aldaketa gehiegi gabekoak izan behar dute, bai familia barruan eta baita haur-eskoletan ere. Gehiegizko aldaketek zaildu egiten dute umearen antolamendu afektiboa eta kognitiboa. Gauzak errepikatzen direnean, aldiz, umeak seguruago sentitzen dira.

Pixkanaka haurrak erreferentziazko pertsona horrengandik bereizi egiten dira (adibidez, umea haur-eskolara

> "Aurretik haurra zenbat eta lotuago egon helduari, orduan eta gose handiagoa izango du ingurua ezagutzeko"

> "Mugen eta ordenaren aldarrikapenaren azpian, profesionalon amorrua, ezintasuna eta beldurra egon daitezke"

eramaten denean), eta hor banatze arazoa sortzen da. Zer eragin du horrek haurrarengan? Bada hutsune hori egoki betetzeko modurik?

Banaketa hori ezinbestekoa da. Ez da guk asmatutakoa. Nola prozesu fisikoan, hala psikologikoan, autonomia helburu duen haurraren garapenean, etena gertatu behar da, ezinbestean. Etenik ez bada, psikopatologia larria gerta daiteke eta umea desorganizatu. Auzia zera da: eten hori nola egin. Izan ere, egoki banatzeko, aurretik oso estu lotuta egon behar dute haurrek eta erreferentziazko helduek. Baina, banatze hori ezin da entrenamenduz edota azturaz landu. Aurretik haurra zenbat eta lotuago egon erreferentziazko helduari, orduan eta gose eta grina handiagoa izango du ingurua ezagutzeko, bere burua seguru sentituaz abentura (autonomia) gose izango delako.

Banatze edo eten horren prozesuari garrantzia eman behar zaio, baina banatze-larritasun hori gainditzeko bidea ez da entrenamendua. Askotan entzuten dira horrelakoak: "Hilabete osoa negarrez eman zuen, baina azkenerako ohitu zen". Hori ez da banatzeak dakarren larritasuna gainditzea, hori ahitzea da, akitzea, pasiboki etsitzea. Haurraren eta erreferentziazko helduaren arteko banatzea egoki burutzeko sekretua honako hauxe da: irabaziko duena galtzen duena baino interesgarriagoa izatea haurrarentzat.

Eskoletan egokitzapenak egin ohi dira. Zein da benetan egokitzapen-faseaaren balioa?

Handia. Garrantzizkoa da bai gurasoek eta bai profesionalek egokitzapenari duen garrantzia ematea. Baldintzak era batekoak edo bestekoak izan, egokitzapena, azpian dagoen arazoari aurre egiteko modu bat da, hots, banaketa horrek umeari eragiten dion larritasunari aurre egiteko modu bat. Gaur egun, ordea, egokitzapen-prozesua errutina bihurtzen ari dela iruditzen zait. Hainbat guraso eta profesionalen artean egon daiteke halako esan gabeko itun bat: guraso batzuek hauxe pentsa dezakete: "Beno, beno, utz gaitzazue bakean, lanera joan behar dugu eta, baditugu beste zeregin batzuk"; profesional batzuek aldiz: "Beno, beno, buka dadila lehenbailehen egokitzapen prozesua, enbarazu baino ez dute egiten eta". Orain urte batzuk 3 urteko umeekin egokitzapena garrantzizkoa bazen, 2 urtekoekin zer esanik ez.

Heldu askorentzat ia ezinezkoa da egokitzapen-aldian umearekin egon ahal izatea.

Egia da. Bizi-baldintza ekonomikoak, kulturalak nahiz sozialak okerrera aldatu dira, gero eta gogorragoak ari dira suertatzen. Eta genetikak zer ikusia badu, baldintza horiek zer esanik ez. Etxe batean nahikoa da goizean ume bat sukarrarekin esnatzea egun horretako antolamendu osoa aztoratzeko eta hankaz gora jartzeko, eta familiako

kide guztiak kirioak dantzan dituztela uzteko: "Zu geratu zaitez etxean; amonari deitu iezaiozu; ez dakit, agian aguantatuko du...".

Egun, haurrak behartuta daude helduen erritmora erabat egokitzera. Familia askotan ezinbestean gertatzen da, baina zenbait eskolatan gaur egun zabaltzen ari den ideologi pedagogikoa ere ildo beretik doala esango nuke, umeen hiper-adaptazioaren ildotik hain zuzen ere, helburu pedagogiko bihurtzeraino. Badu joera horrek edukien kontsumismoarekin eta haurren prozesuak azkartzearekin nolabaiteko zerikusia. Badago halako prozesuen programatze bat, kronograma bat zehatz-mehatz bete behar etengabea. Umeak, ordea, bere erritmoak ditu.

Orain ume gehienak 2 urterekin hasten dira eskolan. Baina, gogoan izan behar dugu, legez, umeak 6 urterekin bakarrik daudela behartuta eskolaratzera. (Ez du esan nahi lehenago eskolaratzea kaltegarria denik inondik ere). Eskola, ordea, prestatuta al dago 2 urteko haurrak hartzeko? 2 urterekin edo 3rekin eskolaratzeak ez du zerikusirik. Umeak oso ezberdinak dira. 2 urteko ume askok ia urte osoa pasatzen du banatzeko prozesu horri buelta-ka. Ume horiek ez daukate artean bere nortasunaren sendotasunik eta ohikoa eta guztiz normala izaten da urtean zehar gorabeherak edukitzea eta ustez gaindituta zegoen banatze arazo hori behin eta berriz agertzea. 3 urterekin askoz sendoagoak dira, oro har.

Eskola-aroa luzea da. 2 urterekin sartu eta 16 urtera arte. Sustraiak ondo zaindu behar dira, bestela, arazoen jatorri izan daiteke lehen eskolaratzea: zenbait haurri eskola etsai bihurtzen zaio, ez da seguru sentitzen. Babesgabe sentitzen dira eta oso umetatik ez dute eskolara joan nahi izaten. Hori gerta ez dadin, derrigorrezkoa da egokitzapenari eta haurraren eskolako hastapenei garrantzia ematea hasieratik, behar den denbora hartuaz.

Haurrak bere bidea modu autonomoan egitearen garraintzia aipatu duzu. Zein dira haurra autonomo izan dadin kontuan eduki beharreko gakoak?
Otik 3ra umea ezin da autonomoa izan. Autonomia helburu bat da, ez da entrenamendu edo lanketa bat. Autonomia inoiz guztiz beteko ez den helburua da, heriotzera iritsiko gara autonomo izan gabe, gorabehera handiak baititu kontzeptu horrek gure baitan.

Baina autonomia helburu izanik, gizakia autonomo izan aurretik menpeko da eta hala behar du gainera. Horrexegatik sendotu behar dira 0-3 urte arteko harremanak. Oro har, umeari, sendotasuna eskuratu ahala, harremanetarako grina eta gosea pizten zaizkio, bai espazioarekiko, bai objektuekiko, bai helduekiko, bai bere kideekiko. Baliteke haur batzuek, agian, laguntza apur bat behar izatea, baina oro har, autonomia garapenaren ondorio logikoa izaten da. Ez da aurretik entrenatu beharreko zerbait. Ume bat ez da autonomo bihurtzen autonomian entrenatu delako, autonomia "azturak" ondo erakutsi zaizkiolako; paradoxikoa badirudi ere, giza-loturak ondo finkatu baldin badira, harremanak nahikoa eta aberatsak izan badira, autonomiarako griña eta bidea bere barruko eraginez zabalduko zaizkio umeari. Horrek ez du esan nahi apur bat lagundu behar ez zaionik. Hortaz, autonomiaren gakoa ere harremanean dago.

Autonomiaranzko bidean zein toki du frustrazioak?
Frustrazioa gainditzeko gauza izatea autonomiaranzko bide garrantzitsuenetariko bat da. Guraso gehienek, autonomia helburu izan gabe ere eta ia oharkabean, autonomiarantz bideratzen dituzte hilabeteetako haurrak. Gurasoak intuizioz konturatzen dira umea frustrazioak gainditzeko gauza dela eta badakite frustrazioa dosifikatzen. Hasieran, esnea nahi duelako umea negarrez hasten denean, gurasoa urduri jarriko da agian eta segituan emango dio esnea, baina pixkanaka denbora gehiago hartuko du, patxada handiagoarekin jokatuz, badakielako haurra itxaroteko gauza dela. Umearengan konfiantza duela esan nahi du horrek. Helduak badaki haurra gai dela, hazten ari dela, eta badezakeela. Poliki-poliki haurra konturatzen da gauzak ezin direla eskatu ahala bete, eta bide horretatik frustrazioak gainditzen ikasiko du.

Baina ez ditzagun haurrak frustrazioetan entrenatu. Halako modak ere egon badaude. Hainbat profesional entzuten dugu: "Haur txikiak ez besoetan hartu, gaizki ohituko dira eta". Haurra noiz hartuko dugu ba besoetan, haurbesoetakoa denean ez bada? Beste muturreko moda ere badago: "Umeak asko maite behar dira, musukatu egin behar dira, besarkatu egin behar dira". Horrelako muturreko teoriak niri inozokeriak iruditzen zaizkit. Jokatzeko erak pertsonak adina daude eta ez ditzagun jarraibide zehatzegiak ezarri: oreka da gakoa.

"Hipo-estimulazioa txarra bada, hiperestimulazioa okerragoa izan daiteke", Julian de Ajuriagerra Otxandioko mediku psikiatraren hitzak gogoan, zuri entzundako esaldia da.
Zenbait arlotan umeak estimulatu egin behar direla entzuten da behin eta berriz, baina estimulazioaren ideiak arrisku handia izan dezake. Kontzeptu hori 1970 inguruan Ipar Amerikan hasi ziren erabiltzen ume defiziente eta elbarrituekin, garunaren plastizitatean oinarrituta. Estimulazioak dakarren ikuspegia, ordea, alde bakarrekoa da. "Nik zu, ume, estimulatuko zaitut". Giza harremanak, aitzitik, bi aldetakoa behar du izan, hitzak berak dioen bezala, hartu eta eman. Estimulazioak, kontzeptualizazio bezala, joan-etorri hori eten egiten du eta "nik agindu eta zuk hartu" hutsa bihurtzeko joera du. Normalean, ordea, umeak ez du hartzen besteak eman nahi duen momentuan, bere erritmo biologikoek eta psikologikoek ez baitute zerikusirik helduarenarekin. Erreparatuz gero, konturatuko ginateke, guraso gehienek sekulako malgutasunarekin jokatzen dutela eta umearen jokaeraren arabera egiten dituztela mikroaldaketak. Estimulazioak ordea, ez dio elkarreragin horri tokirik egiten eta, ondorioz, alde bakarreko estimulazioa hiperestimulazio bihutzen da sarritan.

Brazelton pediatra iparamerikar ospetsuak zioen haur txiki batek bere erritmoak errespetatzen ez dizkiotenean, bere burura babestuko badu, harremana eteteko "obligazioa" duela. Izan ere, hiperestimulazioak haurraren erritmoak errespetatzen ez dituenean umea erretiratu, erori, desorganizatu egin daiteke fisikoki zein psikikoki. Umea erretiratzen denean, askotan, orduan eta gehiago estimulatzen dugu, estimulazioaren falta duelakoan, eta ez gara konturatzen umearen aten-

tzio erritmoek oso lege propioak eta zehatzak dituztela. Mikroerritmoez ari gara. Harremanen legea apurtzen bada, ume horrek ezin du aurrera egin, harremanaren legeak zu orain, ni orain, zu aldatu, ni aldatu... direlako. Hori da harreman normala, bion artean sortzen dugun zerbait, aurretik zer gertatuko den ez dakigun prozesu bat.

Baina haurraren eta helduaren arteko harremana asimetrikoa da, ezta?
Noski, oso harreman berezia da, asimetrikoa delako. Ni heldua naiz, guraso edo profesional, eta zu umea zara. Balekoa! Baina zu ez zara nire irakaskuntzaren objektu, zure desioen eta ahalmenen subjektu baizik. Horrexegatik hitz egin behar da bi "pertsonen" arteko harremanaz. Haurra ez da ikaslea, pertsona baino. Bere garaian garaiko sentimenduak, beharrak, gogoak, grinak dauzka eta hori guztia kontuan hartu behar da eta errespetatu. Estimulazio kontzeptuak —ez dut esaten praktika guztia halakoa denik— behar horiek ez errespetatzeko arriskua badu.

Eztabaida handiak eragiten dituen beste gai bat haurrari jarri beharreko —edo ez— mugena da.
Urtetxo batzuk ditugunoi, batzuetan, mugen kontu hau ironia hutsa iruditzen zaigu. Nire adineko hainbat entzuten dut mugak, ordena eta autoritatea sutsuki aldarrikatzen. Zein eta gure belaunaldia! Autoritate mota guztien apurtzaile sutsua izan zena: Francorena, erlijioarena, politikarena, hezkuntzarena, ekonomiarena... Paradoxikoa da orain belaunaldi hori bera mugen aldarrikatzaile amorratua bihurtu dela ikustea. Baina neur dezagun zertan ari garen. Mugen eta ordenaren aldarrikapenaren azpian, askotan, profesionalon amorrua, ezintasuna eta beldurra egon daiteke.

Ume txikiez ari garelarik, 0tik 3ra adibidez, mugak ahalik eta gutxien behar direla uste dut, hau da, errealitateak inposatzen dituenak baino ez, eta ez dira gutxi. Adibide bat ipiniko dut: umea negarrez hasten bada goseak dagoelako eta ama edo aita utzi ezin duen beste zerbaitetan ari bada, umeak frustratu beharra dauka, eta 5 minutu itxaroteko esaten dio eskuartean duena bukatu arte. Hor jada muga bat dago. Helduak muga jarriko dio, baina ezinbestekoa delako. Beste adibide bat: haur bat 2 urterekin espaloi batetik bestera pasatzen hasten bada semaforoa gorri dagoenean eta kotxea badator, heldua ez da dialogatzen hasiko, lepahezurretik heldu eta "kieto hemen!" esango dio: hara beste muga erradikal bat, baina ezinbestekoa hau ere.

Zergatik diot hori? Mugen auzian ere halako ideologia bat zabaltzen ari delako, mugak jartzea berez balio pedagogikoa bailitzan. Zergatik bihurtu balio pedagogiko mugak eta ordena? 0-3 urte tarte horretan, errealitateak ezartzen dizkion mugak nahikoa ditu umeak; 3-6ra artean jada eskolaratuak direnez, bizitza eta errealitate sozialean bete-betean murgilduta daudenez, beste muga batzuk ipini beharko zaizkio ezinbestean: txandak, borobilak, material eta denbora banaketa... Baina helburua elkarbizitza da eta mugak elkarbizitzaren ezinbesteko bitarteko dira, baina ez helburu. Helburua elkarren errespetua eta elkarrekin bizi ahal izatea da. Mugak eta ordena baliotzat hartzea, helduon neurosiaren arrazionalizazioaren eragina baino ez dela iruditzen zait batzuetan.

Zer da autoestimua? Zergatik da hain garrantzitsua?
Batzuetan neure golkorako barre egiten dut gurasoek zera esaten didatenean: "Haurrari autoestimua igo egin zaiola esan digute", eta handik hilabetera, "haurrari autoestimua berriz jaitsi omen zaio". Kolesterola eta tentsioa etortzen zaizkit burura, bere kasa gora eta behera dabilen zerbait bailitzan.

Autoestimua ez da umeak hala-moduzko zerbait egiten duenean animatzea eta oso ondo egin duela esatea, orain "teknika" hori modan dagoen arren. Ume horiek koskortzen direnean eta kontsultara etortzen direnean hala diote: "Baina nire gurasoek zer uste dute, ni inozoa naizela, ala? Gaizki egin dudala jakingo ez banu bezala, eta hortxe datozkit oso ondo ari naizela esanaz, ni animatzeko asmotan". Agresiotzat hartzen dute. Izan ere, euren logika zera da: "Ondotxo dakit nik ez naizela gauza, baina gurasoei pena ematen diet eta, karidade pixka batekin, animatu egin nahi izaten naute".

Azken aldian animatzea "teknika" bihurtu da eta hori kaltegarria izan daiteke. Estrategia bihurtzen denean helduaren gorputz lengoaia erabat aldatzen da. "Oso ondoooo!!!" hori oso artifiziala izaten da eta umeek, nerabeek zer esanik ez, antzeman egiten dute berehala. Normalean gorazarre horiek ez dira bat etortzen umeak egindakoarekin, eta askotan animatu beharrean areagotu egiten dute umearen barruko min ezkutua.

Autoestimua, txiki-txikitatik haur batek bere burua besteen pozgarri, gozamen bide, plazer eragile dela sentitzea da. Besteek nigan jartzen duten konfiantza hura da gero nik nire buruarengan izango dudana. Beste behin ere harremanaren garrantzia ageri da hemen.

Horrexegatik, beldurra diot edukazioa azkarregi sartzeari, presaka ibiltzeari, edukazioa definizioz frustrazioa baita (ez hori bakarrik, noski). Umearen eskubideak aipatzen dira baina batez ere, umea ume izateko eskubidea da aldarrikatu beharrekoa. Eta 0-3 urte artean, umeari bere bidea egiten utzi behar zaio: mugimendu autonomoa sustatu, grinak bideratzen lagundu, espazioak proposatu, objektuak eskaini... hortxe sendotuko du haurrak pixkanaka bere nortasuna eta halaxe hasiko da bere buruarekiko konfiantza irabazten: bere lorpenek ematen dioten gozamenez batetik eta bestearen begiradapean eta gozamenean bestetik.

Ni ez naiz pedagogoa, baina pedagogiaren zeregina, umeei azturak erakustea baino gehiago, bere baitan ikasteko gogoa edo ikas-mina sustatzea eta umeak bizitzaren kuxkuxero bihurtzea dela uste dut. Ez da nahikoa "hik ahal duk" esatea, "hik 50 zm. salta dezakek" oihukatuz animoak ematea. Ez. Ipini dezagun 10ean neurria eta ezer esan gabe ikus dezala bere burua jauzi egiteko gai dela. Autoestimua ez da besteek animatzea, norberak bizitzea eta sentitzea baizik, baina horretarako baldintza egokiak jarri behar dira. Egokitu ditzagun helburuak eta baliabideak, orduan haurrak, aurrean duena gainditzeko gauza dela sentituko baitu eta, gero agian, helburu altuagoak ere eskatuko baititu... eta norbaiten begiradapean bada, hobe!.

astez aste, urtez urte

HAURDUNALDIA
Hormonei lanean utziz gero...

LEHEN URTEAK
Handia naiz, ez dut behar pardela

URTE GOZOAK
Material errealekin jolasean

NERABEZAROA
Gatazkak arazo-iturri izan ez daitezen

HAURDUNALDIA

Hormonei lanean utziz gero...

Estrogenoak, progesterona, oxitozina, prolaktina, endorfinak... Haurdun geratzeko, haurdunaldia ondo garatzeko nahiz egoki erditzeko hormonek egiten duten lana funtsezkoa da. Hormona bakoitzaren funtzioak zein diren eta horietako bakoitza jariatzeko nolako baldintzak behar diren azaldu digu Ixabel Aleman emaginak.

Hilekoaren zikloaren etena, enbrioia hartzeko umetokia prestatzea, umekiaren garapena, uzkurdurak, esnea igotzea... Haurdunaldian, erditze garaian nahiz ondoan emakumearen gorputzak eta funtzionamenduak hamaika aldaketa izaten ditu eta horretan guztian hormonek berebiziko garrantzia dute. Haurdun geratzeko, haurdunaldia ondo garatzeko nahiz egoki erditzeko hormonek egiten duten lana funtsezkoa da. **Ixabel Aleman emaginak** azaldutako eran, hormonen inguruan oraindik ikerketa asko egiteko dagoen arren, probatuta dago inguruneko baldintzek eta gizakiaren emozioek eragina dutela hormona bat edo beste jariatzeko orduan.

Zer dira, ordea, hormonak? Mezulari kimikoak dira. Guruin endokrinoek jariatzen dituzte, eta ondoren, zirkulazio sistemaren bidez organismoko ehun guztietara heltzen dira, ehun bakoitzean eragin espezifiko bat burutuz eta gorputzaren hainbat funtzio erregulatuz. Haurdunaldiarekin eta erditzearekin zerikusia duten hormona nagusiak hipofisian eta hipotalamoan sortzen dira, buruan hain zuzen ere.

Alemanek esplikatu bezala, emakumea **estrogenoei** esker geratzen da haurdun. Estrogenoek gora egiten

dutenean emakumeak obulatu egiten du, eta sexu-harremanean isurtzen den **oxitozinak** eragiten dituen baginako kontrakzioei esker, espermatozoideak obuluraino iristen dira. Estrogenoek hortaz, obulaziora arte dute bereziki garrantzia. Horren ondotik **progesteronak** hartzen du protagonismoa. Hormonaren izenetik ondoriozta daitekeen moduan, sortu den arrautza berriari ingurunea prestatzeko lan egiten du haurdunaldiaren hasieran, baina berau arduratzen da haurdunaldiaren garapenaz ere. Hainbat funtzio betetzen ditu: karena egoki mantentzea, amaren defentsa-sistemak umea errekonozitzea, mukosa-tapoia eratzea, erditzerako pelbisa indartzea... "Hormona hau ezaguna da, zenbait emakumek abortuak izaten baitituzte progesterona faltagatik. Bi hormona horiek —estrogenoak eta progesteronak—lana ondo egitea beharrezkoa da haurdun geratzeko nahiz haurdunaldiak aurrera egin dezan".

Oxitozina da erditzean esku hartzen duen hormona nagusia. Hitza grezieratik dator eta "erditze azkarra" esan nahi du, baina "maitasunaren hormona" ere esaten zaio, maitemintzean, sexu-harremanetan etab. ekoizten baita. Haurdunaldi osoan zehar jariatzen da, baina progesteronari esker, egonkor egoten da erditzea iritsi arte. Orduan, oxitozinaren jarioa handitzen hasten da eta horrek uzkurdurak eragiten ditu, eta ondorioz, utero-lepoa dilatatu egiten da eta haurra jaiotzen da. "Hala ere, oxitozina kopuru handienak haurra erditu ostean ekoizten dira, eta karenaren egozpenarekin dauka horrek zerikusia. Oxitozionak esnearen eiekzioan eta edoskitzean ere laguntzen du, baita emakumea lasaitzen eta haurrarekiko lotura afektiboa sendotzen ere".

Bada hormona bat oxitozinarekin bateraezina dena: **adrenalina**, hain zuzen. Biziraupenerako hormona da eta arriskuaren aurrean aktibatzen da. Gizakiari ernai egoteko balio dio. **Adrenalinak oxitozinaren jariatzea eteten du, eta ondorioz, emakumea beldurrez edo antsietatez badago,**

erditzea blokeatzeko arriskua egon daiteke. Alemanek, emagin gisa duen esperientziatik adierazi bezala, emakume bati baino gehiagori gertatu ohi zaio erditzera ospitalera iritsi eta aztoratuta, artega sentitzea: "Une horretan neurketa bat eginez gero, emakume horrek adrenalina altu eta oxitozina baxu dituela ikusiko genuke". Erditzerakoan, dudarik gabe, beldurra da emakumearen etsairik okerrena, adituek diotenez. Kontziente izan ez arren, eragin fisikoa du beldur horrek. Adrenalinak baso-konstrikzioa eragiten du, hau da, zainak mehartu egiten dira eta emakumea ez da erlaxatzen. Horrek guztiak oxitozinaren jariatzea eteten du, eta gainera, oxitozinarik liberatzen ez duenez, emakumeak sentitzen duen mina areagotu egiten da.

Michel Odent mediku obstetraren teoriari erreferentzia eginaz, Alemanek dio, **emakume orok oxitozina sortzen duela erditzean, modu naturalean; oxitozinaren ekoizpena, ordea, altuagoa edo baxuagoa izango da emakume horren inguruneko baldintzen arabera**: "Berotasunak, argiztapen baxuak, isiltasunak, intimitatea edukitzeak, arreta indibidualizatuk eta errespetuzkoak nahiz konfiantzazko eta segurtasunezko giroak oxitozinaren sekrezioari mesede egiten dio. Horrexegatik, emaginon egitekoa da emakumea lasai eta seguru sentiaraztea, eta bere espazioa uztea libre senti dadin". Hormonen jariatzeak gizakiaren garuneko neokortex izeneko partearekin (horri esker logika erabili, arrazoitu nahiz hitz egiteko gai gara) zerikusia du Odenten ustez. Izan ere, erditzean emakumeak bere garuneko alderdirik primitiboenarekin egin behar luke bat; neokortexak, ordea, egitura primitibo horiek kontrolatu egin ohi ditu, eta ondorioz, haurraren jaiotza inhibitu egin dezake, beste edozein jarduera sexual bezalaxe. Haurdunaldian nahiz erditzean hormonek behar bezala lan egin dezaten, emakumearen neokortexak atseden hartu beharko lukeela dio (adibidez, erditzen ari den emakumeari bata bestearen atzetik galdera zehatzak egiteak, emakumeak bere burmuineko neokortexarekin bat egitea ekarri ahalko luke eta ondorioz erditze-prozesua etetea).

Haurdunaldiarekin eta erditzearekin zerikusia duten hormona nagusiak buruan sortzen dira: hipofisian eta hipotalamoan, hain zuzen ere.

Erditzean ez ezik, erditze ondoko lehen orduan ere aurrez aipatutako baldintza horiek errespetatzea oso garrantzitsua da Alemanen esanetan, oxitozina jariatze altuena orduantxe izaten baitu emakumeak: "Batetik, uzkurdurak izaten ditu karena egozteko, nahiz eta gaur egun, protokoloz, oxitozina artifiziala jartzen zaien emakumeei plazenta lehenbailehen kanporatu eta hemorragia ahalik eta txikienak izateko, baita erditze fisiologikoen kasuan ere. Bestetik, ordea, oxitozina kopuru altu hori medio, erditu eta hurrengo ordubetea haurraren nahiz amaren bizitzan errepika-ezina izaten da eta bien arteko lotura sendotzeko balio du. Edoskitzea ere ordu horretan hasi ohi da maiz. Askotan, ordea, behin umea jaio denean dena amaitu dela iruditzen zaigu, eta amarentzat zein haurrarentzat hain garrantzitsua den une hori ez dugu behar bezala zaintzen".

Hormona bakoitzaren sekrezioa, normalki, hormonen oreka konplexuago baten parte izan ohi da. Eta halaxe gertatzen da erditu osteko ordubetean oxitozinarekin ere, zuzenean lotuta baitago **prolaktina**ren jariatze altuarekin. "Amatasunaren hormona" ere deitu ohi zaio hormona horri. Esnea ekoiztea da bere egitekoa, eta hori umea jaio eta karena egotzi ondoren gertatzen da bereziki. "Prolaktinak esnea produzitzen du, baina **oxitozina** beharrezkoa da esne hori titiburuetara garraiatzeko. Horrexegatik, emakumeak oxitozina ekoiztea ahalbidetzen duten baldintzetan badaude erditze-fasean nahiz erditze-ondoan, asko erraztuko da edoskitzea ere". Gaur egun, ordea, erditzea fisiologikoa den kasuetan ere, haurraren lehendabiziko soinburua ateratzen denean, oxitozina sintetikoa sartzen zaio amari zainetatik. Protokolozko jokabidea horixe da, ikusi baita emakumeek hemorragia gutxiago dituztela horrela. "Kontua da, ez dela aztertu zein kasutan eta zergatik dituzten hemorragia gutxiago edo gehiago emakumeek. Segur aski, umea jaio ostean ere erditzeak jarraitu egiten duela kontziente izango bagina, hau da, emakumearen intimitatea, berotasuna, isiltasuna, ilunpea, lasaitasuna, bere kasa egoteko nahia, etab. errespetatuko bagenitu, bada, hemorragiak ere txikiagoak izango lirateke".

Erditze-fasean oxitozinarekin batera **endorfinak** ere ekoizten ditu gorputzak. Endorfinak analgesia naturala direla esan ohi da, atseden hartzen laguntzen dute eta ongizate sentsatzioa ematen. Lasai eta seguru sentiarazten dute emakumea, estresik eta tentsiorik gabe, beldurrik eta kezkarik gabe. "Haurdunaldia, erditzea nahiz erditze ondoa ondo joan daitezen emakumeak behar dituen hormonak bere kabuz jaria ditzan baldintzak sortzeko gure esku dagoen guztia egiten saiatu behar genuke".

LEHEN URTEAK

“Handia naiz, ez dut behar pixoihala”

Haurrek pixoihala uzteko presa handia izan ohi dute helduek. Gogorik duen ala ez jakin gabe, sarri; prest egon aurretik, maiz. Haatik, Budapesteko Loczy institutuan haurrak behatuz, kontrakoa ondorioztatu dute: itxoin eta denbora emanez gero, haur bakoitzak hartzen du pixoihala kentzeko iniziatiba.

Hogeita hamahiru hilabeteko mutiko batek hala esan zion hezitzaileari komuna erabili ostean: “Dagoeneko mutil handi bat naiz, komunean egin baitut kaka”. Honakoa 39 hilabeteko neskato baten esana da: “Nik beti jakinarazten dut [txizagurea dudala], neska handi bat naiz eta ez dut pardelik behar”. Pasadizo horien bitartez azaldu zuen Judiht Kelemen Budapesteko Loczy institutuko hezitzaileak zeinen garrantzitsua den umeentzat esfinterrak kontrolatzea, EHUk eta Hik Hasik antolaturiko udako ikastaroetan eskaini zuen hitzaldian.

Emmi Pikler pediatrak eta bere kideek esfinterren kontrolari buruzko hainbat behaketa eta estudio egin zituzten Loczy institutuko haurrekin, eta hauxe izan zen pediatra prestigiotsuak atera zuen ondorio nagusia: esfinterren kontrola haurrak bere kabuz erdiesten duen gaitasuna da, ez ikasi beharreko zerbait. Ondorio horrek, bada, pixoihala noiz eta nola kendu planteatzen hasteko abiapuntu interesgarria ezartzen du. Piklerren ikasle Kelemenek honela planteatzen du pixoihala kentzeko unearen garrantzia: “Pixoihala kentzeko unea haurrarentzat zeinen garrantzitsu den ulertu behar dugu, esfinterra kontrolatzeko gaitasuna garatu izana garrantzitsua baita bere eboluzioan. Ulertu behar dugu esfinterren kontrola ez dela ikasten den zerbait, baizik eta garatzen den gaitasun bat dela”. Arazoa, beraz, ez dagoen lekuan sor dezake helduak haurrak 30 hilabete dituelako, 3 urteko gelan hasi behar duelako, beste umeek kendu dutelako edo haren garapenarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik komunean eserarazten badute.

Kelemenen arabera, garapen-prozesuan urrats garrantzitsu bat da esfinterren kontrola, “eta batere erraza ez den urratsa, gainera”. Ez da erraza haurrarentzat hainbat erosotasuni uko egin behar baitie. “Esfinterren kontrolak hainbat deserosotasun dakartza; batetik, txiza edo kaka egiteko gogoa igarri behar du haurrak; bigarrenik eutsi egin behar dio gogo horri, bai baitaki ezin duela txiza edo kaka edozein lekutan egin; eta horrez gain, une horretan egiten ari den hori —jolasa, eraikuntza, dena delakoa...— alde batera utzi eta komunera joan behar du. Beraz, hainbeste deserosotasun baldin badakartza, zergatik nahi du haurrak esfinterren kontrola erdietsi? Handia izan nahi duelako, helduak bezalakoa”.

Haurraren ikuspuntua ulertu eta garapen horretan esku hartu barik laguntzeko modua bilatu dute Loczy insititutuan. "Gure helburua ez da haurrek lehenbailehen esfinterren kontrola lortzea eta pixoihala kentzea, baizik eta guretzat garrantzitsua da bere garapen maila eta nahia kontuan izanik gaitasun hori lortzea". Artean gai ez direla, helduak esku hartu, pixoihala kentzera behartu eta komunean esertzeak, Kelemenen arabera, ondorio fisiko eta psikikoak ekar litzake, idorreria, tripatako gaitzak, gerora ohean txiza egitea edo ondorio psikologiakoak aipatu zituen, besteren artean.

Prebentziorik onena, Kelemenentzat, txiki-txikiak direnetik haurrekin esfinterren kontrolaz, kaka eta txiza egiteaz, taburik gabe hitz egitea da, hezitzailearen arabera, esfinterrak kontrolatzeko gaitasuna pixoihala kendu baino askoz lehenago hasten baita garatzen: "Hezkuntza-prozesu bat da, pardela aldatzeko momentu intimo horietan hasten dena, eta hasi ahoz hasten da: kaka edo txiza egin duela azalduz, pardela aldatu behar dela garbi egon dadin... hitzetan jartzen dugu gertatzen ari denaz jabetu dadin".

Konfiantza, motibazioa, pazientzia eta elkarlana

Helduak esku hartu gabe eta denbora baino lehen pixoihala ez kentzeko, hezitzaileak kontuan izan beharreko lau gako nabarmendu zituen Kelemenek, kasu gehienetan gurasoentzat ere balio dutenak: konfiantza, motibazioa, pazientzia eta elkarlana. "Ulertu behar dugu prozesu hau ez dela lineala, hau da, ez duela beti aurreraka egingo, batzuetan atzeraldiak edo geldialdiak egingo ditu, hilabetetan luzatu daitekeen prozesu bat izango dela; helduok konfiantza eta pazientzia izan behar dugu, eta motibatuz eta elkarlanean joango da haurra gaitasun hau hartzen".

Konfiantza: Haurraren garapenaren indarrean konfiantza izatea esan nahi du. Horretarako, Kelemenek ezinbesteko ikusten du haurra ondo ezagutzea, "esfinterrak kontrolatzeko aski helduta ote dagoen jakiteko garapen psikosomatikoa eta bere nahia ezagutu behar ditugu. Hau da, segurtasunez mugitzen dela, badakiela bere kabuz esertzen eta zutitzen eta eserita egoteko gai dela. Alderdi psikosomatikoari begira, txiza edo kaka egiteko gogoa igartzeko eta horri eusteko gai izan behar du haurrak pixoihala kendu aurretik". Haurra ez bada bere kabuz komunean edo txizontzian esertzeko gai, guraso edo hezitzaileak ez eseraraztea gomendatzen du. Halaber, helduak haurrarengan konfiatu behar duen bezala, haurrak ere helduarekin konfiantzazko harreman bat eduki behar du esfinterra kontrolatzeko gaitasunaz jabetzen ari dela adierazteko; "helduarekin harreman txarra baldin badauka, haurra ez da ausartuko txiza kontrolatzeko ahaleginetan dabilela adieraztera".

Komuneko garaia, pixoihal aldaketarena bezala, intimitate handiko unea izan behar litzateke, bai garapen mailako urrats garrantzitsua delako, baina baita euren nortasuna eraikitzeko behar dituzten erantzunak bilatzen dituztelako ere. Kelemenek ikusi ahal izan duenez haurrek galdera asko egiten dituzte komunean esertzearekin batera: "Bai esfinterren kontrolaren gainean baina baita sexualitatearen inguruan ere haurrek intimitate une hori galderak egiteko baliatzen dute helduarekin konfiantza baldin badaukate".

Motibazioa: Zuzenean esku hartu gabe, komunean eserarazi gabe, ingurune motibatzailea sortu dezake helduak; batetik tresnak eskura jarrita eta, bestetik, intimitatea gordez. Loczy institutuan haurren tamainako komuna edukitzeaz gain, batzuei oinetan euskarriren bat jartzen diete euren kabuz eseri eta zutitzeko; eta kortina batekin gordetzen dute haurraren intimitatea. Denbora emateaz gain, helduak pardelari buruzko iritzi txarrik ez ematea garrantzitsua da Kelemenentzat. "Helduak pixoihala irekitzean zerbait desatsegina bezala hartzen badu beti, helduak gustuko ez duen zerbait egin duela sinetsarazten dio umeari. Ahalegina eginagatik haurrak txiza edo kaka komunean egitea lortzen ez badu, helduak jarrera baikorrari eustea eta ezer ez dela gertatzen ardieraztea ere motibatzea da; eta galtzetan txiza eginez gero ez diogu errietarik egingo, ez dugu arropak aldatu gabe inoiz utziko hala ikasiko duelakoan...". Kontrol hori erdiesteko, lagungarria da, baita ere, kentzen eta janzten errazak diren arropak erabiltzea.

Pazientzia: "Helduak pazientzia edukitzeak esan nahi du itxoin egingo dudala haurrak iniziatiba erakutsi arte". Haurra galderak egiten hasten da, ea helduak ere pardela daraman, non egiten duen txiza... edo komunean edo txisontzian bere kabuz esertzen hasten denean...

Alabaina, Loczyko hezitzaileek ez diete galdetzen haur txikiei ea txizagurea duten, presa sartzen ari direla ulertzen baitute ekintza horrekin; haur bat prozesu horretan abiatu denean eta urduri ikusten dutenean soilik galdetzen diote komunera joan nahi al duen.

Pazientzia eskatzen du Kelemenek, esfinterren kontrolaz jabetzeko prozesua ez delako beti lineala. Iniziatiba erakusten dutenetik pixoihala erabat kendu arte, gorabeherak izan ditzakeen bidea izango da, hilabeteak edo urtebetetik gora hartu lezakeena. "Batzuetan, txizontzia erabiltzen hasi eta egun batetik bestera ez dutela erabiliko erabakitzen dute; edo txiza bai baina kaka ez dute komunean egingo, haur asko, gainera, izutu egiten da kaka komunean egitean...".

Elkarlana: Pixoihala kentzeko prozesua ahalik eta eramanerrazena izan dadin, haurrekin ez eze gurasoekin lan egin behar dute hezitzaileek elkarlanean, (eta gurasoek hezitzaileekin). "Hezitzaileen egitekoa ez da gurasoei zer egin eta zer ez egin esatea; baizik eta euren beharretara egokitu eta bide horretan profesionalki laguntzea, pazientzia hitzak eskainiz, euren seme-alabak ondo ari direla garatzen ikusaraziz eta ez doazela atzeraturik ulertaraziz".

Haurra adin tarte horretan bere burua eta gorputza ezagutzeko eta kontrolatzeko eginahalean ari denean esfinterren kontrolarekin beste gatazkarik ez sortzea gomendatzen die Loczy institutuko hezitzaileak profesionalei eta gurasoei.

URTE GOZOAK

Material errealekin jolasean

Jostailu konbentzionalekin alderatuta egunerokoan erabiltzen diren materialek, bereziki naturarekin zerikusia dutenek, badituzte hainbat abantaila: joko irekiagoa eta polisemikoagoa ahalbidetzea, jolas sinbolikorako eta sormena lantzeko bidea irekitzea, haurraren iniziatiba eta autonomia bultzatzea, etab.

Zenbatetan gertatu ote da haur batek aldamenean dituen jostailuak alde batera utzi eta inguruko bestelako materialekin —paperak, koilarak, erratza, oinetakoak...— jolasean hastea? Eta zenbat aldiz merkatuko jostailurik puntakoena oparitu eta hura baino haren kaxa nahiago izatea? Zenbat arrats igaro ote dute haurrek makilekin, sokekin, arearekin, zakuekin... jolasean?

Uneoro erabiltzen dituzte haurrek inguruko materialak, objektu errealak jolaserako: txotxak, harriak, adarrak, lokatza, ura, hostoak, botilak, fruituak, kartoia... Eskura duten edozerekin ibil daitezke umeak, lehenengo harrapatzen duten horrekin gozatu. Izan ere, aldizkari honetarako elkarrizketatutako hainbat adituk dioten moduan, haurrak disfruta dezan, garrantzitsuena askatasuna da, hau da, zertan, nola eta zerekin jolastu nahi duen erabakitzeko aukera izatea. **Urtxintxako Jaime Altuna**ren hitzak gogora ekarriz, jolasteko ez da jostailurik behar, jostailuena helduon kontua izan ohi da sarri; eta jostailu sofistikatuak ematea, gizartearen isla. Ildo berean, **Idoia Linaza irakasleak** nabarmentzen zuen haurrek ez dutela behar azken orduko jostailurik sofistikatuena, bakarrik ibiltzen dakiena, argi distiratsuak jaurtitzen dituena... "Akaso nobedadeak eraginda maitatuko ditu une batez, bateriak irauten duen artean behinik behin. Jostailuak bitartekariak dira haurrarentzat eta jolas egiteko, esploratzeko, hipotesiak egiteko... aukerak eman behar dizkio haurrari".

Jostailu konbentzionalekin alderatuta egunerokotasuneko materialek, bereziki naturarekin zerikusia dutenek, badituzte hainbat abantaila. **Heike Freirek *Educar en verde* liburuan** dioen moduan, gaur egungo jostailu askok kolore oso biziak izaten dituzte, argi dirdaitsuak eta zarata handia ateratzen dute; hau da, etengabe haurra estimulatzea dute helburu. Egunerokoan erabiltzen diren objektuek, ostera, gain-estimulazio hori saihesteko ateak ireki ditzakete. Izan ere, material errealen kolorea, batez ere naturakoena, leunagoa izan ohi da, tonua apalagoa eta intentsitate aldaketak gradualak. Horrek baretasun eta lasaitasun handiagoa transmititzen die haurrei, eta jolasa zarata handiak saihestuz egiten bada, are gehiago.

Bestalde, egunerokoan erabiltzen diren objekturik gehienak desegituratuak izan ohi dira, hau da, haurrari hamaika aukera eskaintzen dizkiote. **Txatxilipurdiko kideek** azaldutako eran, joko irekiagoa eta polisemikoagoa ahalbidetzen dute. Adibidez, makila bat egun batean zaldia izan daiteke, hurrengoan sorginaren erratza edota arrantzarako kanabera. Era horretako materialek, gainera, gorputz osoaren mugimendua posible egiten dute —haurren alderdi psikomotorrarentzat mesedegarria da hori—, ez soilik atzena edo eskuena, jostailu konbentzional askorekin gertatu ohi den moduan. Haurrei jolas sinbolikorako ateak irekitzen dizkie horrek, buruarekin irudikatzen dutena errepresentatzeko, sormena lantzeko... Kontrara, saltokietan aurki daitezkeen jostailu asko oso egituratuak dira (adibidez, negar egiten duen bakoitzean txupetea jarri behar zaion panpina —jostailu horrek bestela ere izan ditzakeen konnotazio guztiak alde batera utziz—), jolasa erabat bideratzen dute eta haurrei aukera gutxi ematen dizkiete. Jolas horietako askok jostailuak derrigortzen duen rola edota jokabidea birproduzitzera bideratzen dituzte haurrak; nekez uzten diete abagunerik eurek sortzeko edota irudimena praktikan jartzeko. Labur esanda, haurrari eskaintzen zaion jostailua zenbat eta sofistikatuagoa izan, orduan eta gehiago mugatuko du haren jolasa, eta haurra errepikatzaile edo ikusle huts bihurtuko da. Hortaz, zenbait eta gutxiago egiten eta esaten duen jostailu batek, orduan eta hobe.

Jostailuekin edo haurrei eskaintzen zaizkien materialekin lotuta, bada kezka adituen artean. Umeari kalita-

tezko materialak eskaini beharrean, helburua umea entretenitzea ez ote den zalantza egiten dute. Haien esanetan, beti erabat egituratutako jostailu sofistikatuekin dabiltzan umeak, baliteke gerora, euren jolasa bideratuko duten gailurik gabe jolas egiteko gauza ez izatea, euren kasa jolasean ibiltzea zail egitea, errazago aspertzea eta etengabe distraituko dituen zerbait behar izatea. Aldiz, egunerokotasuneko materialek haurren iniziatibari, ekimenari eta autonomiari bidea errazten diete. Inguruak eskaintzen dituen etxeko zein naturako elementuak baliatuz, haurrari bere jolasa sortzeko aukera ematen zaio.

Merkatuko gaur egungo jostailu gehienak, gainera, plastikozkoak izan ohi dira, edota petrolioaren beste deribatu batzuetatik eratorriak. Garestiak izaten dira asko, eta ez-jasangarriak; birziklatzeko berriz, nekezak izan ohi dira, eta gainera, toxina ugari izaten dituzte batzuek. Greenpeace-ren txosten baten arabera, PVC bigunak —jostailu ugaritarako erabiltzen denak— % 40rainoko elementu arriskutsuak izan ditzake; kosk egitean edo zupatzean liberatzen dira horiek. Naturako elementuekin eta inguruko beste hainbat materialekin ez da horrelakorik gertatzen. Gainera, jostailu konbentzionalak ez bezala, doakoak izaten dira edo oso merke eskura daitezke.

Pedagogoek zer lehenetsi izan dute?

Gaur eguneko hezitzaile eta profesionalek ez ezik, XX. mendean erreferente izan diren hainbat pedagogok ere material errealak erabili izan dituzte euren jardunean. Horietako bat, agian ezagunena, da **Maria Montessori**. Sona handia hartu du "Montessori materialak". Haurra bere zentzumenak (dastamena, usaimena, ukimena, ikusmena eta entzumena) erabiltzera bultzatzeko materiala sortu zuen, objektu probokatzaile, erakargarri eta sinpleak. Eskolako material eta objektuak haurrak errealitatearekin ahalik eta lotura estuena izan zezan prestatu zituen. Naturako materialak hobesten zituen gainontzekoen aurrean: benetako egurra, kanabera, banbua, metala, kotoia, beira... Konplexutasun sentsorial handiagoa baitute. Sortu zituen materialekin haurraren jakin-mina pizten, kuriositatea bultzatzen eta ikasteko grina mugiarazten saiatzen zen. Montessoriren materialek ukitzera, ekitera, egitera gonbidatzen dute haurra. Era berean, haurrek errorearen auto-kontrola izateko moduan daude eginak, eta ondorioz, autonomia ematen zaie jarduterakoan eta saio-errorea probak egiterakoan. Horrez gain, material bakarrak erabilera anitz izan ditzake, haurrak bere ibilbidea egin dezan bere ezaugarrien eta interesen arabera.

Jean Piagetek, berriz, ikuspegi konstruktibistaren aitzindariak, haurrak hainbat kontzeptu eta ideia barnera zitzan bi material mota proposatu zituen: batetik, material errealak (adibidez, arrokak, loreak, area...) gauzen alderdi fisikoa ezagutzeko; eta bestetik, elementu errealak birproduzitzen dituzten materialak (adibidez, jostailuzko kotxeak, baserriak, altzariak...). Material errealak manipulagarriak direnez, haurrei hainbat gaitasun garatzeko balio diela zioen; hala nola, bereizketa bisuala, bistaren eta eskuen arteko koordinazioa eta eskuen trebetasuna.

Hala, haurrak objektuak definitzen dituzten ezaugarriak identifikatzen hasten dira eta, pixkanaka, arrazonamendu logikoaren eta ezagutza zientifiko-matematikoaren oinarrizko objektuen arteko erlazioak egiteko ezagutza garatzen dute; adibidez, sailkapenak, kausalitatea, erlazio espazialak, zenbaki, ordena eta segida kontzeptuak...

Loris Malaguzzi Reggio Emiliako pedagogoak ere oso kontuan hartzen zituen eta garrantzia handia ematen zien umearentzat aukeratutako objektuei: zein material mota, kolorea, argia, soinua, posizioa... Oso inportantea zen Malaguzzirentzat umeari eskaini beharrekoa ondo aukeratzea. Lehen lehenik diseinuaren kalitateari begiratzen zion; polisentsoriala eta konplexua izateari garrantzia ematen zion, izan ere pedagogoaren ustez, umeak gai dira munduko konplexutasuna ulertzeko. Objektu batek zenbat eta aukera gehiago ematen dizkion haurrari, orduan eta konplexuagoa izango da, eta hala, ikuspegia itxi ordez, ireki egingo du haurrak. Koloreari dagokionez adibidez, primarioak, ñabardurarik gabekoak, ez aukeratzea gomendatzen zuen; edo kausa efektua oso lotua duten objektuak beharrean —ukitu eta zaunka egiten duen txakur-panpin bat, adibidez—, egituratu gabeko materialak ematea egokiago ikusten zuen.



NERABEZAROA

Gatazkak arazo-iturri izan ez daitezen

Nerabeekiko harremanean gatazkak saihetsezinak direla dio Jaume Funes psikologo eta hezitzaileak, baina helduak gatazka horien aurrean hartzen duen jarrerak berebiziko garrantzia duela harremana osasuntsua izan dadin.

Seme-alabak adinean gora doazen heinean eta nerabezaroan sartzen ari direlarik, guraso asko nahastuta sentitu ohi da: "Ez dakit zer gertatzen zaidan, baina egun osoa seme-alabekin borrokan ematen dut". Eskolan ere antzera gertatzen da: irakasleak inongo etenik gabe eskola eman nahi eta ikasleek uzten ez. Eta zer esanik ez, plazan, kalean, auzoan... Nerabezaroan gazte asko helduekin haserretu hori dira hamaika arrazoirengatik: parrandatik itzultzeko gurasoek jarri dieten orduagatik, haien janzkera etxekoek gustuko ez dutelako, gurasoek eguna zer egin behar duten eta zer ez esaten igarotzen dutelako... Horrelako egoeretan sortzen diren liskarren aurrean begirada aldaketa egiteko proposatzen du **Jaume Funes psikologo eta hezitzaileak**: "Kasu askotan helduek pentsa dezakete nerabe problematikoz inguratuta daudela; gatazka horietako gehienek, ordea, ez daukate zerikusirik arazoekin. Gatazkak ohikoak dira eta naturaltasunez hartu behar ditugu, baina nerabeekin harreman osasuntsuak edukitzeko gatazkak eta arazoak bereizten jakin behar dugu".

Borroken, haserreen, gatazken aurrean, nerabezaroak oso bereak dituen hiru alderdi kontuan izan beharko liratekeela dio psikologoak: batetik, adin horretako neskamutikoek haurtzaroa atzean utzi dutela adierazi behar izaten dute eta eurak diferenteak eta bakarrak direla erakutsi. Bigarrenik, nerabeek helduekin norgehiagokak izaten dituzte, harremanen joko-arauak aldatu egin direla adierazi nahi izaten dutelako. Hirugarrenik, nerabe gehienek, momenturen batean edo bestean, helduen munduarekin konfrontazioa bilatzen dute. "Errealitate horretatik hiru ondorio argi atera genitzake: bat, nerabeekin elkarbiziz gero, saihetsezina da gatazkak edukitzea; bi, gatazkak saihetsezinak badira ere, ez dugu gauza guztiengatik borrokan ibili behar, zein kasutan konfrontatu aukeratzea komeni da; hiru, nerabeez ari garenez, ez du edozein erantzunek balio, erantzun batzuk gatazka handiagoak edota arazoak sor ditzakete".

Gatazka diogunean, zertaz ari gara, ordea? Funesek argi azaltzen du: gatazka elkarren aurka dauden bi pertsonen arteko auzia da, eta ez arauak hautsi nahi dituen gazte horrena soilik. Hau da, gatazka interes kontrajarriak dituzten bi pertsonen edo talderen arteko konfrontazioa da, errealitatearen irakurketa kontrajarria egiten dute bi aldeek, eta egoera horietan botere-harremanek garrantzia hartzen dute. Seme-alabak etxera berandu iritsi direla, etxerako-lanak ez dituztela egin, egun osoa ordenagailuaren aurrean eman dutela... arrazoi ugarirengatik gerta daitezke gatazkak. Baina Funesek behin eta berriz aipatzen duen moduan, konfrontazioez,

liskarrez, norgehiagokez, gatazkez ari gara, eta ez arazoez. Gatazkek amorrua eta desoreka eragiten dute, baina ez dira arazo. Gatazka horri erantzun hezitzaile egokia ematen ez diogunean azaltzen da arazoa.

Nerabeek haserretzeko beharra daukate, baina horretarako norbait behar dute, Funesen esanetan. Horrexegatik, helduek nerabeen bizitzan betetzen duten lehen funtzioa gazteak aurre egin eta erasoko duen norbait hori izatea da. Nerabeek, beren burua indartzeko, kontra egiteko eta heldua ukatzeko premia izaten dute, besteak erasotzekoa bera seguru senti dadin... "**Helduak dioenari eta helduak irudikatzen duenari aurre egiten dio nerabeak bera ezberdina dela adierazteko**. Helduok inolako mugarik eta debekurik jarri ez arren ere, aurre egiteko nerabeak duen beharra lehertu egiten da. Nerabe batek hala esan ohi zien bere gurasoei: 'Dena debekatzen didazue'. Eta gurasoak gazteari dena baimentzen hasi ziren. Gazteak, horretaz konturatu zenean, zera esan zuen: 'Berdin da, debekatzen ez badidazue ere, badakit horrela pentsatzen duzuela'". Gatazka hori, sarri, "bilatua" izan ohi da, nerabe askok edozein aukera baliatzen dute konfrontaziorako, baina psikologoak ohartarazi bezala, horrek ez gintuzke eraman behar nerabeen mundua arazo-klabean bizitzera.

Baina nola ezarri helduaren eta nerabearen arteko harremanaren oinarriak? Araurik behar da? Arautzekotan zer hartu beharko genuke kontuan? Debekuak noiz? Gurasoek zein hezitzaileek esperientziaz jakingo duten moduan, arau oro izan daiteke nerabeekin liskarrak pizteko zio. Horrexegatik, Funesen aholkuei jarraiki, onena da heziketarako benetan beharrezko diren arau horiek soilik jartzea. Sarri, helduek, gauza guztiak arautzeko premia sentitzen dute, sortzen diren gatazken aurrean zalantzarik eta pentsatu beharrik ez izateko, eta erantzun sortzaileak eta egokituak asmatzen denborarik ez galtzeko. Psikologoak argi dio: "Arauak? Bai, baina elkarbizitzarako ezinbestekoak diren horiek soilik. Helduei eta instituzioei 'segurtasuna' emateko ezartzen diren arau horiek guztiak soberan daude. **Nerabeek gurasook etengabe euren gainean gaudela sentitzen badute, txaplata hutsak garela eta egiten duten edozeren aurrean kexu, benetan zailtasunak dituztenean edo arduratuta daudenean ez dira guregana etorriko eta euren erabaki garrantzitsuetan modu hezitzailean eragiteko aukerarik ez dugu izango**. Ezin dugu uneoro erretolikak botatzen eta gazteak gogaitzen aritu. Etengabeko konfrontazioak nerabearengandik gertu dagoen eta era positiboan eragiten dion heldu izatea eragotz diezaguke". Funesen arabera, ordea, tolerantea, zuhurra eta malgua izateak ez du esan nahi norbere irizpide guztiak albo batera utzi behar direnik. "Batzuetan deserosoa izan arren, ezin dugu edozein enfrentamendu saihestu. Pertsonen eta bizitzaren gaineko irizpideak, balioak eta etika dituzten helduekin gatazkak edukitzea onuragarria da nerabeentzat".

GATAZKAK KUDEATZEKO HAINBAT IRIZPIDE

Nerabeen eta helduen artean gertatzen diren liskarrak eta borrokak kudeatzeko kontuan izan beharreko 10 gako ematen ditu Funesek:

"1. Arauen egitekoa balioak barneratzea da, eta ez ordena mantentzea. Arauek arrazoiaren bidez esplikatzen den justifikazio bat eduki behar dute, "beti horrela izan da"-k ez du balio. Nerabezaroan haurrek kritiko izateko gaitasuna eskuratzen dute, eta ondorioz, helduen arrazoi askoren atzean dagoen "faltsukeriaz" jabetzen dira".

"2. Helduekin konfrontazioa bilatzea norbere nortasuna berresteko bide izan daiteke".

"3. Hobe da arau gutxi eta argiak ezartzea. Arauek gatazkak areagotzen dituzte, eta hortaz, benetan beharrezkoak direnean soilik jartzea komeni da".

"4. Gatazkak heldu eta nerabeen arteko itunaren bidez konpontzea da onena. Kontua ez da helduek seme-alabei kontzesioak egitea, baizik eta nerabea bera inplikatzea itun horretan, libre eta autonomo sentitzen baita bere bizitza eraikitzeko eta erabakiak hartzeko".

"5. Guraso, irakasle zein bestelako hainbat pertsona helduk botere-harremana izan dezakete nerabearekin, baina heldu horiek denek ez daukate autoritaterik. Izan ere, autoritatea izateak esan nahi du nerabearengan eragina edukitzea, nerabe hori ohartu delako helduari haren bizitza axola zaiola eta bere ezagutzak edota bizitzaren aurreko ikuspegia haren zerbitzura jartzen dituela".

"6. Nerabe batek arau bat onar dezan, garrantzitsua da arau hori adosten parte hartu izana, eta arau horri zentzua aurkitzea eta zentzu hori barneratua izatea".

"7. Gatazkak antzekoak izan arren, nerabe bakoitza era diferentean tratatu behar da. Arau-hausteen eta horiei dagozkien zigorren zerrenda egiteak ez du ezertarako balio, pertsona eta egoera bakoitzera egokitzea komeni baita".

"8. Gatazkak egoera jakinetan sortzen dira; hortaz, egoera horiek landu edo aldatu behar dira. Kontua ez da nerabeak obeditzea, baizik eta gatazkak agertzea eragiten duten baldintzak gutxitzea".

"9. Gatazkak konpontzeko ardura hartu behar lukete helduek, gatazkak delegatzea, autoritatea delegatzea baita".

"10. Zigorrek arduraren zerbitzura egon behar dute. Kontua ez da nerabeak egin duen zerbaitengatik ordain dezala, baizik eta bere jokabidearen eta jarrera horrek beste pertsonei eragin diezaieken kaltearen kontzientzia hartzea".

Maite GOÑI
IKT-etan aditua

INTERNETEN ELKARLANEAN

Gaur egun ohikoa da, pertsona bakoitza fisikoki toki batean egon arren, Interneten bidez elkarrekin lanean aritzea. Zein baliabide dituzte ikasleek sarean lan egiteko?

GAUR EGUN sortzen diren baliabide gehienen helburu nagusienetako bat horixe bera da: elkarlana erraztea, bideratzea, sustatzea... Zer da, baina, elkarrekin lanean aritzea Interneten? Konexioa dagoen edozein tokitatik tresna bat zabaldu eta bai modu sinkronoan edo asinkronoan aritzea. Hau da, tresna horietako askok elkarrekin eta aldi berean edo une ezberdinetan aritzeko aukera ematen dute, txateatzeko, iruzkinak egiteko, argitaratzeko, sare sozialetan partekatzeko...

Adibidez, gelan bagaude dokumentu bat zabal dezakegu, beste ikaskideak edota irakaslea gonbidatu eta denok ari gaitezke dokumentu beraren gainean lanean. Elkarlanerako aukera irekitzen du horrek. Ez daukagu dokumentua posta elektroniko bidez bidaltzen aritu beharrik, besteak aldaketak egiten baditu berriz ere prozesu guztia errepikatzen, etab. Elkarrekin aldi berean lan egiteko aukera ematen duten erremintek beti azken bertsioaren gainean lan egitea ahalbidetzen dute. Era berean, nahiz eta aldi berean lanean aritu ez, momentu batean norbaitek dokumentu bat irekitzeko (akta bat jaso, etxeko lan bat hasi) eta besteek, ahal dutenean, horren gainean euren ekarpena egiteko aukera ematen dute. Horrez gain, beste zenbait aplikaziok lanean ari zaren bitartean txateatzeko aukera ematen dute edota lan horren inguruan elkarrizketa zabaltzekoa. Ildo berean, erreminta horietako zenbaitek iruzkinak egiteko abagunea eskaintzen dute. Adibidez, ikasle batek bere idazlan bat parteka dezake eta irakasleak iruzkinak egin. Iruzkin horiek postaz iritsiko zaizkio ikasleari, dokumentu horretara sartzeko estekarekin batera.

Gehienetan horrela funtzionatzen dute elkarrekin lan egiteko tresnek. Goran aipatutako horiek dira aukera errazenak: orain arteko Word dokumentua ordezkatzeko bidea irekitzen dute. Baina badira bestelako tresnak ere, eta nonbaitetik hastearren ondorengo sailkapena egin dezakegu:

EDUKIAK LORTU, SAILKATU, GORDE:

Atal honen barnean nik DIIGO *https://www.diigo.com/* aipatuko nuke, adibide bat ipintzearren. Gogokoak hodeian, hau da, sarean kontu bat zabalduz, gordetzeko aukera ematen du eta baita gordetako horiek komentatzekoa ere, besteak beste. Eta horrek beste era batera lan egiteko aukera emango digu. Izan ere, lehen helbide interesgarriak guretzat gordetzen genituen, gure ordenagailuan, baina beste ordenagailuren batera joanez gero, ezinezkoa zen topatzea. DIIGO bezalako zerbitzuek, ordea, esteka horiek bai guretzat eta bai besteentzat gordetzea ahalbidetzen dute. Taldeak egin ditzakegu eta adibidez, ikasle-irakasle artean talde bat sortu, denon artean gai jakin baten inguruan lortzen ditugun esteka interesgarriak zerrendatzeko eta modu kolaboratiboan eta denok parte hartuz, gure gelako gogokoen zerrendan sartzeko.

EDUKIAK LANDU:

Goran aipatutakoa adibide bat besterik ez da. Ofimatika pakete osoa daukagu talde-lanean edukiak lantzeko: testuak editatu, power point motako aurkezpenak egin, kalkulu orriak sortu... horretarako guztirako modu kolaboratiboan lan egiteko tresnak daude. Hortaz, dokumentu horiek zabaldu, edozein motatakoak direlarik ere, eta nahi badugu jendea gonbidatu eta batera lan egin dezakegu. Horretarako oso baliagarriak izan daitezke Google drive eta Google apps for education [*http://www.google.es/intx/es/enterprise/apps/education/*] (Googlen kontu bat behar da erabili ahal izateko).

Bestetik, aldi berean lan egiteko bideo-programak ere erabil ditzakegu. Esate baterako, Wevideo [*https://www.wevideo.com/*] erabil dezakegu bideo bat kolaborazioan editatzeko. Ni has naiteke bideoa editatzen eta gero besteak bere etxetik jarraitu. Ildo horretan, bideokonferentziak ere egin ditzakegu. Adibidez, norbait gaixo badago eta eskolara etorri ezin bada, badaude doako tresnak momentuan bideoz komunikatu ahal izateko. Horrek online hezkuntzari ateak irekitzen dizkio. Adibidez, BigBlueButton [*http://bigbluebutton.org/*] edo Google Hangout [*https://plus.google.com/hangouts*] bezalako tresnak oso erabilgarriak izan daitezke.

EDUKIAK ARGITARATU:

Demagun gelan denon artean artikuluak egin, besteekin partekatu eta argitaratu egin nahi ditugula, kasu horretan oso erabilgarria izan daiteke Wordpress [*wordpress.com*] edota wikiak eta bestelako guneak. Ikusten dugun bezala, sareak, Internetek eta web 2.0 delako mundu zabalak aplikazio eta programa ugari eskaintzen ditu lanean modu kolaboratiboan jarduteko.

TEKNOLOGIA BERRIAK

EUSKARAZ

Euskararen erabilera egokian laguntzeko zein doako erreminta daude sarean?

EUSKARAREN ERABILERA egokian laguntzeko gero eta erreminta gehiago daude sarean. Nik aholkatuko nuke, bai ikastetxeetan eta baita etxeetan ere, adibidez, Euskalbar gehigarria ipintzea nabigatzailean. Nabigatzailean barra bat instalatuko zaigu eta hortik bertatik atera gabe, hots, Interneten kontsultatzen edo lana egiten ari garen dokumentutik atera gabe, hiztegi guztiak kontsultatzeko aukera izango dugu. Gehigarriak hainbat baliabide eskaintzen ditu: euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara hiztegiak; ingeles-euskara eta euskara-ingeles hiztegiak eta beste hainbat hizkuntzatarako tresnak; sinonimoen hiztegia; Wikipediara zuzenean jotzeko aukera; Harluxet hiztegi entziklopedikoa definizioak bilatzeko; "Ereduzko prosa gaur", hitz jakin hori hainbat autorek nola erabili duten jakiteko... Euskalbarrek aukera asko ematen ditu eta nik uste dut bai ikasle, irakasle zein edozein erabiltzailerentzat dela baliagarri.

Euskalbarrek Mozilla fundazioaren Firefox nabigatzailearen gehigarri gisa funtzionatzen duenez, lehenengo Firefox *[http://librezale.org/mozilla/firefox/]* instalatu behar da. Ondoren, Euskalbar jaitsi Mozillaren hedapen webgune ofizialetik [*https://addons.mozilla.org/eu/firefox/addon/5811*] eta instalatu. Hau da, Internet Explorer edo Google Crome-erekin ezin da erabili.

Beste alde batetik, oso erabilgarria da Xuxen zuzentzaile ortografikoa instalatuta edukitzea ere: *http://www.euskara.euskadi.net/r59-20660/es/contenidos/informacion/euskarazko_softwarea/eu_9567/xuxen.html* Mugikorrerako aplikazioa ere badago. Edozein gauza egiten ari garelarik ortografia errepasatzeko edo zuzentzeko balio digu eta doan jaits daiteke.

Bestelako baliabideak ere baditugu Interneten. Hizkuntza lantzekoak edo hobetzekoak, esaterako. Adibidez, *Euskaljakintza.com* gunean hainbat baliabide topa litezke: gramatika, Euskaltzaindiaren arauak, aditza, 'h' duten hitzak edota 'a' itsatsia dutenak... kontsulta gisara erabiltzeko baliagarri dira eta ariketa nahiz joko bidez landu daitezke. Ikastaro osoak ere topa daitezke Interneten. Adibidez, HABEko Ikasbil gunean [*http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/baliabideak*] Aisa online edota Murgilduz ikastaroak daude. Norbaitekin hitz egin eta euskara praktikatu nahi badugu online mintzalaguna ere topa dezakegu *[http://www.mintzanet.net/]* Itzultzaile automatikoa ezagutzea ere interesgarria izan liteke: [*http://www.itzultzailea.euskadi.net/traductor/portalExterno/text.do*] Euskara-gaztelania edo gaztelania-euskara itzultzaile automatikoa da, nahiz eta erabat garatuta ez egon, kontsultak egiteko balio dezake. Hala ere, kontuan izan behar dugu hor ateratzen diren emaitzak ezin ditugula zuzen-zuzenean erabili, komeni dela begiratzea.

Azkenaldian mugikorrentzako aplikazioak gero eta gehiago ari dira garatzen, euskaraz orokorrean, eta baita zehazki euskara lantzeko ere. Euskalapps *[http://euskalapps.net/]* webgunean, euskarazko aplikazioen bilduma dago eta, bertan, euskara ikasteko aplikazioen atala kontsulta dezakegu [*http://euskalapps.net/category/euskera-ikasteko/*] Batzuk doakoak dira; beste batzuk ordaindu egin behar dira. Ikusten den moduan, gauza dezente dago eta helburua da gero eta eduki gehiago garatzea euskaraz, bai aisiari dagozkionak eta baita bestelakoak ere, euskara ikasteko, hobetzeko edota kontsultak egin ahal izateko.

BLOGAK

Eskolako proiektu baterako blog bat eraiki nahi dugu ikasleekin batera. Bada sarean, programatzen jakin gabe, blog sinple bat egin ahal izateko erremintarik?

BLOGAK EGITEKO gehien erabiltzen diren bi tresnak aipatuko ditugu. Alde batetik *wordpress.com*. Ez dago programazioa jakin beharrik bloga sortzeko. Nahikoa da helbide horretara joan, erregistratu eta bloga sortzea. Oso tresna intuitiboa da, software askea da eta euskaraz ipin liteke. Bestalde, Euskal Herrian ikastetxe askok *Google Apps for Education* aplikazio-paketea erabiltzen dute. Pakete horren barruan, badago aplikazio bat blogak sortzeko: *Blogger*. Worpress-ek zein Blogger-ek testua idazteaz gain, modu errazean bideoak eransteko, argazkiak igotzeko, audioak edota web 2.0 tresnak txertatzeko aukera ematen dute. Proiektu askotarako, baina, ez da beharrezkoa blogak sortzea eta nahi duenak webgune estatikoak modu errazean eraikitzeko aukera ere badu.

Blogaren eta webgune estatiko baten artean ezberdintasunak daude: Blog bat, ohar, istorio edo artikuluak argitaratzen diren Interneteko webgunea bat da. Blogariak mezuak egunkari moduan idazten ditu eta hauek kronologikoki argitaratuz doaz bere blogean. Hau da, azken mezuak edo artikuluak daude bistan. Blogak oso aproposak izan litezke berriak argitaratzeko edota artikuluak, baina hainbat proiektutarako, agian, gehiago interesatzen zaigu webgune estatiko bat izatea, hau da, informazioa aldatzen ez joatea. Horretarako, webgune estatikoak egiteko, bi tresna aipatuko ditut: batetik, Wix *[http://es.wix.com/]* eta, bestetik, Weebly [*http://www.weebly.com/*]. Oso tresna intuitibo eta erabilerrazak dira, programatzen jakin gabe edozein ikasle edo irakaslek erabiltzeko modukoak. Gogoratu behar dugu, gainera, horiek guztiak erabiltzen ikasteko tutorialak topa ditzakegula sarean.

GURASOAK MINTZO

EZIN GORPUTZARI JARRAITU

Egun ez da erditze fisiologikoa izateko aukerarik Ipar Euskal Herrian, etxean erditzen laguntzen duten emaginek aseguru garestia ordaindu behar dutelako batetik, eta ospitaleetako sortzeak arras gidaturik eta medikalizaturik daudelako, bestetik.

Etxean izan zuen Ainize Madariagak Leixa, Muriel Candela emaginaren eta Asisko Urmeneta bikotekidearen laguntzaz.

Bere erditzearen jabe izan nahi zuen **Argitxu Ouret**ek bigarren haurraren jaiotzean. Gorputza eta horren erritmoa errespetatua izan zitezen nahi zuen, "lehena ez baitzen hala izan". Donapauleko klinikan (Behe Nafarroa) ukan zuen Maiana, 2004ko buruilean, berau baitzen Aintzile jaioterritik gertuen zeukan ospitalea. "**Gaizki bizi izan nuen erditzea, ez nuen nahi epiduralik ezta sortzea azkartzerik ere, baina ene gogoaren kontra erditu nintzen, hodiz eta kablez josirik, instrumentuekin, medikuek zutelarik osoki kontrola, eta nik batere ez**". Bizkar gainean etzanik, gorputzak eskatzen zion postura hartzeko aukerarik gabe, oinak estriberetan kokaturik, mugitu ezinda, lana aski fite aitzinatzen ez zelako ur poltsa urraturik, jateko eta edateko aukerarik gabe... ez zuen halako erditzerik nahi berriro Argitxuk. "Iluna eta argia bezala, bigarren erditzea biziki gozoa izan zen". Muriel Candela Hazparneko emaginak lagundurik izan zuen Argitxuk Mirari, 2007an.

Ainize Madariagak ere argi zuen, ahalik eta modu naturalenean, bere gorputzaren erritmoa jarraituz, erditze fisiologiko batekin nahi zuen Gexi munduratua izan zedin. Hari gertutasunagatik dagokion ospitalea ere Donapaleukoa da, baina klinika hortako instrumentalizazio, anestesia eta bereziki zesarea kopurua handiak ez zion konfiantzarik ematen Ainizeri. "**Ez nengoen eri, bizi bat mundura ekarri behar nuen, eta gorputzaren erritmoari jarraiki erditu ahal izanen nintzen leku batean erditu nahi nuen**". Etxetik ordubetera, Oloroeko klinikan (Biarno) erditu zen, Muriel Candela emaginak han egiten baitzuen orduan lan modu autonomoan. Erditze fisiologiko bat izan zuen. "Aski ongi hasi zen erditzea, etxean. Gauerdian agertu zen Muriel eta dilatazioa aitzineratua zegoela ikusi zuelarik, klinikara abiatu ginen, bi autotan.

Oren bateko bidean dena moztu zen. Baina klinikan etxean bezala sentitu nintzen, intimitatean. Gela ez medikalizatu batean erditze fisiologikoa ukan dezakezu, eta ezer gertatuz gero, ondoko gelan dago behar den guztia".

Muriel Candela emagina ia-ia ikur bat da erditze fisiologikoa ukan nahi duten Ipar Euskal Herriko emakumeentzat. "Eztia da, umeen ukaitea momentu handi gisa biziarazten du", dio Argitxuk. Candelak Hazparnen bere etxean haurdunen jarraipena eginez, Oloroeko eta Orteseko erietxeetan nahiz emakumeak euren etxeetan artatuz, guztietan ahal zelarik emakumearen erritmo fisiologikoa jarraituz egindako lana batetik, eta Ipar Euskal Herriko ospitale eta kliniketan esperientzia gogorrak bizi izan dituzten emakumeak isildu ez izana, bestetik, dira, Ainizeren aburuz, hainbeste emakumek kontzientzia hartu eta euren erditzearen jabe izateko aukera erreibindikatzearen akuilu. "Teknologia bikain da behar den kasuetarako, baina jainkotu egin da, ume baten sortzea prozesu natural bat da eta gauzak ondo badoaz ikusia da teknikak konplikazioak ekartzen ahal dituela; hemen esperientzia traumatikoak izan dira. Ordea, informazioa zalbatzen joan da, emakumeak ez dira isilik gelditu, eta gauzak kuestionatzen hasi dira emazteak, jakiten badirela zinemak-komunikabideek barnerarazi diguten posturaz gain erditzeko beste modu batzuk, gorputzaren beharrekin bat datozenak, modu erosoago, intimo eta osasuntsuagoak".

Alta bada, gaur egun ez da erraza erditze osoki fisiologikoa ukaitea Ipar Euskal Herrian. Ez ospitaletan ezta norbere etxean ere. Muriel Candelak eta Axelle Belloir emaginak bakarrik laguntzen dituzte Ipar Euskal Herriko emakumeak erditze fisiologikoak izan dezaten. Baina Ipar Euskal Herritik kanpo, Orteseko Ospitalean, Okzitanian, hango erietxean baitu Candelak gaur egun erditzeko gela eta plato teknikoa. Haurdunaldi osoaren jarraipena egiten du Candelak eta berak artatzen ditu estuki ezagutzen dituen amak erditze unean. Ortesen artatzen dituen hamar emakumetatik bat euskal herritarra da.

Oro har Ipar Euskal Herriko ospitale publiko eta kliniketan erditzeak aski medikalizatuak eta gidatuak dira, hala erakusten dute datuek: Donapaleuko klinikako erditzeen % 39 zesarea bidezkoa da, eta % 81etan epidurala erabiltzen dute. Baionakoan % 16 da zesarea kopurua eta epidurala % 84tan erabiltzen da. Lapurdiko hiriburuko Lafourcade klinikan % 20 da zesarea kopurua eta % 80 epidural kopurua, eta Lafarguen klinikan % 22 eta % 52. Osasunaren Mundu Erakundeak zesarea kopurua % 10-15ekoa izan dadin aholkatzen du. Instrumentalizazioa arriskuak prebenitzearen izenean erabiltzen bada ere, Frantziako Estatuak du hilik sortzen diren haurren kopuru handiena Europan, milatik 9,2, Medikuntza Ikerketaran Erakunde Nazionalak 2013an argitaratu zuen txostenaren arabera.

Gaur egun, ezin etxean erditu

Candelak urtetan artatu izan ditu emakumeak euren etxeetan erditu zitezen. Autonomo edo liberal gisa behar egiten duten emagin hauen lana ez dute Hegoaldean bezala erdituko diren familiek eurek ordaintzen, Iparraldean Gizarte Segurantzaren barruan sartzen baita gastu hori —eta baita haurdunaldiaren jarraipenarena ere—. Iparraldeko emakumeek emagina aukeratzeko eskubidea dute, eta baita erditzeko tokia aukeratzeko eskubidea ere, izan ospitale publiko, klinika pribatu edo etxean. Hala ere, aldeko baldintza hori duten arren, emaginek etxean erditzen laguntzea oztopatzen duen faktore bat dago Iparraldean, etxean laguntzen duten emaginek 19.000 eta 24.000 euro arteko segurantza ordaindu behar dute urtean, jaiotze horiek "arrisku handiko sortzeen kategorian" sartzen dituztelako aseguru-etxeek. Ondorioz, gaur egun ez da emaginik etxean erditzen laguntzen duenik Iparraldean. Candelak berak iaz utzi zion egiteko horri, batetik aseguru-etxeek jartzen dituzten baldintzengatik, eta bestetik, presio sozialagatik, "haurra etxean ukaitea biziki gaizki ikusia da. Eta zaila da mundu guztiaren kontra joatea bakarrik", azaldu zuen erabakia hartutakoan. Candela asegururik gabe aritu izan da urtetan lanean, kanporatua izan eta emagin gisa lan egiteko aukera galtzeko nahiz 45.000 euroko isuna jasotzeko arriskuarekin. Hala lagundu zien Argitxuri eta Ainizeri Pattin eta Leixa euren etxeetan erditzen. "Haurra bere ingurunean sortzea bikaina da, eta niri lasaitasun handia eman zidan", gogoratzen du Argitxuk Pattinen jaiotza, Etxeberri Garaia baserrian jaio zen, 2009ko ekainean —laugarren haurra ere, Ttale, Candelarekin izan zuen Ortesen—. Ainizek Leixa ukan zuenerako Candelak erabakia zuen etxean gehiago ez artatzea. "Nik etxean eta Murielekin erditu nahi nuen. Lehena ukan ondotik, banekielarik zer zen etxean erditu nahi nuen. Segimendu guztia Murielekin egiten ari ginen eta lasai ginen fisikoki eta psikologikoki sekulako laguntza eskaintzen baitu, eta mina ikusteko modua ere oso interesgarria da, seguru eta lasai nintzen. Proposatu nion neuk hartzea nire erditzearen ardura, halakorik sinatzea... baina ezetz erabaki zuen, erditze batean parte hartzen duen unetik, bere tituluarekin baitoa errespontsabilitatea, parte hartzen duelarik bera bilakatzen da arduraduna, eta emakume bat arriskuan jartzea lepora diezaiokete. Berak ikaragarrizko presioak zituen. Azkenean, 8. hilabetean, Murielek aitzinera egitea erabaki zuen, bere buruarekin lasai gelditu eta egitea erabaki zuen". Horrela jaio zen Leixa Hoztan, Ainize eta Asisko Urmeneta eta Gexiren etxean, supazterrean. Jaiotza horren ostean Candelak urte batzuez jarraitu zuen etxeko erditzeak artatzen.

Egun, emazteek erditze fisiologiko bat izan dezan, hiru bide ari dira urratzen: batetik, ospitaletan instrumentuen erabilera eta batez ere zesarea kopurua jaistea eskatzen dute. Bestetik, aseguru-etxeek etxean erditzen laguntzen duten emaginei eskatzen dieten asegurua jaistea aldarrikatzen dute, eta epaitegietan dago egun auzia. Eta, hirugarrenik, sortze-etxeen inguruko eztabaida piztua da: Alemanian Erresuma Batuan edota Suedian dauden jaiotze-etxeen gisakoak eskatzen dituzte, erditze fisiologikoak gehiago errespetatuko lituzketen lekuak, ospitaletan edo ospitaletik gertu leudekeenak baina emaginek kudeatuak osoki, haurdunaldiaren jarraipena egiten duen emaginak artatuko lukeelarik emakumea erditzean eta erditze-ostean.

AISIALDIKO HEZITZAILEAK MINTZO

Hezkuntza ez-formala, bizitzarako eskola

Oso organizatuta eta planifikatuta dagoen mundutik irten eta espazio librera jauzi egiteko aukera ematen die haur eta gazteei aisialdirako heziketak. Pertsonak erdigunean jarriz, norbere ekimenak aurrera eramateko abagunea eskaintzea du xede.

H"Zer egingo dut nire denbora librean?", "Zertan apuntatuko dugu haurra?", "Zer du gustuko?", "Zein baliotan hezi nahi dugu?"... ohikoa da ikasturte hasieran haur, gazte zein gurasoek era horretako zalantzak izatea. Ez da garai txarra denbora libreko jardueren gaineko hausnarketa egiteko: nolako aisialdia nahi dugu haurrentzat? Eskolaz kanpo ere hezkuntza arautuko eredu berberak jarraitzea komeni ote da? Edota euren zaletasunak aurrera eramateko baliabideak eskaini behar zaizkie? Izan ere, non dute gaur egun haurrek eta gazteek iritzia eman, erabakiak hartu eta euren proiektuak aurrera eramateko aukera?

Haur-txokoak, gaztelekuak, udalekuak, aterpeetako egonaldiak, denbora libreko saioak... Hamaika modu dituzte adin guztietako umeek aisialdirako, ondo pasatzeko, taldean jarduteko, jende berria ezagutzeko, harremanak sendotzeko, euren proiektuak martxan jartzeko, sormena lantzeko, gero eurek antolatu eta dinamizatuko dituzten ekintzak planifikatzeko, ardurak hartzeko... behin eta berriz errepikatutako moduan, eskolan eta etxean ez ezik, aisialdian ere haurrak zein gazteak hezi egiten baitira. Baina zergatik da garrantzitsua hezkuntza ez-formala edo aisialdirako heziketa? Zein funtzio betetzen du haurren bizitzetan? Zertan da osagarri eskolako jardunarekin? Eta zertan familiakoarekin? Galdera horien inguruan solasteko aisialdirako heziketaren arloan lanean edota ikerketan dabiltzan hiru profesionalekin elkartu da ***Hazi Hezi:*** **Atzio Orexa Urtxintxako koordinatzailearekin, Jose Andres Castaño Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako atalburuarekin eta Nerea Agirre MUko Huhezi fakultateko irakaslearekin**.

Hezkuntza ez-formala edo aisialdirako heziketa ez da praktika zaharra. 70eko eta 80ko hamarraldietan familietan, kalean nahiz komunitatean gertatutako aldaketek eragindako beharrei erantzuteko sortu zen. Familia zabala txikituz joan zen, eta haren ordez, gizarte komunitarioak indarra hartu zuen, "hezkuntza soziala" kontzeptua jaio zen eta hainbat elkarte, auzo nahiz herritan jende andana hasi zen lanean boluntario gisara aisialdiko taldeetan, uste baitzen gizarte-eraldaketarako tresna izan zitekeela. Pixkanaka profesionalizatuz joan da aisialdirako heziketa, baina hasierako printzipioek bere horretan jarraitzen dute: **haurrak nahiz gazteak erdigunean dituzten espazio libreak dira, haurrak aske, baina aldi berean zainduta eta babestuta sentituko diren eremuak, umeek ardurak hartuko dituzten eta inplikatuko diren tokiak, elkarbizitzarako harreman osasuntsuak oinarri izango dituztenak**. Lehen irakurrian, hitz potoloak dirudite, baina Orexak adierazitako eran, printzipio horiek kontuan izanez gero, edozein heziketa prozesuk arrakasta izango du, "berdin du txotxongilo tailerra egin, film bat ikusi edota mendira txangoan joan". Esperientziatik dihardu Orexak, orain dela 27 urte Urtxintxa sortu zenetik bertan aritu baita, haurrak aisialdirako hezten ez ezik, baita hezitzaileak formatzen ere. Horrexegatik, argi du haurrekin edo gazteekin dihardutenean ez daudela denbora-pasak egin, ondo pasa eta gurasoen denbora-antolaketari erantzuteko soilik, hori ere bai, noski, baina euren xedea haur eta gazte horiek, hezitzailerik gabe daudenean, euren aisialdia beste era batera antolatzen eta bizitzen ikastea da: **"Bizitzarako eskola da, harremanen eskola, gatazkak kudeatzen ikasteko gunea, sormenaren eremua, norberaren proiektuak burutzeko espazioa... Horiek dira guk sustatzen ditugun oinarriak"**.

Zenbait kasutan, ordea, badirudi hezkuntza ez-formala haurra nonbait "edukitzeko" baliabidea dela, eta ez zaiola behar besteko garrantzirik ematen. Aldiz, beste era batera baloratu ohi da haurrek musika-instrumenturen bat ikastea, ingeleseko eskoletara joatea edota futbol taldean ibiltzea. Horiek ere eskolaz kanpoko jarduerak dira, aisialdian egiten diren hezkuntza-saioak, baina ez dira aisialdirako heziketaren parte.

Nerea Agirre, Jose Andres Castaño eta Atzio Orexa, hurrenez hurren; aisialdirako heziketan aritu eta adituak.

"Sarritan hezkuntza instrumentalizatu egiten dugu, helburu finalistak ditugu. Badirudi curriculuma dela pertsona bakoitzaren motxila eta motxila hori ahalik eta gehien betetzea dela egin dezakegun onena haurrak etorkizunerako prestatzeko", Castañoren hitzak dira. Azken urteetan Diputaziotik bereziki Udalekin ari dira lanean, hango haur eta gazteekin diharduten hezitzaileak formatzen, profesionalizatzen. Berak azaldutako moduan, haur eta gazte horiek, gizarte, komunitate edo pertsonamultzo jakin batean bizi beharko dira, eta testuinguru horretan hartu beharko dute parte, hiritar aktibo izan, besteekin lan egin eta kolaboratu. "Ezaugarri horiek, beharbada, ez dira hain finalistak, bai ordea, oso garrantzitsuak pertsona horren bizitzarako, bere proiektu propioa eraiki dezan, modu autonomoan. Eta aisialdirako hezkuntzak alor horretan lan handia egiten du. Sarritan ez da erraza guk egiten dugun lana azaleratzea, baina balio handikoa da eta hori ikusarazi egin behar dugu. **Pentsatu behar dugu zer motatako pertsonak nahi ditugun, eta eskaintzen ari gatzaizkien horrekin pertsona zoriontsuak ari garen egiten edota alderantziz"**.

Orexa, Castaño eta Agirre, hirurak bat datoz proiektu pedagogikoak eta hezitzaileek jokatzen duten rolak duten garrantzia azpimarratzean. Agirrek argi dio: "Nik erdigunean proiektua jarriko nuke. Horrekin lotuta printzipioak datoz ondoren; hau da, pedagogiak eduki beharko luke protagonismoa bestelako interesen gainetik". Ildo berean zera dio Castañok: "Nik uste dut proiektuen pedagogiaren eskema oso baliagarria dela. Azken batean, haur zein gazteak proiektu horren protagonista izan beharko dira eta eurek erabaki beharko dute zer egin nahi duten eta nola egingo duten". Jaume Funes pedagogoaren ideiei jarraiki, hezitzailearen egitekoa erreferentziazko heldua izatea dela diote, haurrari hainbat aukera mahai gainean jarriko dizkiona, entzungo diona eta berarekin hitz egingo duena, zailtasunak gainditzen lagunduko diona, eta guztiaren gainetik, unean uneko eta tokian tokiko egoeren aurrean zentzuz eta malgutasunez jokatzen jakingo duena. "Badugu gure aldeko baldintza bat: eremu honetan gauza asko harremanetan eta harremanetatik eraiki ahal dugu. Garbi eduki behar dugu, hezitzaile taldean adostuta, landuta eta etengabe eztabaidatuta zer harreman eredu nahi dugun eraiki ume edo gazteekin, eta baita zein estrategia erabiliko ditugun ere: zein estrategia erabiliko dugun eztabaidarako, zein estrategia erabiliko dugun adostasunak lortzeko, zein estrategia erabiliko dugun gatazken aurrean, zein estrategia erabiliko dugun ondo pasatzen ari garenean...", bizipene-

tatik mintzo da Agirre, autogestioan, autoeraketan eta auzolanean oinarritutako euskal udalekuetan izandako esperientziatik, hain zuzen. Antzerki tailerraren adibidea jarri du hezitzaileak. Produkzio eta kontsumo gizartearen kontrapuntuan, baliabide material oso gutxirekin egin daitekeen jarduera da, eta haur zein gazteek ardurak har ditzakete, gidoian, planifikazioan, muntaian, entseguetan, antzerkia taularatzean zuzenean parte hartu. Nolako antzerkia, nolako ikuskizuna, nolako *show*-a? Bada, denen artean erabakitzen den modukoa: "Guk udalekuetan euren gaitasunetan oinarritutako ikuskizun bat prestatzeko proposamena egiten diegu. Denbora bat ematen diegu euren artean elkartu, eztabaidatu, haserretu, adiskidetu, lagundu, zer egingo duten erabaki eta prestatzen hasteko. Hezitzailearen funtzioa zein da? Euren gaitasunetan oinarritutako ikuskizun bat prestatu nahi dugunez, lehenik eta behin haurrei ikusarazi behar zaie edonork dituela gaitasunak, edozer izan ahal dela gaitasuna, eta gaitasuna izan daitekeela oso ondo egiten den zerbait edota erdi-ondo egiten den zerbait. Hortaz, haurrei ikuskizuna prestatzeko proposamena egin aurretik, hezitzaileok *show* txiki bat egiten dugu eurek ikus dezaten guk gaitasunak nola ulertzen ditugun: bi begirale soka-saltoan agertuko gara eta egingo dugu ahal dugun moduan, beste batek txirula joko du, erdipurdi abesten duen batek kantatu egingo du... helburua da haurrei ulertaraztea pertsona guztiok gauza batzuk ondo egiten ditugula eta beste batzuk, akaso, ez hain ondo, baina guztiak izan daitezkeela baliagarri".

Sarritan, ordea, ez da samurra izaten haur edo gazteak erdigunean izango dituen proiektuen pedagogiari arrakastaz eustea, aisialdirako heziketa gaurko gizartearen parte baita, eta hein batean baita ispilu ere. "Gizartean emaitzek dute lehentasuna, eta gu ere, batzuetan, aldendu egiten gara aisialdirako heziketa oinarrian dituen printzipioetatik. Proiektuen pedagogiatik emaitzen pedagogiara pasatu gara", kritiko da Orexa. Argi du, ordea, aisialdirako heziketak baldintza ezin hobeak eskaintzen dituela haurrek eta gazteek momentu horretan oso ezkutuan dituzten beharretan eragiteko: "Egia da korrontearen kontra goazela, eta oso gauza txikia eta puntuala garela gaur egun gizartean hain errotuta dauden zenbait baliori aurre egiteko, baina horrek ez du esan nahi gauzak beste modu batera egin ezin daitezkeenik". Horretarako, ekintzen "gurpil zorotik" irtetea eta programazio itxitik aldentzea ezinbestekoa dela dio, haurrak jardueraz eta estimuluz gainezka daudela uste baitu, euren ekimenak aurrera eramateko gunerik gabe eta horretarako lanabesik gabe. "Horrela jarraitzen badugu, beste esparruetan egin den gauza berbera errepikatzen amaituko dugu, eta horretatik aldendu egin behar dugu. **Aisialdirako heziketan ez dago ebaluaziorik, ez dugu notarik jartzen, ez dago eduki zehatz batzuk ikasi beharrik... Bere zaletasunak aurrera eramatea, taldean konpromisoaren bizipena esperimentatzea, gizartearen aurrean ardura hartzea... Hori guztia non bizitzen dute gaur egun haurrek? Non har ditzakete erabakiak? Nork ematen die aukera zer egin nahi duten adierazteko? Eta euren iritzia emateko? Aisialdirako heziketak horretarako guztirako baldintzak eskaintzen ditu. Beraz, jar ditzagun baliabideak eta probestu dezagun aukera"**.

Hitza haurrei emanaz

Aisialdirako heziketa aipatzean, haurren eta gazteen partaidetzaz, kooperazioaz, ardurak hartzeaz, sormena lantzeaz, inplikazioa sustatzeaz, taldean lan egiteaz, norbere proiektuak garatzeaz... hitz egiten da. Baina errealitatean, eguneroko praktikan, nola egikaritzen da hori? Askotan errazena, hezitzaileak bulegoan haurrekin egingo duen guztia planifikatzea eta ekintza guztiak aurrez ondo lotuta eramatea izan ohi da. Kontrara, Orexak, Castañok eta Agirrek uste dute aisiadirako heziketan haurrei eta gazteei pentsatzeko, proposatzeko eta gauzatzeko aukera ematen zaiela. Ekintza dena delakoa izanik ere, garrantzitsua bidea egitea dela diote, prozesu horretan sortzen diren oztopoak, zailtasunak, arrakastak... horiek guztiak bizitzea pertsonaren haziera eta heziera prozesuan. "Gaur egun haurrak askotan aspertu egiten dira euren denbora librean, ez dakite zer egin, ez dira gauza euren aisialdiko denbora antolatzeko. Dena egina eman zaie, kontsumitzeko pronto. Baliabideak falta dituzte. Lehen kalean edo harreman-sare zabalagoetan lortzen genituen, baina gaur egun ez. Aisialdirako heziketatik horri eman behar diogu bultzada, eta hori ez da lortzen esanaz edo kontatuaz soilik; bizi egin behar da. Adibidez, gatazka baten aurrean hitz egin, adostasunetara iritsi, malgua izaten ikasi, arazoa konpondu... hori norberak bizi behar du. Ez dago bakarrik, noski. Beste kideekin eta hezitzailearekin harremanetan dago eta harreman horretan ikusten da haurra nolakoa den, zer behar dituen, laguntzen diozu ondorioetara iristen, galderak eginaz eta ez erantzunak emanaz. Hori da guk eskaintzen duguna, hori da aisialdirako heziketa duen baliorik inportanteena edo eduki beharko lukeena".

Haurrek edota haien gurasoek, batez ere Bigarren Hezkuntzatik aurrera, euren denbora librean egiteko kirola —denen artean futbola da nagusi—, hizkuntzak edota musika instrumentuak aukeratzen dituzte, batez ere. Aisialdirako hezkuntzaren parametroetan jarduten duten elkarte edo taldeen aukera, ostera, azken postuan geratzen da, eta zenbait haur eta gaztek oso modu puntualean erabili ohi dute zerbitzu hori; bereziki, opor-egunetan beste nora jorik ez dutenean... Orexak, Castañok eta Agirrek uste dute garrantzitsua dela seme-alaben denbora antolaketa egitean aisialdirako heziketak lantzen dituen balioetara egokitzen diren eskaintzei ere tokia egitea, denbora bat gordetzea bizitzarako eskola izango den horretarako. "Hausnartu beharko dugu gure haurrek zein premia dituzten, ea behar duten hori mundu akademikoan soilik eskura ote dezaketen". Aisialdirako heziketako taldeak oso irekiak izan ohi dira, ez da eskolaz kanpoko beste hainbat jardueratan bezalako sailkapenik egiten eta edonork izaten du parte hartzeko aukera: "Aniztasunari dagokionez eta inklusiora bidean, eremu honetan izugarrizko lana egin da eta aukera handiak ematen ditu. Horregatik, guraso guztiak animatuko nituzke, umearen gaitasunak direnak direlarik ere, eremu horri tokia egitera".

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

www.libegarmendia.com

eusko gudariak 35 :: ORIO
[sarrera Arrantzale kaletik]

Iñaki EIZMENDI
Euskararen erabilera eta transmisioan aditua

FAMILIA-GIROAN

Nire senarra euskaldun berria da eta gure arteko harremana hasieratik gaztelaniaz izan da. Haurrekin euskaraz hitz egin dut nik beti, senarrak berriz, gaztelaniaz. Guztiok batera gaudenean, ostera, euskara izan ohi dugu komunikazio-tresna. Gure seme-alabek orain arte euren artean beti euskaraz hitz egin izan dute, baina noizbehinka gaztelaniara jotzen hasi dira. Kezkatuta nago, nik haien arteko harremana eta familiakoa euskaraz izatea nahi baitut. Senarraren eta bion arteko elkarrizketak erdaraz izateak eragin dezake?

ZALANTZARIK GABE seme-alaben hizkuntza-ohituretan gurasoen erabilerak eta etxeko hizkuntzak eragina du. Zenbat eta euskara gehiago jaso etxetik, askoz hobe. Beraz, komeni da hori zaintzea. Baina hizkuntza-ohiturei dagokienez jasotzen duten ereduak ere garrantzia handia du. Hau da: gu euskaldunak bagara eta euskaraz egiten badugu etxean, ondo. Baina gurasoetako bat euskaldun-berria bada, eta erdaraz erosoago egingo lukeen egoera batzuetan euskara erabiltzeko ahalegina egiten ari bada, seme-alabei hizkuntza-ohiturei begira eredu indartsu bat eskaintzen ari da: euskaraz bizi nahi duen euskalduna izatea.

Beraz, ona da ardura izatea seme-alaben hizkuntza-ohiturei begira eta gurasoon jokabidea egokia ote den zalantzan jartzea. Baina, zuen azalpena kontuan hartuz, etxetik jasotzen duten ereduak badu alde on bat: guztiok zaudetenean etxeko hizkuntza euskara da. Aurrera begira, seme-alaben hizkuntza-ohituretan eragin nahi baduzue, besteak beste kontuan izan ditzakezue bi ideia hauek: etxeko eredua indartzen saiatzea eta bestelako faktoreak zaintzea.

Etxeko eredua indartu dezakezue: zuen arteko harremanetan, urratsez urrats bada ere, euskarari gero eta leku handiagoa egin. Gurasoon arteko harremanean euskararentzat lekua irabazten hasi (egoera batzuetan euskaraz egiten hasi eta gero eta gehiagotan egin), aitak seme-alabekin duen harremanean ere euskarari gero eta leku gehiago egin... Pauso txikiak izatea eta jolas moduan hartzea lagungarria izan daiteke.

Baina, horretaz gain, hizkuntza-ohituretan eragiten duten beste faktoreak ere zaindu ditzakezue seme-alabei begira: etxean euskarari leku handia egin (telebista, irratia, musika...), erreferente asko eskaini (bertsolariak, musikariak...), euskaraz arituko diren guneak eskaini (euskarazko jarduerak), euskarazko produktuak oparitu... Eta nola ez, seme-alabei adierazi hizkuntza-ohiturak zuentzat garrantzitsuak direla, beraien artean euskaraz egitea nahi duzuela, eta horretan lagunduko diezuela.

LAGUN ARTEAN

Lagun koadrilan denok gara euskaldunak, baina sarri erdara jotzen dugu gure artean —seme-alabekin denok euskaraz egiten dugu—. Nik euskaraz egin nahi dut lagun artean, baina zaila egiten zait hizkuntza batean ohitu garenean beste batean hastea... batzuek gainera ez daukate hizkuntza-kontzientzia handiegirik... nola has naiteke?

OHITURAK ALDA DAITEZKE. Hainbat bikotek aldatu izan dituzte hizkuntza-ohiturak. Badira koadrilak ere hori egin dutenak. Baina ez da horren erraza!

Gainera, hainbatetan, ohiturez gain gaitasunean ere egoten da muga: Hizkera informalari dagokionez zein hizkuntzatan daukagu aberastasun handiagoa? Adarra jotzerakoan, umorezko konturen bat edo txiste bat kontatzerakoan, mezuak indartzeko erabiltzen ditugun esamoldeetan...

Egokia iruditzen zait lagunekin gaiari buruz hitz egitea: seme-alabei begira duen eragina (seme-alabei euskaraz baina helduen artean ez horrenbeste...), gure buruekin dugun kontraesana (euskaldunak gara baina...), eta abar. Aldaketa ematera begira, ahalegin batzuk egin ditzakezu (baina arrakasta ez dago ziurtatua!). Adibidez:

-Zuk beti euskaraz egin. Besteek zuri batzuetan erdaraz eginda ere, zuk mantendu euskara. Konturatu daitezela benetan nahi duzula aldaketa hori. Zure eragina handia izan daiteke.

-Seme-alaben laguntza lortu (zure seme-alabena eta baita lagunena ere). Seme-alabei ziur euskaraz egiteko eskatzen diegula, eta beraz, beraiei esan beraiek ere badutela aukera gurasoei hori eskatzeko. Zergatik ez?

-Jolas bihurtu: koadrilakoekin gaia sortzen denean, helburu txiki bat adostu eta lortzen saiatu. Seme-alaben laguntza lortu egoera horretan. Eta saiatu helburua lortzen. Adibidez: gaur egun pasa goaz, egun guztia euskaraz aritu behar dugu. Seme-alabak eta gurasoak. Bide horretatik, helburua kontziente egiten da eta ahalegintxo eta lorpenekin aurrerapausoak eman daitezke.

Seme-alaben euskararekiko jarrerak lantzeko bidea ere oso ona da: gurasoen kontraesanak ikusten dituzte baina horiei aurre egiteko euskararekiko aktiboak direla eta gero eta gehiago erabiltzen ahalegintzen direla ere ikusten dute.

EUSKARA

IRAKURTZALETASUNA

Gure semeak txikitatik izan du gustuko irakurtzea. Euskara du ama hizkuntza eta bietatik irakurri izan du, euskaraz nahiz erdaraz. Orain hamalau urte ditu eta erdaraz errazago irakurtzen duela esaten hasi zaigu. Normaltzat hartu behar dugu hori?

ERRAZTASUNA OHITURAK ematen du. Bi hizkuntzetan irakurri arren, gure testuinguruan erdarak indar handia du eta seguruenik gaur egun gauza gehiago aurkitzen ditu bere gustukoak erdaraz euskaraz baino.
Euskaraz alfabetatutako zenbat jende dago prentsa euskaraz irakurtzea "kosta" egiten zaiona? Edo telebistan pelikula bat euskaraz ikusteko gai ez dena? Erraztasuna ohiturak ematen du.
Irakurketarekin berdin. Liburu-denda batera joaten bagara erdaraz aukera handiagoa izango dugu, liburutegietan ere bai, eta ingurukoek ere erdaraz gehiago irakurtzen badute egiten dizkioten gomendioak ere zentzu horretakoak izango dira. Beraz, guri bi hizkuntzak paretsu daudela iruditu arren, askotan testuinguruak erdara gehiago ematen die euskara baino.
Hori bai, zuen semearen kasuan abiapuntua ona da: irakurtzea gustatzen zaio eta euskaraz irakurtzeko ohitura ere badu. Bi gauza bururatzen zaizkit: bat, interesa erakutsi euskaraz ere irakur dezan, eta bi, eskura euskaraz irakurtzeko aukera asko eta ezberdinak jarri: liburuak oparitu (adi ibili aukera egokietara, liburu berrietara...), euskarazko prentsa eskura jarri (Gaztezulo aldizkaria, adibidez), Durangoko azokara urtero txangoa egin... Berak bere bidea egin dezan lagundu ahal izango diogu: bertako autoreen erreferentziak izan, gustuko generoetan euskaraz zer dagoen ezagutu, eta abar.

ERDARAK IKASTEA

Gu herri txiki batekoak gara eta euskaraz bizi gara osoki. Gure umeek ez daukate gaztelaniadunik familian. 10 eta 12 urte dituzte eta euskaraz oso ongi moldatzen badira ere, gaztelaniaz aritzeko zailtasunak dituzte. Eskolan esaten digute lasai egoteko, gaztelania hemengo hizkuntza hegemonikoa denez, erraz ikasiko dutela-eta. Hala ote?

KEZKA HORI OHIKOA da euskara asko erabiltzen den inguruetan. Gaztelania ere ondo ikastea nahi dugu eta behar bezalako maila ez ote duten izango iruditzen zaigu.
Hasteko, abiapuntua: gure seme-alabak eleanitzak izatea nahi dugu. Gutxienez euskara, gaztelania eta ingelesa ondo ikasiko dituztenak. Baina ikastetxearen helburua ere horixe da: ikasleek hizkuntza bat baino gehiago ondo ikastea. Horretarako helburu batzuk jartzen dituzte, metodologia bat dute, hainbat ordu ematen dituzte... Irakasleek esaten badigute gure seme-alaben gaztelania maila egokia dela eta lasai egoteko, eman beharko diegu konfiantza hori ezta? Matematikekin, zientziekin eta beste hainbat gairekin ematen diegu. Hizkuntzekin zergatik ez?
Irakasleek esaten dutenean gaztelania hizkuntza hegemonikoa dela, ez izan zalantzarik arrazoi dutenik: Zein hizkuntzetan ikusten dute zuen seme-alabek telebista? Euskara hutsean? Prentsa irakurtzen badute, zein hizkuntzatan? Interneten dabiltzanean euskarazko orrietan eta elkarrizketetan soilik dabiltza? Eta musika, gaztelaniaz abesten duten zenbat talde eta musikari ezagutzen dituzte? Gaztelania behin eta berriz agertzen da batean eta bestean, askotan gu ohartu ere egin gabe. Dudarik gabe arduratuta egotea eta lagundu nahi izatea ona da. Beraz: jarraipena egin, gaztelaniaz ere irakur dezaten lagundu, irakasleei ikaste prozesuari buruz galdetu... Derrigorrezko ikasketak amaitzen dituztenean eskolak bermatu behar digu gure seme-alaben gaztelania maila behar bezalakoa izango dela. Agian ez dute testuinguru erdaldunetakoa duten jarioa. Baina gaztelania maila ona da.
Behar dutenean erabiliko dute, eta erabilerak berak emango die erraztasuna eta jarioa.

KONTZILIAZIOA
Gaur egungo laguntza-sistemak asetzen al ditu familien premiak?

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan lana eta familia-bizitza bateragarri egiteko kontziliazio-sariak bukatu izanak, batetik, eta Frantziako Gobernuak seme-alabengatik ematen diren laguntzak gutxitzea erabaki izanak, bestetik, familien laguntza-sistema osoa berrikusteko premia azaleratu du.

Administrazio batek non inbertitzen duen, interesgunea han duela erakusten du. Hona berriki Euskal Herriari eragiten dieten hiru administraziok familiak laguntzeko sistemen inguruan eman dituzten hiru albiste: Eusko Jaurlaritzari bukatu egin zaio lana eta familia-bizitza uztartzeko diru-laguntzen poltsa (abuztuan aldizkari ofizialean argitaratutako ohar batean jakinarazi zuen Jaurlaritzak urte osorako aurreikusia zegoen laguntza-kopurua agortu egin zela. Zehazki, otsailaren 28ra arte jasotako eskariak ordainduko dituela jakinarazi zuen, baina hortik aurrera, urte osoan jaso dituen eta jasoko dituen eskaerekin zer gertatuko den ez du zehaztu). Nafarroako Gobernuak % 80 moztu ditu eszedentziak edo lanaldi murrizketak hartzeko laguntzak. Frantziako Gobernuak bi heren murriztu du datorren urteko aurrekontuetan seme-alabengatik ematen duen laguntza.

Lurralde guztietan gora egin du laguntzak eskatu dituzte familien kopuruak, eta diru-poltsak murriztu egin dira. Administrazioek familiak seme-alabak edukitzeagatik lagunduko ez badituzte, familiek egin beharko dituzte kontuak: nola burutu hilabetea badagokizun eta espero zenuen baina jasoko ez duzun diru kopuru hori gabe?

Familia batzuen ahotsa entzun da: ezingo dutela hilabetea burutu kexatu dira; Hirukide elkarteko presidentea ez du harritu Jaurlaritzaren poltsa bukatzeak, "aurrekontua erdira jaisten denean denbora gutxian eskari kopuru bera egonda, ikusten zen zer zen etorriko zena", familia politiketan gogoeta sakona eskatu du. Sindikatuek ere hitz egin dute, opor fiskalen auziarekin konparatu du ELAko idazkari nagusi Txiki Muñozek: zulo hura "aurrekontuetako diru publikoarekin ordainduko duen bitartean" Jaurlaritzak ez duela kontziliazioa familien eskubide gisa aitortzen esan du, eta diru-laguntzen funtsa handitzeko aldarrikatu: "kontziliazioa herritarren eskubide izan dadin, dirua amaitzen bada ere desagertzen ez dena". LABek ere, aurrekontuaren handitzea eskatu du, eta sindikatu horren ustez, "Jaurlaritzak darabilen politika sozialaren gabezia eta porrota erakusten du laguntza kentzeko erabakiak". Politika sozial berria abian jartzeko eskatu du LABek.

Baina lana eta familia bizitza kontziliatzeko diru-laguntzen poltsa hain azkar amaitu izanak familiak laguntzeko sistema bera jarri du ezbaian. Diru-laguntza hauek, teorian, "familiei ezartzen zaizkien baina modu autonomoan burutu ezin dituzten funtzio sozialei aurre egiteko premiak" asetzera datoz, eta betetzen al dute benetan familien beharra? Gaur egun dugun laguntza-sistemak ase al ditzake familien beharrak?

Euskal Herrian oso ezberdina da administrazio bakoitzak daraman laguntza-sistema. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan piztu da alarma azken hilabeteotan, baina Nafarroan ere handia izan da murrizketa: mozketa egiteko, batetik, neurri zuzena hartu du nafar gobernuak: eszedentziak hartzen edo lanaldiak murrizten zituztenentzako laguntzak % 80 moztu ditu; eta bestetik, zeharka egin du murrizketa: diru-laguntzak jasotzeko neurriak estutu egin ditu, eta ondorioz familia gutxiago dira aurten laguntza jasotzeko aukera izan dutenak, 800 familia nafarrek eskatu zituzten laguntzak baina erdiek ez zuten kobratzerik izan.

Erdira jaitsi dira laguntzak

Lana eta familia-bizitza uztartzeko kontziliazio-laguntzak 3 urte bitarteko seme-alabak zituzten gurasoentzat soilik ziren 2007a arte. Urte horretan, Juan Jose Ibarretxeren Gobernuak, Joseba Azkarraga Justiza, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburu zela, eszedentzia-baimenak eta murrizketak hartzeko laguntzak gaur diren gisara ezarri zituen dekretu bidez.
Gizonek seme-alaben zaintzan parte hartzeko, haien aldeko diskriminazioa egiten zuen dekretuak, esate baterako, eszedentzia eskatzeagatik, emakumeek urtean 2.400 euroko laguntza jaso bazezaketen, 3.000 eurokoa jaso zezaketen aitek. Alta bada, familia zaintzeko lanaldia murriztu zuten gizonezkoen kopurua ez zen handitu neurri horrekin. Familiak zuzenean laguntzeaz gain, enpresak ere diruz laguntzea arautzen zuen 2007ko dekretuak.
3 urtetik beherako seme-alabak etxean zaintzeko langileak kontratatzeko ere laguntza ematen zuen. Baina 2007ko uztailean onarturiko dekretuak urtea ere ez zuen bete bere horretan, lana eta familia uztartzera bideratutako dira laguntzak beheraka hasi ziren 2008an.
2009an Patxi Lopezek gobernua hartu zuenean eta Gemma Zabaletak Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren ardura hartu zuenean kontziliazio laguntzak igo egin zituzten, eta 2010ean egin zen dekretuak berdindu egin zituen gizonezkoek eta emakumezkoek jaso zitzaketeten diru-laguntza kopuruak (esate baterako, eszedentziagatik 3.500 euro arte jaso zitzaketen gurasoek). Kontziliazioa laguntzeko diru funtsa 35,3 milioira igo zen, inoizko altuena Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeetan, baina diru hauek ez ziren ordaindu PSOEren Gobernuaren epe barruan, 25 milioi ordaindu gabe gelditu ziren. 2011n beherekada txiki bat izan zen, baina benetako beherakada 2012an hasi zen (funts hori 30 milioira jaitsi zuen gobernuak urte horretako abuztuan atera zuen dekretuak), eta beherakoari ez zaio mugarik jarri ordutik.
Iñigo Urkullu EAJrekin Gobernura iritsi eta Juan Mari Aburto Gizarte Gaietako sailburu izendatzean, diru-laguntzak emateko funtsak ia erdiraino jaitsi ziren, 17,3 milioitara. Krisi ekonomiko bete-betean, doikuntza plan handia egin zuen Jaurlaritzak. Diru-laguntzak jaitsi zirenean hainbat familia laguntza hori kobratu ezinda gelditu zen 2013an, sinpleki, eskari guztientzako —31.607—ez zirelako iristen. Berez, dekretuaren arabera, sei hileko epean jaso behar du sendi baikoitzak laguntzaren ebazpena, baina 2013an eskaera egin zuen heren batek baino gehiagok aurtengo apirilean jaso du dirua.

Iparraldeko egoera guztiz bestelakoa da: Frantziako Estatuaren administraziopean beste ezaugarri batzuk ditu, eta ondorioz babestuago egon dira orain arte seme-alabak dituzten familiak. Konparazione, gaur egun, Behe Nafarroako familia bateko amak, bi umerekin eta lan jarduna erdira murrizturik 600 euroko laguntza jasotzen du; aldiz, Gipuzkoan baldintza bertsutan den emakumeak 275 euro espero arren ez du batere jasoko irail honetan lanera inkorporatu denean, poltsan ez baita dirurik. Haatik, datorren urtetik aurrera Iparraldean ere ez da horrela izango. Neurri drastikoa hartu du Frantziako Gobernuak: familiek orain arte seme-alabengatik jasotzen zuten laguntzaren herena jasoko dute 2015etik aurrera. Gehienez 308 euro (orain arte 908 arte jaso zezaketen). Gizarte Segurantzako defizitari aurre egiteko hartu behar izan ei du erabaki hori.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako familiei dagoeneko eragiten die murrizketak. Familia horiek jasotzen dituzten diru-laguntzen sitemari begiratu dio ***Hazi Hezi***k **SiiS ikerketa eta Dokumentazio Zentroko Egia Kareagako ikerketa zuzendari Joseba Zalakain**ekin, EAEko Arartekoa Fundazioarentzat *Las politicas de apoyo a las familias en Euskadi y en Europa: aprendizajes para después de una crisis* txostena aurkeztu baitu berriki. Kasu gehienetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako sistemaz esaten dena Nafarroara ere zabal liteke, foru erkidegoko diru-laguntzen sistema ere, kopuruak kopuru, antzeko oinarrietan eraikia baita.

Hutsunea oinarrian dago

EAEko familiek jasotzen dituzten laguntzek ezaugarri berezi bat dute, Zalakainen aburuz, Europako sistema eredugarrien aldean: desgrabazio fiskaletatik bideratzen da familiek seme-alabak edukitzeagatik jasotzen duten laguntza nagusia. Eta ezaugarri horixe berau da, Zalakainen aburuz, sistemaren ahulgune: "Hemen ez daukagu, beste leku batzuetan duten bezala, seme-alabak edukitze hutsagatik oinarrizko diru-laguntza orokor eta erregular bat. Horren lekuan, desgrabazio fiskaletik bideratzen dira laguntza nagusienak, eta horrek arazoak dakartza".

Desgrabazio fiskaletik seme-alabak edukitzeagatik onura handienak errenta altuena duten familiek jasotzen dituztela da sistema honen arazoetako bat. Gainera, familiei desgrabatuz gutxiago biltzen du gobernuak —"milioitan kopuru handiaz ari gara hitz egiten"—, eta inbertitzeko ere gutxiago du, ondorioz. Laguntza-sistema honek duen beste arazo bat oharkabean pasatzea da, "onuradunak ia ez dira ohartu ere

Suedia eta Norvegiatik urrun

Lana eta familiaren zaintza bateragarri egiteko neurriak aspaldikoak dira Europako hainbat herrialdetan. Suedia, Finlandia eta Lituania izan ziren aitzindariak, eta ondoren Europako beste hainbat herrialdetara zabaldu ziren prestakuntza horiek Europako Batasuna sortzean (1994). EBk, neurri batean, behartu egiten ditu estatuak familiaren zaintza eta lana uztertzeko hainbat neurri hartzera, esate baterako, aitatasun- amatasun-baimenak ezartzera (amatasun-baimenak gutxienez 14 astekoak izan behar dira), aldi baterako lan eszedentzia, lanaldi murrizketa edo ordutegiak malgutzera, edota familiako ustekabeko arazoei erantzuteko baimenak ematera.

Hala ere, estatu bakoitzak ezartzen ditu neurri horiek garatzeko baliabideak. Ondorioz, kasuan kasu oso desberdina da baimen horren kalitatea.

Gurasotasun-baimenei dagokienez, luzeenak Suedian eta Norvegian dituzte. Suedian 16 hilabete (480 egun) dituzte amaren eta aitaren artean hartzeko, 390. egunera arte soldataren % 80 jasoz. Aldi bateko lan uzteari dagokionez ere, Suediako gurasoek dituzte baldintza onenak: langileek 68 astera arteko, (480 egun) baimena jaso dezakete, 390 egunetan soldataren % 80 jasoz. Norvegian 56 asteko baimena dute guraso izatean (393 egun), soldataren % 80arekin edo 322 egun soldata osoarekin har ditzakete. Aita norvegiarrek 70 eguneko baimen-eskubidea dute soldata osoa jasoz. Errumanian 126na egun dituzte amek eta aitek. Finlandian, berriz, amaren 105 egunez eta aitaren 18 egunez gain, beste 158 baimen-egun ordaindu dituzte gurasoek partekatzeko. Herrialde horretan 160 eguneko lan eszedentzia har dezakete gurasoek, soldata osoa jasotzeko aukerarekin.

Amatasun-baimenei dagokienez, Hungarian dute luzeena: 24 aste, soldata osoarekin.

Amatasun-baimenarekin —edo aitatasun baimenarekin— dagoen epe horretan gurasoak jasotzen duen ordain ekonomikoa soldataren %100a da Alemanian, Danimarkan, Espainian, Estonian, Frantzian, Herbehereetan, Polonian eta Austrian; langile bakoitzaren baldintzen araberakoa da noski kobratzen dena. Beste herrialde batzuetan ez dute ehuneko ehuna jasotzen, baina aldiz, baimena arras luzeagoa da: Eslovakiako emakumeek 28 asteko amatasun-baimena dute, baina soldataren % 55a jasotzen dute. Txekiar Errepublikan ere 28 asteko baimena dute, eta soldataren % 69 kobratzen dute.

Behin amatasun-baimena bukatuta, luzatzeko aukera ematen dute hainbat herrialdek, Herbeheretan adibidez. Irlandako amen kasuan ostera, baimena luzatu luzatu dezakete bai, baina ez dute ordain ekonomorik jasoko luzapen horretan.

Aitatasun-baimenak ere oso desberdinak dira herrialderik herrialde. Errusia, Grezia, Danimarka eta Irlandan, esaterako, egun bateko baimena ere ez diote ematen amaren bikotekideari haur jaioberriak zaintzeko. Espainiako Estatuan 15 eguneko baimena dute eta amaren 16 astetatik azken hamarrak har ditzakete. Frantzian egun bat gutxiago dute aitek.

egiten laguntza hori jasotzen ari direnik, zeharkakoa baita".

Egia Kareagako soziologoak dio EAEko laguntza-sistema errotik aldatu behar dela, "benetan eraginkorra izango bada". Lana eta familiaren zaintza uztartzeko diru-laguntzei garrantzirik kendu gabe, Zalakainek sistema osoa berrikusteko premia azaldu du, eredua aldatuz: "Une honetan kontziliazio-laguntza da familiek daukaten laguntza bakarretakoa, eta horrek handitu egiten du arazoa, baina sistemaren osotasunari begiratzen badiogu, laguntza oinarrizkoan daukagun hutsunea ikaragarria da". Diru-laguntza-sistema eraginkorragoa, orokorragoa eta benetan familien beharrak aseko dituena izan dadin, Europa erdialdeko eta iparraldeko ereduetara begiratu behar dugula dio SiiSeko zuzendariak. Oinarrizko bi aldaketa proposatzen ditu:
"Oinarrizko diru-laguntza jaso behar lukete familiek seme-alabak edukitze hutsagatik, horrek behar luke izan familiak laguntzeko sistemaren oinarria". Hego Euskal Herriko familiek ez dute sistematikoki, hilero, diru-laguntzarik jasotzen seme-alabak edukitze hutsagatik. Haatik, eredugarritzat jotzen diren Europa erdialdeko eta iparraldeko sistemetan familien laguntzen oinarrian diru-laguntza unibertsal hori dago, tokian tokian desberdina dena. "Haurrak 16 edo 18 urte dituen bitartean hilero laguntza bat jasotzea oso esanguratsua da familiaren ekonomian; laguntza puntulak ez dira kuantitatiboki hain esanguratsuak familientzat".

Eredugarritzat ditugun herrialde horietan, aipatu laguntza zuzen orokor horiez gain, kontziliazio-laguntzak eta zerbitzuak erosteko laguntzak jasotzen dituzte familiek, hala nola, etxean zaintzaileak kontratatzeko laguntzak; eta baita laguntza puntualak ere, jaiotzaren unean jasotzen diren laguntzak, esate baterako. Herrialde gehienetan, baita ere, desgrabazio fiskalak dituzte seme-alabak dituzten familiek. Horiez gain, familiek bestelako laguntzak ere badituzte, ez zuzenki seme-alabak edukitzeagatik, esate baterako, etxebizitza erosteko laguntzak, nahiz pobrezia saihesteko laguntzak.

Bigarrenik, Europa erdialdetik eta iparraldeko ereduetatik hartu beharreko beste ezaugarria, Zalakainen aburuz, are sakonagokoa da: Gizarte-babes-sistema alderantzikatzea proposatzen baitu, herrialde eredugarrietan egiten duten eran: **"Euskadiko Gizarte-babes-sistema osoak asko begiratzen die zaharrei, pentsioei, eta oso gutxi familiei eta haurrei"**. SiiSek haurren pobreziari buruz egin zuen ikerketa batek argi utzi zuen umeei eta familiei begiratzen ez dien sistema bat dela EAEkoa.

Finlandian, Suedian eta Europako beste hainbat herrialdetan, pedagogiak esaten duena gizarte politiketara eta, beraz, diru-laguntza-sistemara eraman dute: 0-3 etapak pertsona baten eraikuntzan duen garrantzia ikusirik, berau babesteko neurriak hartu dituzte, Gizarte-babes-sistemaren zutabe etapa hori bilakatuz. "Europako politika sozialak haurtzarora begira jarri dira".

Europarekin konparatuz, EAEk umeei zuzenduriko laguntzetan Europako batez bestekoaren ia herena soilik gastatzen du. "Hor dago gure gabezia handiena, gure sistemak beste orientazio bat dauka. Hori aldatu eta haurtzarora bideraturiko inbertsioa izan behar da gizarte inbertsioa". Haatik, EAEk gastu sozialaren kopuru handiena pentsioetara eta langabezia-prestazioe-

"Une honetan, kontziliazio-laguntza da familien laguntza bakarretakoa, eta horrek handitu egiten du arazoa, baina oinarrizko laguntzan ikaragarrizko hutsunea daukagu"

Joseba Zalakain
SiiS-eko soziologoa

tara bideratzen du, gastu sozialaren kopuru orokorretan Europaren %80a bideratzen du. Zalakainek bada, beharrezkoa bai baina era berean zail ikusten du sistema alderantzikatzea: "Sistema errotik aldatzea ez da erraza. Finlandian, Suedian eta Europako hainbat herrialdetan ez dute sistema errotik aldatu beharrik izan haurtzaroari begira jartzeko, abiapuntu kulturala ere beste bat baitzuten; guk, ordea, hasteko ikuspuntua aldatu behar dugu: **Familia heztea zeregin pribatua dela pentsatu izan da hemen, eta beste lekuetan ez. Arazo kultural bat da. Aldiz, zaharra zarenean pentsio bat jasotzea pribilegio bat ez eta eskubide bat dela oso barneratua daukagu kulturalki**, baina ez dugu erabat sinesten umeak hezteko laguntza jasotzea ere zilegi dela. Ikasi dugu hezkuntza eta osasungintza eskubide direla, baina ez dugu ikasi, familia-laguntzak gizarte problema direla".

Diru-laguntzen sistema aldatzeak aitatasun- eta amatasun-baimenak luzatzea eta 1-3 etapako hezkuntza zerbitzuen kalitatearen aldeko apustua egitea ekarri beharko luke berekin, Zalakainen aburuz. "Amatasun- eta aitatasun-baimenen arazoa ere handia da. Europako txikienetakoak ditugu, batezbestekoa 47 astekoa da eta guk 16 aste ditugu".

Haur Hezkuntzako lehen etaparen garrantzia gizarte politiketan kontuan izan beharreko faktore gisa azpimarratzen du Arartekoari aurkezturiko txostenak. "Ikerketek 0-3 etapak umearen garapenean duen garrantzia nabarmentzen dute, eta hor kalitatearen aldeko apustua egitea ezinbestekoa da, gero eta kalitate hobeko heziketa jaso umeak, emaitza pertsonalak eta lan munduari begirakoak hobeak dira. **Europan argi ikusten da nola zaintzen eta azpimarratzen duten haur hezkuntzaren kalitatea"**. Era berean, haurtzaroari eta familiari begirako politika publikoek, bai diru-laguntza sistemak antolatzean nahiz hezkuntza-zerbitzuak pentsatzean aintzat hartu beharreko faktore berri bat jarri du mahai gainean txostenak: "Berriro ere eragin handia izaten ari da familien jatorriko desberdinkeria haurren etorkizunean". Zalakainek azaldu duenez, zein familiatan jaio zaren, zure aukerak ugariagoak edo mugatuagoak izango dira bizitzan. "Duela hamarkada batzuk ez zen hain eraginkorra. Batetik, eskolak berdintzen zituelako aukerak, eta bestetik, lan merkatuak ia-ia mundu osoa hartzen zuen, eskulan handiagoa eskatzen zuelako; baina hori bukatu da eta dagoen eskulana oso prekarioa da."

Kontziliaziotik, erantzunkidetasunera

'Kontziliazioa' hitzak lana eta familia uztartzeari egiten dio erreferentzia, baina jatorrian, uztarketa horretan hirugarren oinarri bat ere badago, lana, bizitza familiarra eta bizitza pertsonala baitira 'kontziliatu' beharrekoak. Hor ezartzen du Juana Maria Maganto EHUko Psikologia fakultateko irakasleak koordinatutako *Concilia en tu vida* liburuak benetako kontziliazioaren gakoa. "Kontziliazioa kontzeptu gakoa da pertsonen garapen osoa lortu ahal izateko, baina ezin dugu bizitza pertsonala uztarketa horretatik kanpo utzi", dio liburuak. "Bizitza pertsonala zaindu beharreko esparrua da nortasun orekatu bat eduki nahi baldin badugu. Lanari eta familiari denbora eskaintzeaz gain, geure buruari denbora eskaintzea funtsezkoa da, geure beharrak zerbait garrantzitsu bezala ikusi behar ditugu, eta guretzat garrantzitsuak diren alorrak eta pertsonalki on egiten digutenak jorratu behar ditugu". Kontziliazioaren hirugarren oinarri honetan dago Magantoren aburuz, kontziliazio parekide baten gakoa, haren ustetan, emakume askori oraindik ere, bizitza pertsonala lanarekin eta familiarekin kontziliatzea "ahaztu" egiten baitzaie. "Baina arreta handia eskaini beharreko alorra da, geure ongizatea bermatuko duena baita. Historikoki, gizonezkoak lan esparruan eta alor pertsonalean garatu dira, lan ordaindua eta bizitza soziala zainduz; emakumezkoek, aldiz, zailtasun handiak izan dituzte bizitza familiarretik harago garatzeko. Emakumeak lan esparruan sartu dira familien zaintza alde batera utzi gabe, eta horrek bizitza pertsonalarentzat espaziorik eta denborarik gabe utzi ditu. Benetan 'kontziliatzeko' eta norbere burua osoki garatzeko beharrezkoa da esparru pertsonala zaintzea.
Lana eta familia bizitza kontziliatzeko politikak diseinatzean parekidetasuna mahai gainera ateratzen da, kontziliazio-laguntzak eskatzen dituzten gehienak emakumezkoak baitira, nabarmen. Raquel Royo Prieto soziologoak Emakunderentzat egin zuen *Maternidad, paternidad y conciliación en la CAE* ikerketan azaldu zuen, kontziliazio neurriak oso "feminizatuak" daudela: "Egoera alda dadin beharrezkoa da eraldaketa sozial bat gertatzea eta zaintza sistema sozioekonomikoaren erdigunean jartzea, gaur egun ekoizpenak hartzen duen lekuan. Erreprodukzioaren alor guztia ikusezina da, eta sakonean, berau da alor produktiboari eusten diona". Kontziliaziotik haratago, erantzunkidetasunaz hitz egin behar dela dio soziologoak, erantzunkidetasun familiar eta sozialaz.
Aldaketa soziala dakarten ereduak mahai gainean jartzeko premia azaldu du Royoren ikerketak, zaintzaren eremuan sartu nahi duten aitak, "patriarkatuari espazioa lapurtu dioten gizonak" eta amatasuna eta lan uztarketa "kulpa barik" bizi duten emakumeenak. "Emakumeak oraindik ere errudun sentitzen dira ordaindua den lan bat egiteagatik eta sozialki eraiki den espektatiba bati ezin diotelako erantzun, ama ona izateko espektatiba hori oso zorrotza eta injustua da emakumeekiko, kurioski, gizonezkoek askoz denbora gutxiago eskaintzen dioten arren seme-alaben zaintzari ez dute errudun sentimendurik".

10. Hazi Hezi
haziera eta heziketarako euskal aldizkaria



Egin zaitez harpidedun!
urteko harpidetza
(lau aldizkari)
20 euro

www.hikhasi.com

Xabier ZABALA
Musikaria

SARDINA BAT

Sardina bat, (guztietan errepikatu)
bi sardina,
elkartu ziren
izkina batean.
Atxi, txi, txi, txi, txi, txi, guagua.
Agua, gua, gua, gua, gua, guatxitxi.
Jarrai dezala...



Nola jolasten den

Bidai abestia da *Sardina bat*. Abeslari bakarlariak dioena errepikatu behar dute beste jokalariek. Jarrai dezala... Miren (taldeko izen bat esaten da eta hark segitzen du).
Aldaerak: elkartu ordez, topatu, batzartu... erabil litezke. ...izkina ordez, mendi, kale, ibai, zelai, etxe... erabil litezke.

Hitza eta musika herrikoiak dira. Xabi Zabalak moldatu du musika.

JOLASAK

HARRI-KOZKOR BATEKIN

Harri-kozkor batekin,
hor dabil Martin, tin, tin.
Jotzen ditu kax, kax, kax!
Bata bestearekin.
Bata bestearekin,
jotzen ditu kax, kax, kax!
Harri kozkor batekin,
hor dabil Martin, tin, tin.

Nola jolasten den

Esku banatan harri-kozkor bat dutelarik eta abestiaren erritmoa jarraituz, bi harriak elkar joarazi behar dituzte haurrek modu honetan adibidez: aurrean, hanka baten azpian, bestearen azpian, atzean eta berriro aurrean.

Josi Oiarbidek asmatu du hitza eta Xabi Zabalak jarri dio musika.

“Oso jarrera osasuntsua da sormena, indar handia ematen dizu

MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA

ARRISKUA, HANKA SARTZEA, AKATSAK EGITEA..., JOLASA ETA GOZAMENA BEZALAXE, SORTZE-PROZESUAREN PARTE EZINBESTEKO DIRA, BAITA IKASTEKO ETA BIZITZEKO ERE. “BADAKIT BIZITZA EZ DELA BETI HORRELA, BAINA SAIATU BEHAR GARA GAUZAK GUSTURA EGITEN, GOZATZEN”.

Manu Muniategiandikoetxea (Bergara, 1966) estudioan.

Umetan, baporea botatzen zuen tren bat zuten etxean; bapore hura nondik ateratzen zen ikusteagatik tripak atera zizkioten trenari. Hala segitzen du Manu Mniategiandikoetxeak (Bergara, 1966), margoaren edo eskulturaren bidez errealitateari tripak ateratzen; galderak eta erantzunak bilatzen, haurrek duten jakin-minarekin. Guggenheimeko Artea Ikasbide hezkuntza proiektuan irakasle diharduru tetan haurrekin, ikasten. Jorge Oteizaren hitzak bere eginez, artistek eta umeek gertu egon behar dutela uste du, "gizartea aldatuko genuke".

Artea Ikasbide hezkuntza proiektuaren helburuak, "mundua askatasun eta irudimen handiagoz begiratzea" edota "artea errealitatea deskubritzeko, esploratzeko eta ulertzeko tresna bihurtzea..." dira, besteak beste. Esperientzia honetako haurrek nolako gerturatzea izaten dute arteakiko?

Umeek ez daukate aurreiritzirik, ezta artearekiko ere, eta ez daukate inongo arazorik guk helduok dauzkagun balore eta estamentuetatik aldentzeko. Nahiz eta gauzak konplexuak izan, kontzeptuetan argia baldin bazara, naturala baldin bazara, umeek jaso egiten dute azaltzen diezun guztia, inolako problemarik gabe, eta irekitzen diezun ate horretatik sartu egiten dira, artearen mundura. Nik horrela ikusten dut neure burua Artea Ikasbide proiektuan, pentsatzen dut ni naizela beraiek arte munduarekin daukaten zubia, beraz, naturaltasunez irekitzen badiet atea, beraiek errazago pasako dira.

Helduok askotan pentsatzen dugu umeei gauza sinpleak eman behar zaizkiela, ipuin sinpleak irakurri behar dizkiegula, edo ez dutela artea ulertuko... eta ez da hala. Umeek ez daukate gauza konplexuak deskodetzeko arazorik, euren moduan egingo dute, hizketan jakin gabe ere egin gabe, ulertu egiten dute. Harkaitz Canok dio bere aitak, txikia zenean, On Kixote irakurtzen ziola...

Nolako irakaslea zara?

Ni ez naiz maisua, ez dakit jendea eserita entzuten formal edukitzen... nik gauzak egiten dakit. Ez dut uste liburuetakoa bere horretan azalduz ikasten denik. Nik neuk, irakasleengandik gehien ikasi dudana pasioz transmititu didatenean izan da. Historia adibidez; nik historia azaldu behar badut, ez dut modu eskematiko batean azalduko, baizik eta niri gai hori zergatik interesatzen zaidan azalduko diet, niri gustatzen zaidana transmitituko diet, zer ikusten dudan hor, zergatik maite dudan... Uste dut hori dela benetan haurrei iristen zaiena.

Hezkuntza sistemak, etekin batzuk ateratzeko egina dagoenez, bide asko apurtu egiten ditu, zikiratzailea da, eta aurretik eramaten ditu umeak dituen gaitasun izugarri eta balore asko. Halaxe pentsatzen dut. Curriculumak eta eskolak betebehar batzuk dituzte, baina ez diete erantzuten umeen behar naturalei. Ni eskola batera sartzen naizenean ezarrita dagoen hori guztia apurtzen saiatzen naiz. Asko balioesten ditut arriskua eta akatsa, baina ume askok beldurra izaten diote oker egiteari. Nik beti esaten diet, akatsik gabe, eta hanka sartu barik ez dagoela aurrera egiterik. Ez da posible.

Irakasle bezala, bestetik, saiatzen naiz indibidualki baino gehiago kolektibitatea lantzen: zuk egin duzuna eta nik egin dudana batuz beste zerbait egiten... Haurrak etapa batean ni-ni-nika aritzen dira, euren nortasunaren parte bat da, baina nire lana besteekin harremanean lan egiten ikasten laguntzea da, besteek egin dutena baloratzea, eta ez juzgatzea; artistak denok garela ikusaraztea, egile bezala eta potentzialtasun bezala denok dugula sormena, eta baliatu egin behar dugula beste bide batzuetatik ibiltzeko arteak eta sormenak eskaintzen dizkiguten aukerak.

> "Umeek ez daukate gauza konplexuak deskodetzeko arazorik, euren moduan egingo dute, hizketan jakin ere egin gabe"

Zer nolako bidea eskaintzen die arteak haurrei?

Artea norbere bidea bilatzeko tresna bat da, eta umeari bere izaera onartzen laguntzen dio; horrek, ordea, bere alde onak eta txarrak ditu.

Nik nire modua daukat, adibidez, ideiak ordenatzeko, beti listak egiten ditut... baina beste batek beste modu batera ordenatuko ditu pentsamenduak; bakoitzak bere metodoa topatu behar du. Ezin diozu erakutsi pertsona bati gauzak nola egin behar dituen, zuk lagundu egin diezaiokezu bere modua bilatzen, baina erakutsi ez; ezta irakasleak ere.

Ume asko daude eskola arruntetan jartzen zaizkien betebeharretara ez direnak moldatzen, eta aldiz, juiziorik ez dagoenean, ondo edo gazkirik ez dagoenean, puntuaziorik ez dagoenean ondo moldatzen direnak. Ez dago umerik trebea ez denik, zerbaitetan izango da trebea, kontua da bilatu eta aurkitu egin behar dela zertan den trebea haur bakoitza.

Jolasteko aukera ematen dizu arteak?

Arteak badauka 'ludo' horretatik, joko bat da baina, aldi berean, ispilu batean begiratzea bezala da, eta tentel aurpegia ikus dezakezu, zure ahalmena mugatua dela jabetu zaitezke. Artea bide gogorra da, lana egin behar da. Baina lana, zure lana gustukoa baldin bada, lan erdia da. Nik iratzargailua jartzen dut estudioan, bestela denbora joaten zait, tripako mina ere ez dut sumatzen gosea dudala... gaueko hamarrak arte lasai aritu naiteke lanean zer ordu den jabetu gabe. Kreatibitate horretan sartzen naizenean askatasun osoz egiten dut. Gustura baldin bazaude hori egiten ez dago ordutegirik. Badakit bizitza ez dela beti horrela, baina saiatu behar gara gauzak gustura egiten, gozatzen.

Eta nola gorde, nola mantendu potentzialtasun hori? Txikitako ekimen horri nola eutsi helduaroan/gazta-

> // Ez dago trebea ez den umerik; kontua da bilatu eta aurkitu egin behar dela zertan den trebea haur bakoitza //

> // Artea ez dakizuna ez dakizun bezala egitea da. Beti ahalegintzen, arriskatzen, akatsak egiten... Bizitza hori da, ez dakigu bihar zer gertatuko zaigun //

roan?
Artista eta umeen arteko gertutasuna lortuko zukeen zerbait eginez gero gizartea aldatuko genuke, Oteizak esaten zuen.
Ekimen hori helduak garenean hartzea ezinezkoa da, horregatik, nire ustez, artistok haurtzaroan egin beharko genuke lan, artistak eta haurtzaroa gerturatu beharko lirateke. Haurren lanak erakutsi beharko lirateke eskoletatik kanpo, eta horri buruz hitz egin. Haurrek artistekin hitz egiteko ohitura zabaldu beharko genuke, euren hizkuntza ulertu, egiteko modua ezagutu... Ez dut esaten denok izan behar dugula goi mailako artistak, baina norbere gaitasunak kontuan hartzeak mesede handia egingo liguke.
Orain garrantzi handia ematen zaio elikadurari, eta kirola egiteari ere bai, bada niretzako beste atal bat sormena izango litzateke. Burua beti ematen egotea, ez bakarrik hartzen aritzea. Denok egin beharko genuke ariketa mental hori, sormen-lan hori. Garai batean formazioa karrera bat ikastea zela pentsatzen zen, orain formazioa bizitza osoko zerbait dela onartzen dugu, bada, nik uste dut sormena ere hala dela, bizitza osorako zerbait, ez bakarrik alderdi indibidualean, baita sozialean ere.

Sortzaile izatea, artista izatea, jarrera bat al da?
Norbere burua elikatzera behartzea, hori da artista izatea.
Artea da bizi garen errealitate honen irakurketa bat egiteko eta erantzun bat emateko tresna. Eta, era berean, galderak egiteko tresna bat ere bada. Ez da gauza politak egiteko zerbait; nik horretan ez dut sinesten. Bizitzeko erreminta bat da, norberak asmatutakoa, gizaki egiten gaituena, gauzak esanaz, bai plastikotasunean, hitza, ekintza... Mugak zalantzan jartzeko mekanismo bat da artea. Horregatik gustatzen zait hainbeste ipuinekin jolastea. Umeei, oro har, ipuina beti berdin kontatzea gustatzen zaie; niri aldatzea gustatzen zait: hartu Txanogorritxo eta umea bera barruan sartzea... Edo Txanogorritxoren ipuinean hiru txerritxoak sartzea... "Ez aita horrela ez da", "zergatik ez?". Lehenengo ipuina den bezala entzun nahi izaten dute, behin eta berriz, mundua interpretatzeko. Baina behin jolas gisa hartzen dutenean, ipuinaren tripak ikusten dituzte, ipuinaren bukaera alda dezaketela ikusten dute, eta horrek balio handia dauka. Gure egitekoa, mundu hori zalantzan jartzea da; edo gutxienez, ikusaraztea gauzak ez dituztela hala egiten eurek nahi dutelako, baizik eta gizarteak bultzatuta, bere gauza onekin edo txarrekin. Tripak ikusten dituztenean kriterioa jasotzen dute.
Harreman estua dut Mendirekin [Juan Luis Mendizabal artista zarauztarra], laurogeita piko urte ditu eta beti marrazten ari da. Umeekin ikaragarrizko harremana du... asko marrazten du eta asko idazten du. Esaten du ezin duela hil oraindik proiektuak dituelako egiteko. Buruz ikaragarri aktiboa da eta ez da gelditzen; hori da artista izatea. Eta horrek bizitzako arlo askotarako balio dizu, oso jarrera osasuntsua da sormena, indar handia ematen dizu. Baina sortzaile izan zaitezke arte plastikorik egin gabe, ortuan, kalean... Kontzeptuak fisikotasun batekin nahasten badira, eta txikitatik lantzen baldin bada hori zure nortasunaren eginkizun bezala, ederki!

Txikitatik hasi zinen margotzen eta gaur arte. Haurraren ekimena bizirik ikusten da zugan... ikerlari, ingeniari...
Ni txiki-txikitatik hasi nintzen marrazten. Nire aita margolaria zen, eta nire etxean oso babestua eta bultzatua egon zen sormena; anaia ere arkitektoa da. 6 urterekin akademia batean nengoen, baina ez nuen bereziki ondo marrazten; ni baino askoz hobeak zeuden. Nik oso ondo pasatzen nuen pintatzen, eta asko gustatzen zitzadain margotzea.
Batzuek diote, "zeinen ondo margotzen duen nire semeak!". Eta haurrek ere, koadro bat egiten dutenean zera galdetzen dute:, "ondo dago?", artean ez dago ondo eta gaizkirik. Artea ez da ondo marraztea; niri hori ez zait batere interesatzen. Ni, irakasle bezala, ez naiz fijatzen zer egiten duen paperean, fijatzen naiz umea margotzen ari denean —edo berdin dio irakurtzen edo beste lanen batean—, adurra dariola dagoen ala ez, eta lagunak aldamenetik hizketan ari zaizkiola eta ez dela konturatzen, hori da 'problema', artista izateko bidearen hasiera. Autista puntu bat daukagu: interesatzen zaigun horretan kontzentratzen

garenean ez zaigu ardura denbora.
Artista bezala, ahalegintzen nahiz erakusten jendeak ikusten ez duen hori; jendeak koadroari begiratzen dio, bukatutakoari, niretzako hori tentelkeria bat da, niri prozesua interesatzen zait, artistak egiteke laga dituzten lanak. Hor ikusten dira tripak. Guk txikitan baporea botatzen zuen tren bat eduki genuen, apurtu egin genuen ikusteko nondik zetorren kea. Nire lana hori da.

Artean ez dagoela ondo edo gaizkirik diozu, baina zure ibilbidearen hasieran garrantzia handia izan zuten sariketek, eta hor epaimahai bat zegoen, zer zen zer baino hobea esateko.
Sariketen espezialista nintzen.

Esanahi duzu bazenekiela nola irabazi behar ziren sariketak?
Hori da. Lehiaketa bat ez da gauza ireki bat. Nik, adibidez, kaleko paisajeak margotzen nituen. Adibidez, Bilboko sariketa baterako: irakurri zein den epaimahaia, badakizu, beraz, eskatzen duen epaimahaiak, eta, horretara gerturatzen zara. Ni espezialista izan naiz konkursotan: koadro zatarrekin irabazi izan dut.

Beste artista batzuen lanak iturri izan dituzu, Alexander Rodtxenkoren obraren gainean egin duzu lan, esate baterako... Umeenak iturri gisa erabiltzeko tentaziorik izan duzu?
Nik egiten dudana, beste artisten obraren inguruan lan egite hori, artista guztiek egiten dute; Picasso zen kanibalena: txarra ez zitzaion batere interesatzen, baina lapurtzeko zerbait baldin bazegoen, hura zen lehenengo lapurra. Nik esan egiten dut, tripak erakusten ditut. Sormena ez da airetik etortzen, baizik eta ikusten duzun horretatik. Buruan duzun horren bila bezala zabiltza, ispilu baten bila, baina gero ispilu horretan zeure burua ikusiko duzu.
Umeen gauzak hartzen ditudan? Nik egiten dudana da benetako lana eurekin. Esaten diet zertan nabilen, zein prozesutan nagoen, eta eurak nire lanean sartzen dira. Umeek egindako lanek, Guggenheimen dauden gauzak, eta nire lanek elkarren artean oso lotura estua dute; edo ni ari naiz umetzen edo umeak datoz nigana. Lanak benetakoak izateko eta benetako intentsitatea izateko, ezin dira parodia bat izan. Benetakoak dira. Ez zara ari antzezten lan bat egin behar duzula, ez, benetan ari zara lanean. Lan horiek nireak bezala hartzen ditut, eta Zarauzko ikasleenak berdin. Iritsi gara konpromiso maila batera, non eurek egindako lanak edozein lekutara neure atal bat balira bezala eramango nituzkeen.

Sarri kolokan, artistak betidanik egon dira ziurgabetasunari oso loturik. Segurtasun eza nagusi da gaur egun maila sozioekonomikoan, kasu, hezitzaileek gero eta maizago diote gaur eguneko umeek etorkizunean zertan lan egingo duten ezin dela jakin, eta hezitzailea dela ziurgabetasun horrekin bizitzen ikasten lagunduko dien pertsona. Badugu zer ikasia artistengandik, ezta?
Ziurgabetasuna onartzen hasi beharko dugu. Gu, artistok, hor bizi izan gara eta hor bizi gara. Ziurgabetasun hori onartzen ez duenak, normalean utzi egin du artea. Agian jarraituko du sortzen, baina beste lan bat edukiko du. Ezjakite horretan bizi zara, eta familia bat edukitzea, adibidez, oso arriskutsua da.
Nik umeei esaten diet artea dela ez dakizuna ez dakizun bezala egitea. Beti egon behar zara ahalegintzen, arriskatzen, akatsak egiten... Bizitza hori da, ez dakigu bihar zer gertatuko zaigun. Euskaldunok lotura gogor batzuk ditugu, familia, sustraiak, fedea... onerako eta txarrerako, horrek indar handia ematen digu, baina beste gauza asko kentzen dizkigu. Niretzat hori guztia desakralizatu egin behar da. Dena aldatzen ari da... Ez dakigu gure seme-alabak non biziko diren, zeinekin, hiru bikote edukiko dituzten... neska, mutilak... bakarrik biziko diren... Nik beti esaten diet, garrantzitsua ez dela lanbidea, kontua gustura aritzea dela, eta harremanak benetakoak izan daitezela.
Momentu hau txarra da, oso txarra, arte mundurako. Sormena borborka dago, baina ekonomikoki oso zaila da, horrexegatik ere, ekonomia ez den beste helduleku batzuk behar ditugu.

Estitxu FERNANDEZ
Sexologoa eta komunikatzailea

ERDITZEA EDO PASABIDE MALGUA

Malgutasuna ez da nire bertuterik handiena izan, harik eta bizitzak, bere krisiekin, zeinen beharrezkoa nuen erakutsi zidan arte, eta eskerrak, erditzeak malgutasun izugarria eskatzen baitu, malgutasun fisiko nahiz mentala.

Arrisku altuko haurdunaldia izan zen gurea eta hori jakin genuen momentutik bertatik hasi zen malgutasun ariketa. Egoera berezia izaki, berezitasuna bera onartu behar izan genuen lehenik, eta egoerak ezarritako gainontzeko baldintza berrietara poliki-poliki ohitzen joan ginen gero, bertze gauzen artean, nahitaez ospitale handi batean erditu behar izatera.

Onartu, ohitu, egokitu, berkokatu, baina ez amore eman, ez baitira gauza bera. Gure egoeraz kontziente ginen, behar berriak genituen baina horrek ez du erran nahi dena bertzeen esku utzi genuenik. Espero ez genuen zerbait gertatu zen eta baikortasunez onartzeko eta gure ideien inguruan hausnartzeko gaitasuna izan genuen, baina errenditu gabe, egoeraren kontrol osoa kanpoan utzi gabe. Hori da malgutasuna, ez? Gauza bat dira norberaren uste sendoak eta horien arabera ausardiaz eta konpromisoarekin jokatzea, eta bertzea, gauza guztien gainetik beti arrazoiaren jabe garela pentsatzea edo buruan dugun ideia hori kosta ahala kosta defendatu nahi izatea. Erditze ideala horixe da, ideia bat, buruan dugu, amesten dugu, baina ez da esistitzen, erditzea bizi egin behar da, eta gustura bizitzeko, desio duguna defendatzeak bezainbertzeko garrantzia du errealitatea malgutasunez onartzeak. Bide batez, mediku jende zenbaitek ere zurruntasuna alde batera uzteko garaia du.

Egiari zor, amatasun eta aitatasunaren prozesu osoan izan behar genuke malgu, azken finean, erditzea pasabide bat da, arront bizia, basatia nahi bada, delikatua era berean, eta hagitz garrantzitsua, baina igarobide bat bertzerik ez. Ama eta aita izateko bidea erditu aitzinetik hasten da eta erditu ondotik bizi osoan irauten du. Inpresioa dut batzuetan indar handiagoa paratzen dugula pasabidean ibilbide osoan baino, eta neurri batean ulertzen dut. Emakume aunitzek erditzea sufrimendu handiz bizi izan dute, errespetatu ez zaielako, informazio faltagatik edo euren beharrekiko kontzientzia ezagatik, eta sufrimendu horrek momentu berezi hori gauza guztien gainetik babestera eraman gaitu.

Erdimina sufrimendu fisiko nahiz emozional ez bilakatzeko, erditzearen kontzientzia areagotzea ezinbertzeko lana iruditzen zait, alegia, emakumeak erditzearen prozesua bera eta bere egiazko beharrak ezagutzea, eta horren arabera erabakitzea. Eta artatzen gaituztenei, berriz, gure erabakia errespetatzea dagokie. Izan ere, "nola ekarri nahi dut nire umea mundura?" galdera funtsezkoa da amatasun eta aitatasunean. Baina ez dago bertze galdera hauen gainetik: "ze beharrek bultzatuta izan nahi dut ama edo aita?", "nire bizitza aldatzeko prest al nago?", "ze haziera mota eskaini nahi diot nire umeari?", "ze behar afektibo dituzte umeek?"... Kontzientzia handia eskatzen du ume bat ekartzeak, eta ez bakarrik erditze-gelari begirakoa.

LEHENENGO SENTITU, ONDOREN PENTSATU ETA EKIN



Denak haserretzen gara. Pirritx eta lagun zakurra ere bai. Izan gaitezen amorru eta guzti elkar maitatzeko gai.



Iluntasunak beldurtzen du Pupu, amesgaiztoek Lore, eta bakardadeak Porrotx. Pirritxi babes eske datoz.

Marimototsek betaurreko magikoak janzten ditu goizero, dena da zorion iturri halek jantziz gero.

Hil egin da amona Josefina eta triste daude Pupu eta Lore. Laster ohartuko dira pupu batetik sortu daitezkeela bi lore.

20 urte euskal hezkuntza ospatuz

www.hikhasi.com